# Goienkaria

2007ko uztailaren 20a > Egubakoitza > VII. urtea > 297. zenbakia > Doan banatzekoa
www.goiena.net

"Konpetentziak kopiatu ezin dezakeen bakarra da modelo kooperatiboa"



**Jose Mari Aldekoa** MCCko presidentea > 09

**G2a** **Albania eta Mexikoko folklorea Arrasaten** > 35-36

**URKULU** **Urtegia ibarreko aisialdigune nagusietakoa bihurtu da** > 13

**OÑATI** **Sardinak, filmak eta musika surf jaialdian bihar, zapatua** > 37

**ARAMAIO** **Seigarren rallysprinta jokatuko da bihar; 66 pilotu lehiatuko dira** > 32

**ONDAREA** > LEINTZ IBARRA

## Leintz ibarraren historia

1260tik 1630era arteko epealdia ikertu eta liburu baten jaso dute > 27

**DIASPORA** > TOPAKETA

## Euskal diasporako gazteen topaketa Eskoriatzan

Hilaren 23an eta 24an euskal diasporako 22 gazte izango dira Eskoriatzan, Leintz Ibarraundi Fundazioak gonbidatuta. Euskal Herrikoez gain, Argentina, Errusia, Espainia, Estatu Batuak, Hungaria, Korea, Serbia, Turkia eta Ukrainatik etorritako gazteak dira. Besteak beste, globalizazioaz arituko dira. > 06



**DIGITALIZAZIOA** Goiena Telebistak digitalizaziora jauzia egiteko azpiegitura prest dauka. XABIER URTZELAI

**TELEBISTA** > LURREKO TELEBISTA DIGITAL LOKALEN LIZENTZIAK

# GOITBk telebista digital lokalen lizentzia jaso du

**HIRU LEHIAKIDE** Debagoienean, Localia, Localmedia eta Vocento taldeek ere jaso dute lizentzia bana

**GUZTIRA 57 TELEBISTA** Autonomia Erkidegoan 57 lizentzia banatu ditu Eusko Jaurlaritzak > 05

**ARETXABALETA** > OSASUNA

## Airearen kalitatea neurtzen

Kutsadura maila neurtuko dute, bigarrenez > 25

**ISTRIPUA** > 4 URTEKO UMEA

## Alhambran jausitako haurra, hobeto

Aretxabaletako umea "larri dago, baina hobera egiten ari da", diote gurasoek > 06

**AURKIBIDEA**

**Asteko gaia** > 02-03
**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10
**Gutunak** > 11
**Herriak** > 13-31
**Kirola** > 32-33
**Kultura** > 37
**Sailkatuak** > 38
**Eskelak** > 39-40
**Gazteak** > 42
**Komunikazioa** > 43
**Telebista-Irratia** > 44
**Non-zer** > 46-47






**ONDAREA** > DEBAGOIENEKO HERRIETAN KANPOTARRARI ZER ERAKUTSI

# Debagoieneko bederatzi altxorrak, edozein bisitarik ikusi beharrekoak

Debagoiendar askok ez ditugu ezagutzen herri bakoitzak gordetzen dituen ezkutuko altxorrak

**IKER BARANDIARAN**> DEBAGOIENA

Uda sasoian hainbat kanpotar etorriko dira gurera. Horietako asko Arantzazura, Oñatira edo Bergarara joango dira, eta turismo zerbitzuetan aholkutako *izarrak* bisitatuko dituzte. Hala ere, horiek gutxietsi barik –hor izateko arrazoi ugari dituzte–, herri guztiek dute ezkutuko edo ez hain ageriko altxorrak, ezagutzera ematen ez direnak. Debagoiendarrok ere horietako asko ez ditugu ezagutuko; eta, askotan, merezi du gure ingurukoari ere erreparatzea.

Altxorrok zeintzuk diren jakiteko, Debagoieneko udaletako ordezkariengana jo dugu. Gurera presaka etorritako bisitari batek herri bakoitzean ezagutu beharreko altxorra zein den esateko eskatu diegu. Aukeraketa zaila bada ere, hala egin dute.

Orrialdean nabarmenduta aurkituko dituzuen altxorretako batzuk oso ezagunak dira debagoiendarrendako, baina beste batzuk ez. Aukeraketan denetatik dago: ingurune naturalak, monumentuak, aspaldiko lanbideak erakusten dituzten errotak...



ARRASATEKO ERDIGUNEA Erdi Aroko almendra forma du. JOSEBA ANTIA

## Erdigunea

ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kultura teknikari Jon Garaik azaldu digu Arrasatek erakusteko duen gauza kutunena erdigune historikoa dela. "Erdi Aroko almendra forma du, eta horrek erakargarritasun handia du".

Horren harira, erdigune historikoa oso egoera onean dagoela nabarmendu du Kultura arduradunak: "Azken urteotan asko hobetu da, eta Olarte kalea oinezkoendako jartzeak ere lagundu du horretan".

Erdigunea osotasunean aukeratu du, eta ez du eraikin berezirik nabarmendu: "Kaleak eurak ditut gustuko, eta hortik paseatzea, terraza baten jartzea... Aukera horiek ematen dizkigu". Dena dela, horren barruan Maalako Errabala eta Olarte ere sartu ditu.

Bestalde, jakinarazi du Monterron ere ederra dela, eta Arrasatek baduela zer erakutsi.



ARETXABALETAN URKULU Aukera asko ematen ditu inguruneak. INMA MIGUEL

## Urkulu

ARETXABALETA

Aretxabaletako Udaleko Kultura teknikari Inma Miguelek ez du zalantzarik izan Aretxabaletako altxortzat Urkulu aukeratzeko: "Ingurune naturala da, paisaia ikusgarria da, eta ibiltzeko, paseatzeko eta kirola egiteko aukera paregabea eskaintzen du. Gainera, inguruko elizateak ere ederrak dira, ikustekoak!".

Miguel, ahal duen heinean, aste barruan joaten da Urkulura umeekin, eta udaberria eta udazkena ditu horretarako gustukoen: "Bidegorritik edo Boliñatik igo eta argazkiak egiten ditut".




OÑATIKO UNIBERTSITATEA Pizkundeko altxorra dela diote. MAIDER ARREGI

## Unibertsitatea

OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoko Iñaki Igartuak Santic Spiritus Unibertsitatea aukeratu du Oñatin ikusi beharreko altxortzat.

Igartuak azaldu digu Oñatikoa Euskal Herriko lehen unibertsitatea izan zela, eta Pizkundeko artearen adibide aproposa dela. Are gehiago, duen balioa azpimarratu du: "Aste Santuan Italian egon naiz, eta konturatu naiz Oñatin dugun ondarearekin ez dugula beste lurralde batzuen inbidiarik izan behar".

Horrez gain, Igartuak oso garrantzitsu deritze Unibertsitateko fatxadan irudikatuta dauden bertuteei: "Pizkundeko eraikin baten bertuteak hala irudikatuta egotea ikusgarria da; zelan dauden eginda eta jarrita...".

Uztailean unibertsitatea bisita daiteke zapatu, domeka eta jaiegunetan; eta abuztuan egunero joan daiteke bertara.



ELGETAKO ASENTZIO Egunpasa egiteko txoko lasaia eta ederra da. LARRAITZ ZEBERIO

## Asentzio

ELGETA

Herrigunean zer ikusi badagoela aitortu arren, Enrike Gorrotxategi kultur teknikariak, Asentzio eta haren inguruak ditu gustukoen: "Handik, Aizkorri, Udalatx, Anboto eta Elgeta ikusten dira; eta han bertan ermita eta pagadi ederra daude, baita Intxortako atea ere. Horrek ere esangura berezia du".

Elgetar, debagoiendar, eibartar eta ermuar ugari joaten dira Asentziora egun pasa egin eta bazkaltzera: "Ez da masifikatuta egoten, baina, egia esanda, eguraldi ona dagoenean zaila izaten da bazkaltzeko mahaiak lortzea".



BERGARAKO SANTO KRISTOA Barrokoko eskultura onena dela diote. GOIENKARIA

## Santo Kristo Hilzorikoa

BERGARA

Xabier Aranburu, Bergarako Udaleko museologoak Ariznoako San Pedro parrokian dagoen Santo Kristo Hilzorikoa aukeratu du: "1622ko eskultura Juan de Mesaren maisulana da; eta, arte kritikari askoren esanetan, Barroko garaian mundu osoan egin den eskultura onena da. Sevillan egin zuen, eta 1626a ezkero dago Bergaran".

Bestalde, Aranburuk nabarmendu du oso kontuan hartzekoak direla XVI. mendeko Agarreko Garaia (zutik gelditzen den Gipuzkoako bakarra); Santa Marina parrokiako XVIII. mendeko erretaulak; eta Bergarako erdigune historikoa, besteak beste.



AITZORROTZ ZAINDARI Kokagune berezia du Aitzorrotz mendixkak. ANDER AGIRIANO

## Aitzorrotz

ESKORIATZA

Ander Agiriano kultur zinegotziak hartu berri du Turismo zinegotzi kargua, baina ez du zalantzarik izan Aitzorrotz aukeratzeko; hori bai, Bolibarren barrena mendixkara doan bidea ere nabarmendu du: "Aitzorrotzek duen esanahiagatik, kokapen bereziagatik eta edertasunagatik aukeratu dut".

Are gehiago, Aitzorrotzek aukera asko ematen dituela gogorarazi digu: "Mendi txangoa edo egun-pasa egiteko leku aproposa da, eta han iturriak, mahaiak daude horretarako. Horrez gain, eskalatzeko lekuak ere baditu".

## Gatz museoa

LEINTZ GATZAGA

Eusebi Villar Leintz Gatzagako alkate berriak azaldu digu Gatz Museoa dela herrian erakusteko duten gauza bereziena: "Herriaren tradizio eta izenarekin bat dator museoa, eta horren bidez aspaldiko langintza hori ezagut daiteke".

Asko dago erakusteko, baina jendeari arreta handien ematen diona da gurpilarekin putzutik zelan ateratzen zuten gatza. Autobus ugari joaten dira museoa ikustera. Zapatu eta domekero bisita gidatuak egiten dituzte, eta, bestela, taldeen kasuan, aurretik museora deituz gero, bisita eska daiteke. Abuztuan egunero dago zabalik.



LEINTZ GATZAGA Museoa herriaren tradizioarekin bat dator. IKER BARANDIARAN

## Antiguako errota

ANTZUOLA

Juan Luis Aranburu kultura teknikariak uste du Antzuola herri txikia eta erakargarria dela; horregatik, Antiguako errota horren guztiaren osagarri aproposa dela gaineratu du: "XVI. mendeko errota hori berreskuratuta izatea itzela da, ondare artistiko, nekazari eta historikoa da-eta. Gainera, bisita didaktikoak antolatzen ditugu, umeek eta bestelako interesatuek funtzionamendua ezagutu dezaten".

Horrez gain, Kultura teknikariak nabarmendu du "errotaren inguruak zoragarriak" direla: errekatxoa, ahateak, lorategiak eta, batez ere, Antigua baseliza, hain zuzen ere.



ANTZUOLAKO ERROTA Antiguako baselizaren inguruan dago errota. GOIENKARIA

## Etxaguengo errota

ARAMAIO

Rosa Mondragon euskara teknikariak bisitariei erakutsiko lieke Etxaguengo errota. "Errota lanean ikusteko aukera dago, aspaldi erabiltzen zen moduan. Horretarako, interesatuek Udalera jo beharko dute, eta guk erraztuko diegu bidea".

1642ko errota hori publikoa da orain dela 15 bat urte, eta Udalak egin zituen horren berritze lanak. Iraganean Etxaguengo auzotarrek erabiltzen zuten, eta aspaldian bisitak daudenean bakarrik jartzen dute indarrean.

"Etxaguendik ibar osoa ikusten da, eta gainera, Urkiolako parke naturalaren sarreran dago. Leku zoragarria da!".



ARAMAION ERROTA Etxaguenen dago berreskuratutako errota bat. IKER BARANDIARAN







**AUZOLANDEGIA**> BEDERATZI GAZTEK DIHARDU; HIRU ARRASATEKOAK DIRA

# Elkarbizitzen eta enpresa bat sortzen ikasten ari dira Elosun, auzolandegian

24 eta 35 urte bitarteko bederatzi bizkaitar eta gipuzkoar parte hartzen ari dira ekimenean

Goizetan eraikin bat berriztatzen dute eta arratsaldeetan formazio saioak jasotzen dituzte

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Joan zen astelehenean hasi zen, Elosun, Saiolan Arrasate enpresak eta berrikuntzarako zentroak antolatutako auzolandegia. Hamaika lagunek izena eman bazuten ere, azken orduan bik kale egin zuten; hala, bederatzi lagunek dihardu Elosun.

Lau neska eta bost mutilez osaturiko taldea da aurtengoa. 24 eta 35 urte bitartean dituzte guztiek. Enpresa bat sortu gura dute taldekide horiek. Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorri dira. Lau tutore arduratzen ari dira egunotan auzolandegian egin behar diren ekimenez.

Guztira, hamahiru egun eingo dituzte Elosun. Hain zuzen, hilaren 29a arte izango dira han. Goizetan Elosuko eliza osteko eraikineko fatxada eta ondoko loradegiko harresia berriztatuko dutela jakinarazi du auzolandegiko tutore Argiñe Larreak.

**FORMAZIO SAIOAK**

Arratsaldeetan, berriz, enpresa sortzeko formazio saioak jasoko dituzte toki berean. Hiru gai ezberdin landuko dira egitasmoak irauten duen bitartean: Ekintzailetza, Espiritu Kooperatiboa eta Enpresen Bideragarritasun Planen ingurukoak izango dira esandako saioak.

Hala ere, aisialdirako astirik ez da faltako Elosuko auzolandegian. Egun osoz gogor lan egin ostean, gauean lasaitzeko aukera izango dute han bildutа daudenak. Besteak beste, barreterapiaz, *orienting* izeneko jolasaz eta magia ikuskizunaz gozatu ahal izango dute.



**LAN FISIKOA** Goizetik lorategiko harresia berriztatzen dihardute. GOIENKARIA

DATUA

**3**

**ARRASATEAR**

Bederatzi gaztek osatzen dute taldea. Horietatik, hiru Arrasatekoak dira. Horrez gain, Dimako bi eta Bilboko, Hondarribiko, Donostiako eta Zizurkilgo bana daude auzolandegian.

Larreak adierazi duenez, auzolandegiak helburu bikoitza du: alde batetik, elkarbizitzen ikastea; eta, bestetik, enpresa berri bat sortzeko gutxieneko ezagutza batzuk ikastea. Horren harira, "hor dauden gehienei inoiz enpresa propioa eratzea burutik pasa zaie", azpimarratu du Saiolango tutoreak.

Bost egun baino ez dira pasa Elosura iritsi zirenetik. Denbora nahikoa taldea ezagutzen joateko: "Ikasteko gogoa dute eta bizkor ikasten ari dira. Oso pozik gaude guztiok", amaitu du esaten Larreak.

COLIMAKO UNIBERTSITATEKO BALLET FOLKLORIKOA (MEXIKO)

KANTU ETA DANTZA FOLKLORIKOEN KONPAINIA NAZIONALA (ALBANIA)

Non:
Arrasateko Monterron parkean.

Noiz:
Uztailaren 24an, martitzenean, 22:30ean.



FOLKLORE JAIALDIA ETA MUSIKA

GYPSY SWING

Non:
Arrasateko Monterron parkean.

Noiz:
Uztailaren 26an, eguenean, 22:30ean.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN








**TELEBISTA** > LURREKO TELEBISTA DIGITALEN LIZENTZIAK

# Goienari eman diote telebista digitalen lizentzietako bat

Martitzenean eman zuen erabakiaren berri Eusko Jaurlaritzak; gure barrutian, Debagoienean, lau telebistak jaso dute digitalean emititzeko baimena



**GOITB** Goiena Telebistako lantaldea, Arrasateko egoitzan joan zen udazkenean. GOIENKARIA

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Lau tokiko telebistak lortu dute Debagoienean lurreko telebista digitalen baimena edo lizentzia: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak; Localiako Gipuzkoa Television SAk; Localmediako Grupo de Medios Audiovisuales de Gipuzkoak eta Vocentoko KTBk. Martitzenean eman zuen Eusko Jaurlaritzak baimenen banaketaren berri.

EAEn, guztira, 57 telebistak jaso dituzte lizentziak; Gipuzkoan, hogeita bederatzik.

**HAMAIKA-REKIN HITZARMENA**

Goienak eta Hamaika Taldeak hitzarmena egin zuten orain eman dituzten lizentziei begira. Modu horretan, lekuko telebistak sustatzea helburu zuen talde arekin bat egitea erabaki zuen Goienak. Betiere bere izaera eta izena gordeta; hau da, Goiena ez da Hamaika taldeko kide bihurtu. Hitzarmenari esker hainbat abantaila lortu zituen Goienan. Esaterako, eskualdean lizentzia lortzeari begira, Hamaika ez da aurkeztu Debagoienean. Bestalde, epe luzera, bere programazioa osatzeko aukera handiagoa izango du. Inazio Arregik, Goienako zuzendari nagusiak, horrela azaldu du gaia: "Hamaikak ez du inolako azpiegiturarik Debagoienean eta oraingoz bidea bakarrik egiten jarraitu beharko dugu. Dena dela, aurrerago elkarrekin programak egiteko aukera izango dugu, eta, horrela, ikusleei programazio hobea eskaintzeko moduan egongo gara". Hauxe gaineratu du: "Garbi dagoena da telebistaren esparruan ez dagoela aurrera egiterik talde baten barruan egon barik. Gurean lizentzia lortu duten gainerako hiru kateak dira Estatuko kate garrantzitsuenetakoak, ez dira tokiko kateak".

**TOKIKOA ETA EUSKALDUNA**

Localia, Localmedia eta Vocento taldeetako kateen aurrean Goienak dituen abantailen gainean jardun du Arregik: "Ez dut uste hiru kate horien programazioa izango denik tokiko programazio indartsu bat; egunean ordu erdi bat-edo eskainiko diote eskualdeari, eskaintzen baldin badiote. Alde horretatik, abantaila handia dugu, bertako telebista bat egingo dugu, bertan sortutakoa eta bertako eragileekin harreman estuan. Euskaraz egitea ere, alde batetik, abantaila handia da, baina, bestalde, desabantaila bat ere bai, biztanleriaren zati batek ez duelako euskara ezagutzen".

**DIGITALIZAZIORAKO JAUZIA**

Inazio Arregik azaldu duenez, Goiena prest dago digitalizaziorako: "Goiena barruko azpiegiturak gertu dauzkagu digitalizaziora jauzia egiteko. Beste kontu bat da hedapena zela egingo dugun, baina, horretarako, gainerako hiru kateekin ados jarri beharko dugu". Izan ere, hedapenerako azpiegitura bakarra izango dute guztiek, eta ez bakoitzak berea.

Bi urte eta erdiko epea dute digitalean emititzen hasteko. Emisio analogiko eta digitalekin jarraituko dugu 2010. urtera arte. 2010eko urtarrilaren 1ean sistema analogikoa bertan behera geratuko da; ordurako, etxebizitza guztietan egon beharko dira errezeptore digitalak.

**HAMAIKA TALDEA POZIK**

Eusko Jaurlaritzak, lizentziak banatzeko, hamabost barrutitan banatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoa. Hamaika Tokiko Telebista Hedatzeko Taldeak barruti guztietan lortu du lizentzia; gure barrutian, Arrasate izenekoan, Goienak lortu du. Gogoratu behar da Goiena ez dela Hamaikako kide, baina hitzarmena duela taldearekin.

Iñaki Uria, Hamaika taldeko zuzendari nagusia, oso pozik azaldu zen lortutakoarekin.

Hamaika aurkeztu zuten iazko irailean eta sortu zen honako taldeen ekimenez: EKHE (*Gara* eta *Le Journal*), CMN (*Deia* eta Grupo Noticias), EKT (*Berria*), Elkar argitaletxea, Euskaltel eta Bainet ekoiztetxea. Gero, beste hainbat talde eta elkarte batu zaizkie. Talde horren helburua da telebistan euskararen presentzia ziurtatzea.

EAE-KO LURREKO TELEBISTA DIGITALAK

**> GASTEIZ**
Alava Television SL (Vocento)
European Virtual Enginnering Fundazioa (European)
Araba Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Canal Gasteiz Television SL* (Localmedia)

**> DONOSTIA**
Teledonosti SL (Vocento)
Donostialdea Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Gipuzkoa Television SA* (Localia)

**> BILBO**
Canal Bilbovision (Vocento)
Telebilbao SA (Localmedia)
Bilbo Handia Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Canal Bilbao* (Localia)

**> BARAKALDO**
Bilbo Handia Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Canal Bizkaia Producciones Audiovisuales SL* (Localia)
Iniciativas de Comunicacion Social* (Tele7)

**> GETXO**
Telebilbao SL (Localmedia)
Bilbo Handia Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Canal Bizkaia Producciones Audiovisuales SL* (Localia)
Iniciativas de Comunicacion Socia*l (Tele7)

**> IRUN**
Grupo de Medios audiovisuales de Gipuzkoa (Localmedia)
Jaizkibel Telebista (Localia)
Oarsoaldea-Bidasoa Ikusentzunezkoak* (Hamaika)
Television del Bidasoa SL* (Vocento)

**> BEASAIN**
Producciones Legazpi 10 SL (Legazpi)
Zabalik 2000 SL (Vocento)
Gipuzkoa Television SA* (Localia)
Goiherriko Ikuskari* (Hamaika)

**> LAUDIO**
Alava Television SA (Vocento)
Canal Audiovisual Vitoria SL (Localmedia)
Araba Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Canal Gasteiz Television* (Localia)

**> EIBAR**
Grupo de Medios Audiovisuales de Gipuzkoa (Localmedia)
KTB, Kate Berria SL (Vocento)
Arno Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Gipuzkoa Television SA* (Localia)

**> ARRASATE**
Gipuzkoa Television SA (Localia)
Grupo de Medios Audiovisuales de Gipuzkoa (Localmedia)
KTB, Kate Berria SL (Vocento)
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba (Hamaikarekin hitzarmena du)

**> TOLOSA**
Grupo de Medios Audiovisuales de Gipuzkoa (Localmedia)
Zabalik 2000 SL (Vocento)
Gipuzkoa Television SA* (Localia)
Tolosako Komunikabideak SL* (Hamaika)

**> ZARAUTZ**
Grupo de Medios Audiovisuales de Gipuzkoa (Localmedia)
Zabalik 2000 SL (Vocento)
Gipuzkoa Television SA* (Localia)
Urolako Komunikabideak SL* (Hamaika)

**> BERMEO**
Durango Telebista SL (Vocento)
Telebilbao SL (Localmedia)
Canal Bilbao SA* (Localia)
Oizmendi Telebista SL* (Hamaika)

**> DURANGO**
Durango Telebista SL (Vocento)
Telebilbao SL (Localmedia)
Canal Bilbao SA* (Localia)
Urkiola Ikusentzunezkoak SL* (Hamaika)

**> MUNGIA**
Telebilbao SL (Localmedia)
Bilbo Handia Ikusentzunezkoak SA* (Hamaika)
Canal Bizkaia Producciones Audiovisuales SM* (Localia)

* Onartutakoak, baina arazoren bat konpondu behar dutenak





GAZTEEN TOPAKETA > UZTAILAREN 23AN ETA 24AN ESKORIATZAN

# Datorren astean gurean izango dira euskal diasporako gazteak

Azkaratetik etorriko dira. Euskal diasporaren lehen zentroa berriztatzen ari dira han (Nafarroa Beherea)

Hilaren 23 eta 24an globalizazioaren eraginaren inguruan eztabaidatuko dute Ibarraundi jauregian

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Nazioarteko gazte topaketa egingo dute aurten lehen aldiz Eskoriatzako Ibarraundi jauregian, hilaren 23an eta 24an. Guztira, 22 gaztek hartuko dute parte han. Uztailaren 5a ezkero Nafarroa Behereko Azkarate herrian dauden gazteak dira, eta etorkizunean nazioarteko euskal diasporaren lehen zentroa izango den eraikina berriztatzen ari dira.

Leintz Ibarraundi Fundazioa da topaketa horren antolatzailea. Hala, Eskoriatzako Kultura zinegotzi Ander Agirianok eta Eusko Ikaskuntzako Bea Akizuk agerraldia egin zuten martitzenean, ekitaldiaren nondik norakoak azaltzeko.

#### HARRERA IBARRAUNDIN

Eskoriatzan bi egun pasatzera gonbidatu ditu fundazioak. Astelehen eguerdian iritsiko dira gazteak ibarrera. Eskoriatzako Ibarraundi jauregian harrera egingo diete.

Han izango da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Gazte Sailaren eta fundazioaren ordezkaritza zabala. Mondragon Unibertsitateak ere harrera ekitaldian parte hartzeko gonbidapena jaso du.

Bazkaldu aurretik, Eskoriatzan ibiliko dira, herriko toki esanguratsuenen irudiak jasotzen. Hiru talde ezberdinetan banatuta egongo dira gazteak ibilbidean zehar. Arratsalde partean, aurretik hartutako irudiak aukeratuko dituzte, hurrengo egunean horretaz eztabaidatu eta ondorioak ateratzeko.

Eguna jaialdi batekin amaituko da. Afaldu eta gero, herriko musika talde baten kontzertua entzun ahal izango dute bisitariek. Eskoriatzako gazteak festara gonbidatuta daudela jakinarazi zuen martitzeneko agerraldian Agirianok.

Martitzen goizean hausnarketa egingo dute. Aurtengo gaia *Global-tokia dialektika hiri garapena* da. Hiriko estrukturaren inguruko azterketa egingo dute gazteek. "Eskoriatza arakatzen jarriko ditugu. Globalizazioaren balio berriek hiri ezberdinetan nola eragiten duten arakatuko dute", azpimarratu zuen Askizuk. Ondorioak ateratzeko astia ere izango dute. Argazki edo kartel batean adieraziko dira horiek. Bazkaldu ostean, Azkaratera itzuliko dira.

#### LEKU ASKOTAKOAK

Eskoriatzan izango diren gazteak jatorri askotarikoak dira. Euskal Herrikoez gain, Espainia, Turkia, Hungaria, Argentina, Korea, Serbia, Estatu Batuak, Ukraina eta Errusiatik etorritakoak ere badaude.

Akizuk topaketaren helburu nagusiak azaldu zituen. Topaketa esperientzia aitzindaria dela esan zuen, Gazteen Arteko Nazioarteko Bilkura izena duena. Hori egonkortzeko balioko duela aipatu zuen. Bestalde, *Leintz Ibarraundi Fundazioaren Gazteak: garapen eragileak* proiektuari hasiera emango zaiola gaineratu zuen.

Egitasmo horren bitartez, gazteen interesak aztertu eta gazte sare "integrala eta erreala" sortu eta sendotu gura dela adierazi zuen. Ibarraundi jauregia horren "leku fisikoa" izango litzatekeela esan zuen Akizuk.

Topaketaren helburu espezifikoen kasuan, honako hauek daude: Eskoriatza ezagutzera ematea eta herria azterketarako baliabide gisa hartuta, herrialde ezberdinetik etorritako gazteen errealitateak aztertzea. Horrez gain, globalizazioak hiriko estrukturan duen eragina aztertu gura da. Azkenik, Eskoriatzako eta Azkaratetik iritsitako gazteak ere bildu nahi direla aipatu zuen Akizuk.

Esan bezala, astelehenean iritsiko dira gazte horiek gurera, globalizazioaren eraginaz eztabaidatu eta aisialdiaz gozatzeko. Martitzenean Azkaratera itzuliko dira, nazioarteko euskal diasporaren zentroaren berriztatze lanekin jarraitzeko.



AURKEZPENA Ander Agirianok eta Bea Akizuk gazte topaketa aurkeztu zuten. M.B.

DATUA

**22**

GAZTE

Europa, Amerika eta Asiako herrialde ezberdinetakoak dira Eskoriatzan bilduko diren gazteak. Azkaraten daude haiek, nazioarteko euskal diasporaren egoitza izango dena berriztatzen.

---

ISTRIPUA

## Hobera doa Alhambran eroritako mutikoa

Kolpe asko ditu gorputzean, baina bizkarrezurra ez dago kaltetuta

O.E. > BERGARA

Alhambran (Granada) hamar metrotik erori zen Aretxabaletako mutikoaren egoerak hobera egin du. Gurasoek atzo, eguena, eguerdian GOIENAri adierazi zioten moduan, oraindik kordea erabat berreskuratu barik zuen, baina haren egoera hobera egiten ari zen pixkanaka. Aurrera egingo duen esperantza dute gurasoek.

#### HAMAR METROTIK ERORI

Eguazten eguerdian gertatu zen istripua Granadako, Alhambran (Andaluzia). Aretxabaletako 4 urteko umea gurasoekin eta anaiarekin zegoen konplexu monumentala ikusten. Inor konturatu gabe, Acequia del Generalife izeneko patioa inguratzen duen jauregiko leiho batera igo, segurtasun barra pasa eta hamar metroko altueratik erori zen. Alhambrako lorezain batek artatu zuen lehenengo eta Gurutze Gorriko medikuak joan ziren ondoren. Mutikoak konortea galdu zuen zenbait unetan eta pronostiko larriarekin eraman zuten Granadako Traumatologia Ospitalera. Zainketa Intentsiboetako Unitatean ingresatu zuten.

Umeak kolpe ugari ditu gorputz osoan eta eskumutur bat apurtuta du, baina bizkarrezurra ez du kaltetuta eta hobera egiten ari da.

Hezurren kalitatea zain ezazu.
Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88

David Cook > Ikertzailea

# "Latinoamerikarren emigrazioan eragin handia dauka lotura historikoak"

AINTZANE IRIZAR > OÑATI

**Latinoamerikako zuzenbidearen gaineko kongresua egin dute egunotan Oñatiko Lege Soziologiako Institutuan. Hainbat hitzaldi eta tailer egin dituzte. Tartean, David Cook argentinarrak berba egin du latinoamerikarren migrazioari europarrok ematen diogun garrantziaren gainean.**



David Cook, Oñatiko Unibertsitateko klaustroan. A.I.

**Zergatik eta zelako garrantzia ematen diogu latinoamerikarren migrazioari Europan?**

Espainia eta Latinoamerikaren arteko lotura historikoen garrantzia ulertzea ezinbestekoa da migrazioaren garrantzia ulertzeko. Lotura horiek ikusten ditugu, besteak beste, mekanismo legalen bitartez, nazionalitate eta migrazio legeen bitartez. Espainia, Italia eta Argentinak euren mugetan zehar mugitzen ziren pertsonekiko lotura legalak ezarri zituzten. Latinoamerikaren kasua ezberdina da; lotura historikoak eta erakundeen arteko loturak sortu direlako.

**Hortaz, migrazioetarako erraztasun handiagoa dago lotura historikoa duten herrialdeen artean?**

Bai, noski, baina hori da kontuaren alde bat. Beste alde batetik, kontuan hartu behar dugu, koiuntura berezi bat dagoela migrazioaren atzean. Adibidez, Argentinaren kasuan, hainbat ekonomia krisi gertatu dira; Espainian krisi demografikoa egon da eta horrek esan nahi du hainbat lan egiteko lan-esku merkerik ez dagoela. Egoera horretan, bi herrialdeen interesek bat egiten dute. Beste faktore bat hauxe da: herrialde batek beti nahiago izaten du herrialde jakin bateko etorkinak jasotzea eta ez beste batzuetakoak. Adibidez, Espainiak nahiago ditu latinoamerikarrak afrikarrak baino.

**Hori zergatik?**

Arrazoi etnikoengatik. Espainiarrak uste duelako kidetasun handiagoa lortuko duela latinoamerikarrekin.

**Europako zein herrialdetara datoz gehienbat latinoamerikarrak eta zergatik?**

Espainiara, Italiara eta Portugalera. Argentinaren kasua aipatu dugu lehen. Kasu horretan eta beste hainbatetan lotura legalak daude, baina herrialde gehienekin ez da hori gertatzen. Ekuador, Bolivia edo Kolonbiaren kasuan, esaterako, ez dago horrelakorik, eta, hala ere, asko doaz Espainiara. Kasu horietan eragina dute kidetasun kulturalek, hizkuntzak eta abarrek.

**Arrazoi ekonomikoengatik datoz, batez ere.**

> **"Espainiak nahiago du latinoamerikarrak jasotzea afrikarrak baino"**
>
> **"Oinarririk gabeko aurreiritziak dauzkagu hainbat herrialdetako jendearekiko"**
>
> **"Latinoamerikarrak, gehienbat, joaten dira Espainiara, Italiara eta Portugalera"**

Hala da, bai; hala ere, hori da hasierako motibazioa, baina, gero, aldatu egiten zaizkie itxaropenak, helburuak eta asmoak. Hasieran, etorkin guztiek izaten dute jatorrizko herrialdera itzultzeko asmoa, baina joera da ez itzultzea, betiere gauzak ondo joaten bazaizkie.

**Ze arazo nagusi topatzen dute?**

Jatorriaren araberakoa da hori. Ezberdina da etorkina argentinarra, kolonbiarra edo ekuadortarra izan. Seguruena argentinarrak hartuko dituzte ondoen. Oinarririk gabeko pertzepzio sozialak eta aurreiritziak dauzkagu hainbat herrialdetako jendearekiko.

**Latinoamerikatik datozen asko dira emakumeak. Beste jatorri batzuetako etorkinen kasuan, gehienak gizonezkoak izaten dira. Zergatik?**

Argentinarren kasua ezberdina da; gehienek proiektu indibidualak dituzte eta familia baldin badute, segituan elkartzen da familia osoa. Hori gehiago gertatzen da Kolonbia, Bolivia edo Ekuadorko etorkinen kasuan, esaterako. Arrazoi nagusia da herrialde horietan oso zaila dela emakumeendako lana topatzea. Gainera, Espainian, emakume horiendako lan asko dago, adinekoak zaintzen, adibidez.

**Kongresuaren helburua zein da? Zertarako balio izango dizue?**

Akademikoki, distantzia hartu eta hainbat fenomeno hobeto aztertu eta ulertzeko aukera ematen dute horrelako kongresuek. Bestalde, migrazioarekin zuzenean lan egiten duen jendea ere badago kongresuan; migrazio politika hobeak egiten lagunduko diete.

## kontsumoa




Bonbona etxera eramateagatik gehiago kobratu gura dute. GOIENKARIA

### Butano banatzaileak greba egitea aztertzen ari dira, soldatak direla-eta

MIRIAN BITERI> BERGARA

Butano banatzaileak ez daude ados soldatarekin, eta protestak egiten hasi dira. Joan zen hilaren 9an elkarretaratzea egin zuten Madrilen, Espainiako Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioko egoitza aurrean. Soldata igoera eskatzen dute eta greba egitea aztertzen ari dira.

Uztailean butano bonbonaren prezioa igo egin zen. Orain 11,64 euro balio du bakoitzak, ekainean baino %0,94 gehiago. Hala, banatzaileek igoera horren eta eurek jasotzen duten soldataren arteko egokitzapena eskatzen dute. Saltzen duten bonbona bakoitzeko bi euro kobratzen dituztela jakinarazi dute. Garraio, kudeaketa eta biltegiratze gastuak ordaintzeko eskasa dela salatzen dute.

Etxera eramatea aparte kobratu beharko litzatekeela diote. Zerbitzu horregatik euro eta erdi eskatzen dute. Egoera konpondu ezean, irailetik aurrera lanuzteak egitea aztertzen ari dira butano banatzaileak.



### Telefono finkoa geroago eta etxe gutxiagotan dago

Poltsikoko telefonoak existitzen direnetik, garrantzia galtzen joan da etxeko telefono finkoa. Orain arte, hala ere, horien kopurua mantendu eta batzuetan igo ere egin da. Iaz, adibidez, %1,92 handitu zen.

Telekomunikazioen Merkatuko batzordeak jakinarazi berri duenez, ordea, joera hori hautsi egin da: 2007ko lehen bost hilabeteetan kopurua lehen aldiz jaitsi zen.

Epe horretan 16.000 etxek kendu zuten telefono linea finkoa. 12,5 milioitik gora mantentzen dira oraindik.



### Medusen ziztadak ekiditeko zenbait gomendio

Hondartzak zenbait arrisku ditu. Medusen ziztada jasotzea da horietako bat. Bada, eguzkiko kremak uxatu egiten dituela jakin da orain.

Krema aldizka ematea gomendatzen du Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Goreneko kide Josep Maria Gilek. Gogorazi du, hala ere, kremek ez dutela gorputzean ordubete baino gehiago irauten, eta, beraz, aldizka eman beharra dagoela.

Horrez gain, medusa batekin uretan topo eginez gero, korrikan ez irteteko gomendioa egin du Gilek.

## gure artekoak

**FORD S-MAX** > Ford etxearen monobolumen berriena aurkeztera gatoz oraingo astean; monobolumen baten espazioa eta turismo on baten prestazio guztiak eskaintzen dizkigu S-Max automobilarekin Ford etxeak.

**Nikolas Igartua** > Amets Ford kontzesionarioko arduraduna

# "Monobolumen honek turismo on baten prestazioak dauzka"

AINTZANE IRIZAR > OÑATI

Monobolumenen artean, turismo baten antz handienetakoa duen automobila dugu Ford S-Max. "Gaur egun era horretako bi monobolumen besterik ez dago merkatuan, baina laster hasiko dira automobil etxe guztiak segmentu horretako automobilak merkaturatzen", adierazi digu Nikolas Igartuak. Gidatzeko orduan turismo baten zoazela dirudi, gidaria ez doa altura handian, monobolumen gehienetan bezala. Gidatzeko ere turismo on baten prestazio guztiak dauzka, Igartuak azaldu digun moduan.



Nikolas Igartua, Ford S-Max automobilarekin, Oñatiko Amets kontzesionarioan. A.I.

### TEKNOLOGIA BERRIENAK

Azkeneko teknologia guztiak eskaintzen ditu Ford S-Maxek: IVD (oreka eta trakzio kontrola), airbag guztiak dauzka eta azkeneko belaunaldiko motorrak; aipatzekoa da bigarren belaunaldiko *common rail* motor sistema dakarkigula S-Maxek. Injekzio sistema berezia da *common rail*.

Serietik prestazio ugari eta garrantzitsuak dakartza automobilak, hala nola zortzi airbag, kristal tindatuak, 17"-ko aleaziozko hagunak, euriarendako sentsorea, aire-girogailua, larruzko bolantea, leiho guztiak automatikoki itxi eta zabaltzeko sistema eta abar.

**S-MAX Titanium 2.0 TDCI 140 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 28.500 eurotik hasita |
| Luzera | 4,768 metro |
| Zabalera | 2,154 metro |
| Maletategia | 1.051 litro(1) |
| Kontsumoa | 6,4 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 196 km/h(3) |
| Otik 100era | 10,2 seg. |
| $CO_2$ isurketak | 169 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

### ESPAZIO HANDIA

Erosleak bi aukera dauzka: bost edo zazpi eserlekuko automobila. Bost eserlekukoak, noski, maletategi askoz handiagoa dauka. Gehienezko edukiera da 1.051 litro. Gainera, lurzoruaren azpian gauzak gordetzeko espazioak dauzka, baita eserlekuen azpiko aldean ere.

Bigarren eta hirugarren ilaretako eserlekuak guztiz batu daitezke eta lurzorua lau-lau geratzen da.

Bidaiariendako ere eroso eta lasai bidaiatzeko nahikoa espazio dauka automobilak.

## etxeko leihotik


**Iban Arantzabal** > Goienako ikus-entzunekoen zuzendaria

# Ebatu denboria eskutik eta eutsi denboraz

Ordua ordenagailluan, ordua poltsikoko telefonuan, ordua erlojuan, autuan ordua, kanpantorrian, kafia hartzen dogun tabernan, despertadorian… Eguna fan eta eguna etorri ordua, segunduak, iraganetik etorkizunera orainetik… Denbora guztian orduari begira, segunduen juana kontrolau guran, denboria geldittu eziñik. Geu be geldittu eziñik. Denboriak janda bizi gara, ez dogu kontrolatzen denboriaren juana. ...

Eta denbora hartu eziñik gabiz lantxo bat amaitzeko, zinera fateko, planak egitteko, lagunekin egoteko, liburuaren beste kapitulo bat jateko, egoeren irakurketa egitteko, nagusixenei entzuteko, euzkixa hartzeko, billerak egitteko edo autua garbitzeko. Baitta zutabetxo honi amaieria emoteko be, pentsau!

**"Bihotzarekin begiratutako segunduak agortzeko astixa badator"**

Baiña opor usaineko zutabia bihar luke honek eta eziñak baiño ilusiñuak adieraztekua. Irakasle ofiziuan ez dihardugunondako be badatoz oporrok! Denbora luzian gora begira egoteko orduak be badatoz. Efizientziak, planak eta marroiak iraillerako laga eta bihotzarekin begiratutako segunduak agortzeko astixa badator. Bihar dozu, bihar dogu.

**> 'Denbora' berbiarekin jolasian hasi eta denboria erostia pentsau dot, *denbora.com* helbidia erostia, erostia tetrabricka erostia letxe, eta kaka: *denbora.com* ezin erosi! Bitxi-denda bat da, denbora urria da!**

**> Denboria hondarra baiño ez da, urrezkua, baiña hondarra. Noiz arte izango dan denboria hain amaittueziña? Bittartian harea-erlojua apurtu eta haria eskuetan hartu, eutsi eskuetatik ez deixen ospa egin.**

## begi-bistan



**Roman Oiartzabal (Bergara) 2007/07/17**

**Argazkia:** Oihana Elortza.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Kale berria, Roman Oiartzabal zabaldu dute Espoloia eta Ramon Maria Lili artean. Goitik behera bakarrik joan ahal izango dira automobilak. Errepide bazterrean aparkalekuak egin dituzte.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Gorka Eraña**
FUTBOL JOKALARIA

Athleticen lehen taldarekin, Caparrosen aginduetara, egingo ditu Gorka Eraña Arrasateko futbol jokalariak aurre-denboraldiko entrenamenduak. Aitor Fernandez arrasatearrarekin batera, Athleticeko gazteen ohorezko mailan jokatuko du datorren denboraldian.



**Lore Leanizbarrutia**
EUSKARA ZUZENDARIA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Saileko zuzendari izendatu berri dute Lore Leanizbarrutia aretxabaletarra. Aurretik ere kargu horretan egon zen; azkenaurreko agintaldian, hain justu. Euskara Saileko diputatu berria da Maria Jesus Aranburu.



**Iñaki Ugarteburu**
KIROL ZUZENDARIA

Gipuzkoako Diputazioko Kirol Sailean jarraituko du Iñaki Ugarteburuk. Kirol Saileko teknikaria izango da; aurreko agintaldian ere kargu hori izan zuen, Fernando Tapia diputatua zela. Kirol Saileko diputatu berria da Iñaki Galdos oñatiarra.

Jose Mari Aldekoa MCCko presidente berriak itsu-itsuan sinesten du modelo kooperatiboan. Modelo bereizgarri hori da MCCren indarra konpetentziaren aurrean eta hurrengo urteetan hauxe izango da haren zeregin nagusia: gaur egun direna izatera iristeko egindako lana jarraitzea, balioei eta printzipioei eutsiz. "Hori da gure indarra, bihotzaren muina", dio.

**Jose Mari Aldekoa** > MCCko presidentea

# "Konpetentziak kopiatu ezin dezakeen bakarra modelo kooperatiboa da"

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

**Jose Mari Aldekoa (Zaldibar, 1947) MCC taldeko presidente berria dugu, Jesus Cataniaren lekukoa hartuz. Martitzenean lehen agerraldia egin zuen komunikabideen aurrean, MCCk Arrasaten duen Olandixo baserrian. 1973an Coprecin lanean hasi zenetik, Fagor Elektronikako zuzendari gerentea, osagaien zuzendari orokorra eta, azken etapan, automobilgintza presidenteordea izan da Aldekoa. Konpetentziaren aurrean balio kooperatiboei eustea da Aldekoaren apustua.**



Jose Mari Aldekoa MCCko presidente berria da uztailaren hasiera ezkero. Ibilbide luzea egin du kooperatibismoan. GOIENKARIA

**Orain arte MCCk erakutsitako kalitatea eta emaitzak ez direla etorkizunean nahikoa izango adierazi duzu...**

Ezin dugu errentatik bizi. Erronka hauxe da: 2015 edo 2020. urtean kooperatibak gaur egun direna izateko gogor lan egin behar dugu. Nire ekarpena ez da epe motzera nabarituko, baina epe erdi eta luzera begira lan egin behar dugu. Han eta hemen kooperatibek hazten eta garatzen jarraitu behar dute, eta, aldi berean, kooperatibisten kopurua handitzea da erronka. Horretarako, merkatu gainerakorretan jarduera berriak martxan jartzea ezinbestekoa izango da. Orain artekoarekin ez dugu nahikoa, konpetentzia gero eta handiagoa delako. Horrek hausnarketa bikoitza egitera bultzatu gaitu: alde batetik, esperientzia kooperatiboaren gainekoa, eta, bestetik, gestio modeloa izan dugu aztergai.

**Izaera kooperatiboa galtzen ari dela leporatu diote zenbaitzuek MCCri.**

Konpetentziaren aurrean abantaila mantentzea gero eta zailagoa egiten da merkatu global honetan, elkarri gauza onak kopiatzean zikloak laburragoak direlako. Soluzioa ez da kanpora begiratzea, baizik eta daukagun diferentziagarriari garrantzia ematea. Besteek kopiatu ezin dezaketen bakarra modelo kooperatiboa da, eta mentalitate hori eguneratzea da erronka nagusietako bat. Pertsonengan oinarritutako proiektua baldin badaukagu, benetako protagonismoa eman behar diegu. 100.000 langile izatera iristear gara eta zenbaitetan galdu egiten da perspektiba kooperatiboa. Zer galdu den eta zer berritu behar den: hori aztertu behar dugu. Izan ere, gaur egun lanera datorren jende gazteak ez du esperientzia kooperatiboa ezagutzen, eta jende hori bereganatzen asmatu behar dugu, formaziorako eta lanerako baldintza egokiak sortuz. Etorkizuna gazteen esku dago, eta beraiek izan behar dute protagonismoa. Konpromisoak merezi duela erakusten asmatu behar dugu.

**Eta gestio modeloan berritasunik izango da?**

Tamaina ezberdinetako kooperatibak dira gure taldean. Toki batzuetan gauzak oso ondo egin dira, beste batzuetan ez horrenbeste... Azken hilabeteotan Irizar, Eroski, Ulma, Maier..., esperientzia ezberdinak izan dituzten enpresetako jendea bildu izan gara, puntu positiboak eta hain positiboak gertatu ez diren gauzak aztertzeko. Bateratze-lana egin dugu, eta hauxe ikusi dugu: kalitate totalak edo EFQM modeloak eskainitako abantailei eustea gero eta zailagoa dela. Soluzioa geuk daukagu. Elkarrekin lanean ari garen pertsonen konpromisoak ematen die plusa gure enpresei. Gure bihotzaren muina hori da, kooperatibaren balioak eta printzipioak. Berrikuntzari, garapenari eta nazioarteko merkatuei ikuspegi horretatik aurre egin behar diegu.

ERRONKA

**"Ezin dugu errentatik bizi; 2015 edo 2020. urtean kooperatibak gaur egun direna izateko lan egin behar dugu"**

ETORKIZUNA

**"Etorkizuna gazteena da; konpromisoak merezi duela erakusten asmatu behar dugu"**

EMAITZA ONAK

**"Momentu ekonomiko onean gara; ez bada ezer berezirik gertatzen, balantze ona izango da aurtengoa"**

**Nazioartean, Indian eta Txinan adibidez zuen presentzia gero eta handiagoa da. Esperientzia kooperatiboa ezartzea zailagoa da atzerrian?**

Urteak daramagu Txinan lanean, eta Indian hasiberriak garela esan genezake. Zenbait herrialdetan, Brasilen esaterako, legezko trabak eta kulturazkoak aurkitu ditugu kooperatibismoa ezartzeko. Traba horien erruz, langileen partaidetza bermatzeko objektiboen berri ematen diegu, eta dirusariak egoten dira. Gure helburua hauxe da: hemendik bost urtera, Espainian zein atzerrian diren gure enpresen %90ek langileen partaidetza bermatzea.

Badira formula ezberdinak: Tafallako Luzuriaga enpresa kooperatiba mistoa izango da hurrengo urtetik. Bitartekari elkarteak ere sortu dira: horien bitartez, enpresako kapitalean eta administrazio kontseiluan hartzen dute parte langileek. Eroski sarean, adibidez, formula hau erabiltzen ari da.

**Emaitza ekonomikoei dagokienez, aurreikuspenak onak dira 2007. urterako.**

2007ko lehen hiruhilekoan salmentak %13 hazi dira, eta %8koa zen hasierako aurreikuspena. Ekainera bitarteko emaitzak ere uste baino hobeak izan dira: %20 hazi gara, eta aurreikuspenek %10eko hazkundea iragartzen zuten. Hasiera baten, industria eta banaketa arloetan urtearen amaieran fakturazioa 14.430 milioi euro inguru izango dela aurreikusita dago. Momentu ekonomiko onean gara, eta, ez bada gauza berezirik gertatzen, behinik behin balantze ona izango da aurtengoa. Edozein modutan, emaitza ekonomikoak eta sozialak uztartu behar ditugu.



zabalik

Diego Martiartu

# Arraza-T

Ez du lan makala hartzen, urte osoan beharrari emana egon ostean, bere burua denboraldi batean lanik bat ere ez egitera behartzen duenak. Hola ibili nintzen iaz, oporrak hartu nituenean.

Xederik gabeko kontenplazioa izan nuen xede bakantzetan sartu nintzen egunetik. Kea behelainora bezala batu nintzen jendartera.

Goizean futbola ikustera abiatu nintzen. Peru-Bolivia vs. Ekuador-Kuba partidan, bigarrenak 6 eta 3 nagusi. Gero, bazkal aurretxoan, Punta Cana tabernan hartu nuen atseden. Coronita apartsu bat atera zidaten, salsa doinuen laguntzaz edan nuena. Karibeko gorputzaldiz egin nuen txinatar jatetxerainoko tartea, mantso. Fabrikarantz zihoan pakistandar gizon talde batekin gurutzatu nintzen bidean. Jatetxean ez nion gaizki iritzi uda minean xigortutako primaderako erroilutxo bat jateari. Qin zerbitzariak, inoiz ezagutu dudan txinatarrik adar jotzaileenak –bera baita ezagutu dudan txinatar adar jotzaile bakarra–, korearren lepotik barre egiteko txiste txar bat kontatu zidan.

**"Xederik gabeko kontenplazioa izan nuen xede bakantzetan sartu nintzen egunetik"**

**"Esperientzia aberasgarria da abuztuko oporretan Leintzuloan geratzea"**

Tabernan, Moira portugaldarrak atera zidan kafea: Muito obrigado. Han ziren Livingstongo gizon bat, Reyna mexikarra eta inoiz ikusi gabea nintzen neska gazte bat, hilearen horian eta azalaren zurian Polonia, Ukrainia edo han nonbaitsuko haize jelatua itsatsia zeramana.

Arratsaldean, kalean gora eta behera, gurutzatu zitzaidan hegoamerikar ugari, gehienak pertsona zaharrak zaintzen ari. Arraza, kolore, kultura eta hizkuntza nahasketa hordigarri batek inguraturik, gustura-gustura ibili nintzen aspaldiko partez, zinez baita "esperientzia" aberasgarria abuztuko oporretan Leintzulo honetan geratzea.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Mirian Biteri **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

IGOGAILUAK

**Irakurle batek hauxe galdetu digu: Bizilagunen batzarrean erabaki da igogailua jartzea, baina nik ez dut behar. Ezetz esan dezaket?**

Erantzunaren giltza da Jabego Horizontalaren Legea. Lege horrek zehazten du komunitatea ezin dela ukatu halako berritzeetara, eraikinaren bizigarritasuna hobetzeko bada. Hortaz, ez da beharrezkoa bizilagun guztien aldeko botoa igogailua jartzeko. Gertatzen dena da egoera bakoitzak boto gehiengo ezberdinak behar dituela: eraikineko bizilagunek ez dutenenean inolako eragozpenik (adin aurreratua, minusbaliotasuna) eskaileretatik euren etxera oinez igotzeko, beharko dira botoen hiru bosten. Aldiz, berritzea egiten bada minusbaliotasun fisikoa duen pertsona bat zein adineko pertsona bat bere etxera heltzeko, gehiengo sinplea nahiko da.

Eraikinean urritasunen bat duten pertsonak bizi badira, Jabetza Horizontalaren Legeak dio bizilagunen gehiengoaren aldeko botoa baino ez dela behar igogailua jartzeko. Gainera, erabakia loteslea da eta guztiek, baita ezezko botoa eman dutenek ere, igogailua jartzeak duen kostua ordaindu beharko dute; guztiek kopuru bera.

KILOMETROETAKO ABESTIAREN CD-A SALGAI DAGO?

**Bergarar batek deitu du galdetzeko ea Aranzadi Ikastola antolatzen ari den Kilometroak 07ko abestiaren CDa salgai dagoen, eta, hala bada, non eros daitekeen.**

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Kilometroak 07 jaiaren antolatzaileengana jo dugu erantzunaren bila. Esan digute abestiaren CDa ez dagoela salgai, promoziorako bakarrik atera dutela. Bestalde, gehitu dute aztertzen ari direla kantu hori eta aukeraketara aurkeztu ziren gainerakoak CD batean batu eta salgai jartzea. Aztertzen ari diren beste aukera bat da Kilometroak jaiak izan dituen edizio guztietako abestiak batzea CDan.

Abestiaren kontua oraindik zehazteke badago ere, argi dauka Kilometroak 07ko antolaketak jaia igaro eta gero ikus-entzunezkoa egingo dutela. Ikus-entzunezko horrek jasoko ditu urte osoan barrena antolatu dituzten ekitaldi nagusiak.

BASERRI INGURUNEKO PLASTIKOA BATZEKO EGUNA

**Aurreko hilean ez zen baseri ingurunean sortutako plastikoa batzeko zerbitzurik egon. Hori horrela, hil honetan badagoen jakin nahi du irakurle batek.**

Bada, bai. Hilaren 24an, martitzena, izango da. Ohiko lekuetan laga beharko da plastikoa, arratsaldez.

marrazkiz

Unai Busturia




blog-top

## 43.000 iaz!

Pello Zabala
www.berria.info/blogak/pellozabala

Biktimak ez dira denak berdinak. Noski. Ez dut baliozkorik ezer esan. Edo bai? Gaur goizean entzun orduko susto eman dit: 43.000 ezbeharrez hildako, oporraroan istripuz iaz Europan. Penagarria! Astero, asteburuoro ematen digute penintsulako bidebazterretan hildakoen berri. Astelehen bakoitzak tapatzen ditu agudo aurreko zortzikoak. Auskalo beste zenbat dagoeneko lan istripuetan, ustekabean. Gehienak etorkinak direla, baote...? Auskalo beste zenbat –astean pare bat, gutxienez–, etxeko ezbehar edo bortxaketetan: ez dakit nola itzuli *violencia domestica* delako hori.

Hau da etxeko-gertuko heriotz takar beldurgarriena goxatzeko eta xuritzeko enpeñoa! *Violencia doméstica*, *violencia de genero*, *violencia de pareja*... goxo-goxo akabatzen al dituzte akaso? Ez al dute izularririk, beldurrik, terrorerik sentitzen, etxean joka, labankadaka, sufrimentua luzatuz, halaxe, semealaben negar-zotiñak entzunez, herioa mingotski ezinka noziaraziz erailtzen dituzten gajo hauek guztiek?

Noiz, noiz, noiz hartu behar dugu kontzientziaz kontu tristeen hau? Gure gizarte aurrerapenez harro doan honek, bizipozez blai behar lukeen honek, ongizate gizartea hain harro abonatzen duen honek, ez al du agian beharko lukeenik, lotsari hau buruz buru hartu eta, begiz begi konponbidean jartzeko? Edo horrenbeste terrorismo lotsagabeki azaleratzeko eta kastigatzeko enpeñoa, beste lotsari kezkagarri hau tapatzeko da?

# Kultura herrikoia arriskuan

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Bai, horrela da. Kultura herrikoia arriskuan dago. Krisian. Krisian da azken 40 urteetan, gero eta gehiago gaur egun. Eta aurrerantzean gehiago, ez badiogu buelta ematen gaiari.

Zergatik krisian? Giro herrikoiak falta direlako. Teknologien aurrerapenak kultura nahasi du eta bertan txertatu da, herriaren borondatez eta gutiziaz degradatu da giro herrikoia. Desagertu egin da. Gure arbasoek bazuten giro herrikoia. Guk ez. Gutxika-gutxika, lelotu egin da giroa, kultura.

Kutxa ergela, telebista, 1959an sortu zen; aurreko mendeko 70eko hamarkadan, etxe guztietan sartu zen; diskoak, kaseteak, CDak... toki guztietan daude; eta irratia, zaharrena berau, ugaritu egin da... Gailu hauek nonahi daude: etxeetan, tabernatan, diskotekatan, sarri lantokietan... Motzean esanda: gailu hauek isiltasuna oztopatzen dute. Isiltasuna, bakea, herri giroa... Isiltasuna ezabatu dute indarrez.

Kantua, jaia... herriak berak sortzen du. Gailu hauek drogatu egiten dute garuna, herri psikologia..., eta herri gutizia da mundu osoan bizi iraupena ematen diena, gailuak erosi, piztu eta orduak ematen duena lelotuz giroa. Dakarte morboa, bortxakeria, kontsumismoa, tentelkeria... Merkeak dira eta aberatsen saltsa dakarte herri gutizia asetzeko. Gailuok dauden tokian herri giroa degradaturik dago. Soinu artifizialak baretzen du herriaren garra, kemena: denok gaude eraginpean, hurkoaren osasuna nirearen parte delako; hurkoa gutizian bada, ez da giroa posible.

Motzean esanda: horregatik debekatu behar dira gailuak, emisioak eten, salmenta debekatu, ezabatu mundutik gailuok, herri osasuna nahi badugu. Iraultza azken baten, gogor ekitekoa. Gogorra izan behar da herria, hurkoaren gutiziarekiko, isiltasuna berreskuratu behar da giro osasunaren oinarria delako, alaitasunaren gardena.

# Gezurrezko mito batzuk

**Lander Martinez**
Arrasate

Realaren gainean jardun naiz azkenaldian, baina oraingoan Athletic izango dut hizpide. Aspertuta nago entzuten zurigorriei buruz aritzean, harrobiko jokalariz jokatzen duen talde bakarra dela; euskaldunez bakarrik jokatzen duen talde bakarra dela... Ez da egia! Etxeberria, Urtzaiz, Martinez, Muñoz, Ezkerro... harrobikoak dira? Bai, aldamenekoen harrobikoak. Jakina, jokalari guztiak dira harrobikoak, harrobiren batekoak. Arantzubia, Ezkerro euskaldunak dira? Abizena izango dute euskalduna, baina errioxarrak dira.

Bestalde, berriki entzun diot Caparros Athleticen entrenatzaileari, txeke-liburuxka erabiltzeak ez duela ezer ziurtatzen eta bestela hor daudela Betis eta Realaren kasuak. Bata jaisteko zorian ibili dena eta txuri-urdinak bigarren mailan. Arrazoi du horretan. Baina kezka bat daukat. Hori esatean Athleticek txeke-liburuxkarik erabiltzen ez duela esan nahi zuen? Ez, ezta? Badaezpada, hortxe datuak: Osasunaren harrobiko Martinez fitxatzeko 6 milioi euro; Aduriz fitxatzeko 3 milioi euro; Ozio fitxatzeko 3 milioi euro; Prieto fitxatu nahian dabiltza eta horretarako beste horrenbeste gastatu beharko dute, eta abar eta abar. Aipatu barik orain dela urte batzuk Rios fitxatzeko Betisi ordaindu zizkion 2.000 milioi pezetak. Hori txeke-liburuxka erabiltzea ez bada...

Bidez batez, Lamikizek Ziubiaurrerekin egin zuen hanka-sartzeagatik Realari ordaintzeko ere joan beharko dira prestatzen txeke-liburuxka.

Athletic munduan bakarra egiten duena da Espainiakoak ez diren jokalariak ez dituela fitxatzen. Hori hala da. Beste guztia: harrobiko jokalariz dihardun bakarra, euskaldunez bakarrik dihardun bakarra, mito hutsa da. Gezurra borobila.

# Zorionak, Goiena!

**Ander Larrañaga**
Bergara

Oraingo astean jakin dut Jaurlaritzak nori eman dizkien telebista digital lokalen lizentziak. Eta asko poztu nau Goiena Telebista ere hortxe ikusteak. Eta, era berean, poztu egin nau jakiteak Goienarekin batera, Hamaika taldeak ere euskarazko telebista bana edukiko duela barruti guztietan. Izan ere, eta hau ez da hain pozgarria, lizentziak eskuratu dituzten telebista kate gehienak dira hedabide talde handienak (Vocento, Localia...) eta hauek euskarari ez diete askorik eskainiko; ia ezer, hobe esanda.

Horregatik, orain Goienaren erronka da besteekin lehian aritzea Debagoienean; besteak baino hobeak izatea; hemengo, hemengoekin eta hemengoendako telebista egitea; eta euskaraz. Eta guri, ikus-entzuleoi dagokigu, GOITBn parte-hartzea eta, garrantzitsuena, ikustea.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



**ABOKATUAK**
**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81
**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35
**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es
**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81
**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**
**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50
**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es
**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com
**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83
**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**
**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**EKONOMISTAK**
**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**
**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

**INGURUMEN TEKNIKARIA**
**ROSA AGIRREBEÑA BERASATEGI**
BERGARA / San Antonio 15
T: 627 85 20 80
raguirrebe@euskalnet.net

**GESTORIAK**
**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**
**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



# Ferreriasko Jaiak 07

**Uztailaren 26a, eguena**
- 9.00etan etxafuego jaurtiketa
- 12.00etan kalejira txistulariekin
- 17.00etan umeentzako jolasak, zaku lasterketa, txokolatada...
- 19.00etan txistulariekin kalejira, 7-14 urte bitarteko gaztetxoentzat lasterketa, lehiaketak, jolasak...
- 19.00etan meza hildako auzotarren alde
- 21.00etan afaria kalean
- 23.00etan musika saioa izango da

Etxe
mobiliario y decoracion
Tel. eta faxa:
943 79 03 17

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
Tel. 943 71 17 68

BIONA TABERNA
Tel.: 943 79 20 04

AKER
Body piercing eta tatuajeak.
Ferrerias 28.
Tel.: 943 79 92 84

ILEAPAINDEGIA
ILEA
UNISEX
943 79 87 62

angela
estetika zentroa
www.angelaestetika.net
Tel.: 943 79 88 23

EUSKAL HERRIA AURRERA !!
IRATI TABERNA
EZ GAUZ DANOK!!
FERRERIAS, 27 * ARRASATE
TLF.: 943 79 56 11

Gorka
ileapaindegia peluquería
Tel.: 943 77 13 78



**> ARRASATE**
EAE-ANV eta EB udal gobernuan. Osoko bilkura astelehenean **> 16**



**> BERGARA**
San Martin ikastetxe publikoak toki falta salatu du **> 22**




**> ESKORIATZA**
Leintz ibarreko historia liburu baten batu du Rosa Aierbek **> 27**



**> ANTZUOLA**
Jaietako autobus zerbitzuarekin pozik azaldu da Udala **> 28**

**ARETXABALETA** > URKULU, IBARREKO AISIALDIGUNEA

# Ibarreko urtegia baino zerbait gehiago bilakatu da Urkulu 1979a ezkero

**AISIALDIA**
Ibarreko aisialdigune nagusietakoa bilakatu da Urkuluko urtegia

**28 URTE**
1979an zabaldu zuten urtegia, lau urteko lanen ostean

**ESKAINTZA**
Paisaia ederrak, hegazti komunitate garrantzitsua eta bestelako altxorrak ditu Urkuluk



**URKULU** Ibarreko erreferente nagusietako bat bilakatu da azken urteotan. Irudian, hegaztiak ikusteko urtegian dagoen behatokia. ANE IDIGORAS

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Urkuluko urtegiak 30 urte beteko ditu 2009an. Dagoeneko Debagoieneko gune bisitatuenetakoa bilakatu da Aretxabaletako urtegia. Paisaia, natura eta fauna aldetik eskaintza erakargarria eskaintzen du eta aisialdirako leku aproposa bilakatu da: bizikletan ibiltzera, paseatzera eta naturaz gozatzera gero eta jende gehiago joaten da bertara. Debagoiendarrak ez ezik, asteburuetan kanpotarren bisita ugari jasotzen ditu, batez ere udaberrian eta uda partean.

Goroeta, Aozaratza eta Larrino auzoez inguratuta, paraje ederrean kokatuta dago Urkulu. Aizkorri-Aratz parke naturalaren izendapenak bisitarien kopurua handituko du etorkizunean, aipatutako parkerako sarbide naturala delako Urkulu. Era berean, Aretxabaletako Udala Bainuetxeko industrialdetik urtegira doan bidegorria bultzatzen ari da, Urkulura doazenek autoa herrian utz dezaten.

**LAU URTEKO LANAK**

Urkuluko urtegia egiteko lanak 1975. urtean hasi eta 1979an bukatu zituzten. Lanek 380 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan zuten. Urbaltzetik datorren Urkulu ubideko urak eta Arientzatik, Bolibar ubidetik datozenak jasotzen ditu. 49 metroko altuera eta zabaleran 160 metro neurtzen du. Urtegia zeharkatzen duen bidea 7 kilometro baino zerbait motzagoa da. 16,30 Hm3 da urtegiaren kapazitatea. Gipuzkoan, Ibai-Eder eta Arriarango urtegiek bakarrik dute kapazitate handiagoa.

**HAINBAT BASERRI GALDU**

Urkuluko lanen eraginez hainbat baserri desagertu ziren, tartean Zelaikua, Zarbitarte, Okina, Aldanena, Añabartza eta Iraban (Aozaratzan) eta Goroetan desagertutakoak: Mendikurtza, Errota-Zahar, Disaotz, Usarra-Haundi, Usarra-Txiki, Urkulu, Siondo Goikoa, Siondo-Behekoa, Barrutikoa eta Ubao. Aozaratza auzoan Ibaran baserriak zutik dirau baina egun ez da inor bertan bizi. Zelaikua, Zarbitarte eta Aldanena baserriek urtegiaren sarreran dute kokaleku berria.

Gipuzkoako Ur Patzuergoak kudeatzen du Urkulu urtegia. Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgeta eta Soraluzera banatzen du ura. Guztira, 65.790 biztanle ingururi hornitzen die urtegiak.

Horrez gain, esan bezala, hegazti komunitate garrantzitsua eta bestelako altxorrak eta gordetzen ditu Urkuluk bere baitan.

## 'Urkulu, leiho irekia', urtegia eta ingurua ezagutzera emateko liburua

*Urkulu, leiho irekia* liburua plazaratu berri du Aretxabaletako Udalak. Naturgintza fundazioak eta Diputazioak ere euren laguntza eman dute liburua argitaratzeko. Urkulu indartzea eta inguruari prestigioa izan dira argitalpenaren helburuetako batzuk. Arteman Komunikazioak egin ditu koordinazio lanak. Argazki dotoreez lagunduta, Aitor Antxia, Juanan Gutierrez, Kiko Alvarez, Gorka Etxabe eta Jose Ramon Intxauspe ditugu testuen egileak. Liburuaren edizio dotoreak 107 orrialde ditu. Liburua 20 euroren truke dago salgai Aretxabaletan, ondoko tokietan: Durana kaleko kioskoan, Loramendiko estankoan, Ane Idigorasen argazki dendan (bera dugu liburuko argazkilarietako bat), Plazako inprentan eta Iber dendan. Dagoeneko liburuaren zenbait ale mundu osoko euskal etxetara bidali du Aretxabaletako Udalak. Era berean, Jaurlaritzara eta Euskal Herriko turismo bulegotara banatu dute liburua.




Irudian, kaleratu berri duten liburuaren azala. GOIENKARIA

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Etxeberria | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Domeka, 22 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Astelehena, 23 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 24 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Eguaztena, 25 | Etxeberria | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Eguena, 26 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Egubakoitza, 27 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 22 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 23 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 24 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 25 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 26 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 27 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 21 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 22 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 23 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 24 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 25 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 26 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 27 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| 43Domeka, 15 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 16 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 17 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 18 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 19 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 20 | Iturralde | Belorrieta auzoa1 | 943 08 11 43 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 21**
Haizea ipar-ekialdetik finkatuko da eta lainoak izango diren arren, euri arriskua gutxitu egingo da. Ez dugu lehengo asteburuko berorik izango.



**Domeka, 22**
Eguraldiak zertxobait hobera egingo duen arren, ez da aldaketa handirik aurreikusten. Lainoak eta ostarteak izango ditugu.

## EUSKAL HERRIAN

Egubakoitzean haizeak lainoak ekarriko ditu ipar mendebaldetik. Aurreko eguneko tenperaturak izango ditugu. Zapatuan hobekuntza txikia nabarituko dugu eta lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Euri arriskua ere izango dugu asteburuan zehar.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Egubakoitza, 6 — **13 ºC**

**MAXIMOA** Egubakoitza, 6 — **35 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **0,5 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 11** | 21 ºC | 15 ºC | 0,3 l/m² |
| **Eguena, 12** | 30 ºC | 13 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 13** | 35 ºC | 14 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 14** | 35 ºC | 17 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 15** | 35 ºC | 17 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 16** | 25 ºC | 16 ºC | - l/m² |
| **Martitzena, 17** | 26 ºC | 16 ºC | 0,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA UZTAILEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **7** | **14** | **22** | **30** |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Beherapenak Kilometroetako arropetan**
Arropa eta osagarrietan jarri dituzte beherapenak, kasu batzuetan %40rainokoak. Horretaz gain, produktu batzuetan, bat ordaindu eta bi eroan daitezke. Denda egunero dago zabalik, domekan izan ezik, Barrenkalea 44an. Astelehenetik barikura 17:00-20:00 ordutegia du; zapatuetan, 10:00-13:00 eta 17:00-20:00.

OÑATI
**> Ugarkaldeko babestutako etxeak egokitu zaizkienendako informazioa**
Informazioa emateko bulegoa ireki du Udalak Lizaur kalean –egoitza piskopedagokioa egon zen lekuan–. Planoen eta etxeen ezaugarrien berri jaso ahalko dute han uztailaren 10eko zozketan etxebizitza egokitu zitzaien herritarrek. Bi astean egongo da zabalik bulego hori, 10:00-14:00 eta 17:00-19:00 ordutegian.

ARRASATE
**> Calpera (Alacant) irteera egingo du Abaroa erretiratuen elkarteak**
Urriaren 20tik azaroaren 3ra izango da irteera eta prezioa, 445 euro laguneko. Prezioaren barruan daude, besteak beste: joan-etorrirako autobusa eta 14 gau hiru izarreko hotelean otordu guztiak barne. Izenematea da uztailaren 23tik (18:00etatik aurrera) abuztuaren 24ra. Autobuseko eserlekuak izena eman ahala izendatuko dituzte.

OÑATI
**> Herri Eguneko taberna hartzeko deialdia egin du Udalak**
Irabazi asmorik gabeko edozein taldek eman dezake izena. Baldintza bakarra da tabernan lanean aritzeko gutxienez 30 lagun izatea taldean. Adjudikazioa bi urterako izango da –2007 eta 2008rako– eta beste bi urtez luzatzeko aukera izango da. Kultura etxean eman behar da izena. Eskari bat baino gehiago izanez gero, zozketa egingo dute.

OÑATI
**> Danborrada nagusirako dantzariak eta danborrariak behar dituzte**
Dantzariek 1990. urtean jaiotakoak izan behar dute eta danborrari izateko, berriz, nahikoa da 18 urte baino gehiago izatea. Kultura etxean edo gaztelekuko informazio puntuan eman daiteke izena. Azken eguna da abuztuaren 31. Izena eman dutenen artean zozketa egingo dute irailaren 3an.

ARETXABALETA
**> Areto futbol finala jokatuko dute bihar, zapatua**
Nesken hiruko torneoaren finala jokatuko da 16:30ean, eta txapelketaren finala, berriz, 17:30ean. Gero, Heineken jaia izango da herriko hainbat tabernatan. Heineken bakoitzak euro bat balioko du.

ANTZUOLA
**> Euskara batzordean parte hartzeko dei egin dute**
Euskara eta Hezkuntza batzordeko ordezkariek herritar guztiei deialdia zabaldu nahi diete, interesa dutenek batzordean parte har dezaten. Lehenengo batzarra egingo dute hilaren 23an, astelehena, 18:00etan. Hortik aurrera, hileko lehendabiziko astelehenetan elkartuko dira batzordeko kideak, udaletxeko bilera gelan, 18:00etan.

BERGARA
**> EGA ikastaro trinkoa egingo dute Udal Euskaltegian**
Irailaren 3tik urriaren 5era emango dute EGA ikastaro trinkoa, arratsaldez –ikasleen beharren arabera zehaztuko dute ordua–. Izena emateko deitu 943 76 44 53 telefono zenbakira irailaren 3an eta 4an.

BERGARA
**> Jardun euskara elkarteak begirale lan-poltsa osatu nahi du**
2007/08 ikasturterako begirale lan-poltsa osatu nahi du Jardun elkarteak. Horretarako beharrezkoa da euskaraz ondo jakitea. Bestalde, baloratuko dute ikasketak izatea, esperientziaduna izatea eta begirale titulua edukitzea. Interesatuek bidali curriculuma: Bergarako Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g (kultura etxea), 20570, Bergara. Informazio gehiagorako deitu 943 76 36 61 zenbakira.

DEBAGOIENA
**> Baserri ingurunean sortutako plastikoa batzeko eguna hilaren 24a da**
Datorren martitzenean, uztailaren 24an, batuko dute baserri ingurunean sortutako plastikoa. Ohiko lekuetan laga beharko da plastikoa, arratsaldez. Lekuren bat aldatu nahi izanez gero deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira. Abuztuan ez da zerbitzurik izango. Hurrengo batze eguna irailak 25 da.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Parrokia berriztatu dute; duen itxura berria gustuko duzu?



**Javier Umerez**
Erretiratua
Oñati

Bai. Oso ondo utzi dute. Kanpotik, behintzat, hobera egin duela iruditzen zait. Berriztatzeko behar handia zuen parrokiak, eta lan ona egin dute. Pozik nago duen itxura berriarekin.



**Angel Garcia**
Langilea
Oñati

Lehen baino hobeto dago eliza. Apur bat zahartuta zegoen, eta beharra zuen. Pareten hormak ondo ikusten ditut. Dorrean agertzen diren lau irudi horiek, aldiz, zuriegiak utzi dituzte.



**Maria Jesus Uria**
Langilea
Oñati

Oso polita dago. Dorreko lau irudi horiek, hala ere, oso zatarrak daude, zuriegiak geratu dira. Ez dut uste denborarekin lehen zuten itxura bera hartuko dutenik, lehen ia ez ziren-eta ikusten.



**Gurutze Lizarralde**
Langilea
Oñati

Ondo dago. Santuen itxura erabat aldatu da. Kalean denok esaten dugu berdina. Lehen ez ziren ikusi ere egiten. Batzuek ez genekien hor zeudela. Oso ondo utzi dute, berria ematen du parrokiak.



**Beatriz Lechuga**
Langilea
Oñati

Oso polita dago. Neskatilak eta mutikoak ere konturatu dira parrokia berritu dutela. Santuen irudiak dituela ere ikusi izan dugu. Lehen eta oraingo argazkiak ikusita, alde handia igartzen da.

txaloak eta txistuak



O.E.

## Osasun etxeko aparkalekua estuegia da

Oñatiko osasun etxeko aparkalekua ez da oñatiar askoren gustukoa. Irakurle batek jakinarazi duenez, ez da oso erraza autoa han aparkatzea edo aparkatuta dagoen tokitik ateratzea, eta, horren ondorioz, kolpe txiki asko izaten dira han.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 3.000

Horixe da Antzuolako antzinako ezkontzarekin Anelkarrek lortu zuen euro kopurua. Besteak beste, garai bateko artisautza salduz eta laguntzei esker poltsikoratu zuen diru hori. Lortutakoa Senegal, Kongo eta Brasilgo proiektu solidario ezberdinak finantzatzeko bideratuko da.

usteak uste

Mirian Biteri

## Autoz ibiltzearen arriskua

Lanera joateko autoa hartu behar izaten dudan horietako bat naiz ni. Ez naiz, ordea, bakarra. Etxetik lanerako bidean ehunka ibilgailurekin elkartzen naiz egunero goizez eta arratsaldez.

Arriskuz beteriko ibilbidea egiten dut, askotan konturatzen ez banaiz ere. Noizean behin, hala ere, arrisku hori gertutik igarri izan dut, aurrekoari eragin diolako edo nik neuk ezusteko galanta hartu izan dudalako.

Behin baino gehiagotan gertatu zait aurreratzen doan beste auto batekin topatzea nire bidean. Horrez gain, utzi pasatzen seinalea aintzat hartzen ez dutenek ere ikaratu egin naute, bereziki, Arrasateko saihesbidera, norbait datorren edo ez begiratu barik irteten diren gidariak, autoz nahiz kamioiez doazenak.

Zorionez, ustekabekoak baino ez dira izan orain arte. Baina, hurrengoan zerbait larriagoa gerta daitekeela pentsatzen dut askotan. Autoa egunero hartu behar izateak arrisku hori eragiten du-eta.

Lerro hauetatik mezu bat bidali gura diet bereziki, egunero ibilbide bera egiten dutenei. Errepidea ederki ezagutzen duten arren, arreta eta ardura handiz ibil daitezen, hain zuzen.

5 galdera...

## Iñaki Urgoitia

Anbulatorioko arduraduna
Bergara

**1. Bakteria batek eragiten duen pneumoniaren aurkako txertoa jartzen ari zarete azkenaldian...**

Hala da. Pneumonia eragiten duen bakteria nahiko arrunta da, eta, beraz, askotan azaltzen da. Duela gutxi ohartu gara txertoa jarriz gero, pneumonia gutxiago daudela. Iaz hasi ginen txerto hori nagusien egoitzetan jartzen, eta, emaitza onak eman zituenez, aurtengo udaberrian bestelakoei ere jartzea erabaki dugu. Arriskua duten taldeei gomendatzen diegu, etxera bidaltzen zaien eskutitz baten bitartez. Hasiera baten, behin baino ez da jarri behar.

**2. Zeintzuk dira gaixotasun hori izateko arrisku handien duten taldeak?**

65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoak dituztenek arrisku handiagoa dute. Azken horien artean, adibidez, arnasketa-arazoak eta diabetesa dutenak sartzen dira. Azken finean, gripearen aurkako txertoa jartzeko gomendatzen zaienendako aproposa da hori ere.

**3. Arriskutsua da pneumonia? Zenbat egunetan osa gaitezke?**

Bai, arriskutsua da, bereziki, pertsona nagusiei edo gaixoei eragiten badie. Defentsa gutxiago izaten dituzte horiek. Denborari dagokionez, bakoitzari modu batean eragiten dio. Nagusiak eta arriskua duten taldeak, batzuetan, ospitaleratu egin behar izaten dira eta gehiago kostatzen zaie. Hala ere, antibiotikoarekin osatzen dira gaixo gehienak.

**4. Zeintzuk dira gaixotasun horren sintoma ohikoenak?**

Kalentura handia ematen du, eta arnasa hartzerakoan trabak eta mina eragiten ditu bularrean. Eztula ere agertzen da. Horiek izaten dira ohiko sintomak.

**5. Oporretatik bueltan gripearen aurkako txertoaren txanda iritsiko da.**

Bai. Oraindik ez da zehaztu noiz hasiko den. Normalean, udazken hasieran hasten gara txerto hori jartzen.



**UDAL GOBERNUA** > OSOKO BILKURA ASTELEHENEAN

# Ezustekorik ezean, EB-Zutik koalizioa gobernuan sartuko da

Negoziazioan zailtasunak izan dira, "EBk zehaztasun gehiegi" gura dituelako

Astelehenean gauzatuko dute guztia, osoko bilkuran, 19:00etan hasita

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gobernua osatzeko azkeneko ukituak egiten eta nork bere alderdikideei proposamenaren berri ematen eta haien onespen bila ibili dira asteon EAE-ANV eta EB-Zutik koalizioa. Ezustekorik ezean, beraz, bi alderdi horiek gidatuko dute datozen lau urteotan Arrasateko gobernua.

**EGUBAKOITZA, ERABAKIGARRIA**

Negoziazio prozesu luzea izan dute bi alderdiek. Baina joan den egubakoitzean egin zuten batzarra erabakigarria izan zen. EB-Zutik koalizioko Ander Rodriguez bozeramaileak kontatutakoaren arabera, "pauso garrantzitsuak" eman zituzten batzar hartan bi alderdiek adostasun programatikoari dagokionez; hori horrela, egubakoitzean ahoz adostutakoa paperean zelan idatzi ibili dira negoziatzen asteon.

Horrekin batera, gaineratu du EAEren eta Ezker Batua-Zutik koalizioaren arteko akordioa oso hurbil dagoela eta norabide ona duela, albiste hau idaztean (eguaztenean) oraindik itxita ez egon arren.

**"ZEHAZTASUN LARREGI"**

Iritzi bera du Ino Galparsoro alkateak. Gobernuburuak adierazi duenez, joan zen barikuan bi alderdiek "adostasun maila handia" lortu zuten. Kontatu du negoziazio prozesuan izan dituzten zailtasunak ez direla etorri batzordeen banaketaren harira, baizik eta hainbat gaitan Ezker Batua-Zutik koaliziokoek eskatu dituztelako zehaztasun handiak. Eta alkateak esan du lau urtean "udaletxetik kanporatuta" egon den alderdi batek ezin dituela kontuak zehaztasun guztiekin ezagutu.

Gobernua osatzeko azkeneko ukituak egin bitartean, EAEk gainerako alderdiei deitzeko asmoa duela jakinarazi dio GOIENKARIAri alkateak," orain arteko egoeraren berri emateko eta, haiek zeresanen bat badute, huraxe entzuteko". Eta konfirmatu dute dagoeneko hasita daudela kontaktu horiek egiten.

Guztiaren emaitza astelehenean ikusiko dugu, 19:00etan osoko bilkuren aretoan.

OSOKO BILKURA

### Osoko bilkura, astelehenean, 19:00etan

Datorren astelehena, hilaren 23a da, legearen arabera, gobernua eratzeko osoko bilkura egiteko azkeneko eguna. Eta azkeneko unera arte itxaron behar izan dute Arrasaten, azkeneko unera arte negoziatzen ibili direlako. Edozelan ere, egin dute hitzordua astelehenerako, 19:00etan osoko bilkuren aretoan, udalbatza elkartzeko. Astelehenean hartu beharreko erabakien artean, Udaleko batzorde informatzaileen banaketa aztertuko dute. Bestela esanda, batzordeburuak, alkateordea eta bestelako izendapen batzuk egingo dituzte. Zehaztuko dute, baita ere, noiz izango diren, aurrerantzean, osoko bilkurak.



TXOMIN MADINA

## Saharar neska-mutikoei ongietorria

Urterokoari jarraituz, Arrasateko Udalak ongietorri ekitaldia antolatu zuen uda parterako Arrasate, Oñati eta Eskoriatzara Saharako kanpalekuetatik etorri diren neska-mutikoei. Ekitaldi horretan, kamiseta bana banatu zieten opari moduan eta gero, merienda oparoa egin zuten umeek eta haiek hartu dituzten familiek.

**ZERBITZUAK** > OLIOA BATZEKO POTEAK

# Olio edukiontziak trabatu egiten dira

Udal langileak egunean bi aldiz pasatzen dira, trabatuta badaude, edukiontziak konpontzeko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Olioa batzeko edukiontziak trabatzen hasi dira azkenaldian. Olio potea kateatu egiten da edukiontzira botatzeko orduan, eta, horren ondorioz, potea ezin da sartu eta, gainera, pote berria ez da ateratzen. Gainera, arazo hori hasi dira izaten herrian dauden hiru edukiontzietan, Otalora kalekoan, Maiatza Bata plazakoan eta Eroskin, alegia.

Udaleko langileak egoeraren jakinaren gainean dira. Hala adierazi du Ingurumen Saileko arduradun Rafa Ugartek. Hark gaineratu du arazoa mekanikoa dela eta badabiltzala irtenbide bila. Are gehiago, dagoeneko frogatu dute konponbideren bat eta "oraingoz eraginkorra" dela ikusi dute, pote gutxiago kateatu dira-eta.

**IRTENBIDE BILA**

Baina horrekin batera eskaera bat ere egin du Ugartek. Izan ere, gertatzen dabilena da jendeak ikustean olio potea trabatu egiten dela, lurrean uzten dituela poteok. Bada, Ugartek eskatu gura die trabatuz gero, potea han utzi beharrean, etxera eraman dezatela, eta egunean zehar atzera ere saia daitezela edukiontzira botatzen. Izan ere,udal langileak egunean pare bat bider dabiltza edukiontzietara bueltaka, haiek trabatuta izanez gero, oztopoa kentzeko.




**EDUKIONTZIA** Emakume bat potea edukiontzira sartu nahian. JOSEBA ANTIA

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Arozteginko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com



ZEHARO ALDATUTA 50eko hamarkadan ez zegoen futbol zelairik, ez eskolarik ezta Uribe auzoa eta Erguin ere. JONE BERGARETXE

**ARGITALPENAK** > 'URIBARRI, AUZO BATEN ISTORIOA'

# Uribarri auzoaren nondik norakoak batu dituzte liburu baten

Uribarri baserri auzoko alkate Jone Bergaretxek 17 urte egin ditu auzoaren gaineko informazioa batzen; eta orain liburu baten bildu du guztia

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Martitzenean aurkeztuko dute *Uribarri, auzo baten istorioa* liburua. Aurkezpen ekitaldia Jokin Zaitegi ikastolan egingo dute, 19:00etan, eta luntxa ere izango da. Liburuaren egilea Jone Bergaretxe auzo alkatea da, baina alboan izan ditu Jokin Abetxuko informazioa ordenagailuan sartzen; Markuleteko Itziar Gallastegi eta Iñaki Zumalde materiala ordenatzen; eta beste batzuk itzulpen eta maketazio lanak egiten. Auzoko baserritarrei emango diete liburua eta argazkien DVD bana; eta gainontzekoak salgai jarriko dituzte.

**17 URTE INFORMAZIOA BATZEN**

Jone Bergaretxek 17 urte darama auzo alkate, eta tarte horretan auzoaren gaineko informazioa batzen ibili da. Hala, jaietako egitarauetan auzoko kontuak sartzen ditu. Horrez gain, hainbat artxibotan ibili da lan hori osatzeko: auzoaren historia, pertsona famatuak eta auzoaren gaineko arlo ugari jorratu ditu lan horretan.

**LIBURUKO HAINBAT PASARTE**

1309an Uribarri hiru bat baserrik osatzen zuten; eta 1380koak dira auzoaren gaineko idatzizko lehen dokumentuak.

Lehen, auzoan Itxaropenaren Amaren jaia ospatzen zuten, baina eguraldi txarra egiten zuelako San Bartolomeak ospatzen hasi ziren 1771n.

1812an kanposantuko horma egin zuten txakur basatirik ez sartzeko; eta 1864an elizaren fatxada margotu zuten, Isabel II.ak Santa Agedako bainuetxetik Uribarrira bisita egin zuelako.

**JAIAK** > ERDIGUNEKO BI KALE ESANGURATSUTAN JAIAK

# Maalako eta Ferreriasko jaiak datozen egunotan

Etzi, domeka, Maalako Errabala jaietan murgilduko da eta eguenean, Ferrerias

**I.B.** > ARRASATE

Etzi, domeka, Maalako Errabaleko jaiak eta hilaren 26an Ferreriaskoak ospatuko dituzte. Biak ala biak Arrasateko antzinako kaleak, eta biak erdigunean kokatuta.

Aurreko urteotan Maalako Errabalean ekitaldiak bi egunean egin izan dituzten arren, aurten egun bakarrean egingo dituzte. 08:00etan etxafuegoak jaurtiko dituzte; 12:30ean meza esango dute hildakoen omenez, San Frantzisko elizan; eta horren ostean, erretiratuendako luntxa egingo dute Plus Ultra tabernan.

16:00etan umeen txanda izango da, jolasak antolatu dituzte-eta. Eta horren ostean, txokolate-jana izango dute.

19:00ak aldera txikiteoa izango da; eta 21:00etan herri afaria egingo dute kalean bertan. Behin afalduta, dantzaldia izango dute 22:30ean; eta horrekin batera, suzko erruberak jaurtiko dituzte 23:00etan.

Bestalde, Ferreriasko kaletarrek ere guztia prest dute jaietarako. Eguenean, hilaren 26an, izango dira ospakizunak, eta, urtero moduan, Kubako Iraultzaren egun berean ospatuko dituzte. 09:00etan etxafuegoak botako dituzte eta 12:00etan kalejira egingo dute txistulariekin.

Arratsaldean, umendako jokoak, zaku lasterketa eta txokolate-jana izango dira. Horren ostean, txistulariek, gaiteroek eta erraldoiek alaitutako txikiteo-kalejira izango da; eta 7 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek lasterketak eta lehiaketak egingo dituzte.

19:00etan, berriz, hildakoen omenezko meza esango dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Eta 21:00etan mahaiaren bueltan batuko dira herri afarirako; txartelak Tamayo dendan daude salgai. Afarian dantzaldia izango da 23:00etan.

**URIBARRIKOAK, ABUZTUAN**

Azkenik, Uribarri baserri auzoko jaiak abuztuaren 24an eta 25ean ospatuko dituzte. 24an meza, luntxa, umeendako jolasak eta Egaña, Arzallus, Lotina eta Lizaso bertsolarien ikuskizuna izango dira.

Abuztuaren 25ean, etxafuegoak, buruhandiak, meza eta herri bazkaria egingo dituzte, besteak beste.



FERRERIAS KALEA Jaiak ospatuko dituzte eguenean. GOIENKARIA

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
**Erakusketa eta biltegia:**
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



**KADETE MAILAN** Bolinaga pilota jotzen, Agirregabiriaren eta aurkariaren begiradapean. JOSETXO ARANTZABAL

**PILOTA** > EUSKAL HERRIKO HERRI ARTEKO TXAPELKETAKO KANPORAKETA

# "Uribarrenek eta Axpek kasu egiten badidate, 100 euro eurendako"

Mauri Zubillagaren ustez, Arrasateko pilotariek badute Berrizen kontrako kanporaketari buelta emateko aukera

**X.U.** > ARRASATE
Gipuzkoako herri arteko txapela jantzita, Arrasateko pilotariak Euskal Herriko kanporaketan dabiltza buru-belarri, gainontzeko lurraldeetako onenekin lehian. Hala, Arrasatekoek gaur, egubakoitza, jokatuko dute Uarkapen itzulerako partidua (19:30).

Joan den asteko partiduan Berrizen 2-1 galduta, Arrasatekoek –seniorrek, batez ere– gogotik egin beharko dute lan kontrarioa menderatzeko. Arrasateko entrenatzaileak ondo daki hori: "Berrizko atzelari Zabala oso ona da. Hala ere, posible da markagailuari bueltа ematea; horretarako, baina, partiduan zehar lan handiagoa egin behar dugu, ezin gara tanto bakoitza azkar bukatzeko deseatzen egon, orduan pilota guztiak zabalera edo txapa azpira joaten dira-eta". Hala, Uribarrenek eta Axpek gaurko partiduan entrenatzailearen aginduak zorrotz jarraitzen badituzte, Zubillagak 100 euroko saria agindu die, bere poltsikotik: "Baina kasu egin behar didate, Axpe odolberoa da-eta". Bestalde, ezustekoa eman asmoz, kadete eta gazte mailako partiduetan aldaketak egongo dira. Hala, kadetetan jokatu duen Agirregabiria gazte mailan lehiatuko da, eta Goitiak beteko du bere hutsunea; Bolinagarekin osatuko du bikotea.

**SEGA ERAKUSTALDIA** > ATXABALPEN

# Segalari onenak gurean, hilaren 29an

Datorren domekan, hilak 29, egingo dute Euskadiko Sega Talde Olinpikoko kideek erakustaldia Atxabalpen

**X.U.** > ARRASATE
Gesalibarko auzo batzordeak eta Almitza Sega Elkarteak erakustaldia antolatu dute datorren domekarako (hilak 29, 12:30ean). Hala, Euskadiko Talde Olinpikoak herri kirol moduan horren errotuta dagoen sega erakustaldia egingo du, Atxabalpen. Euskal Herriko beste zona batzuetan zaletasun handia badago ere, ibarrean kirol hori ez da horren ezaguna. Hori horrela, polita izango da Euskadi mailako punta-puntako segalarien lana etxean bertan jarraitu ahal izatea.

Domekako erakustaldian hamar segalari inguruk hartuko dute parte Atxabalpen. Tartean, Oiartzungo Bixente Mitxelena txapeldunaren lana jarraitzeko aukera izango da.

> MENDIA

## Uztaileko azken irteera antolatu du Besaidek domekarako, Lagrandik Guardiara

Arabako lurretan egiten dabiltzan zeharkaldiko beste etapa batekin hartuko du Besaidek oporraldia. Hala, domekan egingo duten zeharkaldian, mendizaleek Lagrandik (Araba) Guardiara (Arabako Errioxa) egingo dute, Herrerako mendilerroa zeharkatuz. Eta, irteera horrekin irailera arte agur esango du Besaidek, ekintza mordoa prestatuta itzultzeko.



GOIENKARIA

## Euskadiko Txapelketa, Gasteizen

Arrasateko atletak Gasteizen izango dira asteburuan, Mendizorrotzan egingo duten Euskadiko Txapelketa absolutuan. Joan den astean, berriz, Anoetan izan zuten hitzordua, Gipuzkoako federazioak antolatuta 100. urteurrena ospatzeko. Jonathan Perez izan zen protagonistetako bat, pertika saltoan lehenengo sailkatuta.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK
Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



# Maalako Jaiak 07

**Uztailaren 22a, domeka**

- Goizeko 8etan etxafuego jaurtiketa.
- 12.30ean San Frantziskon meza, Arrabalean hil direnen omenez.
- Arrabalako jubilatuentzat luncha Plus Ultra tabernan.
- 16.00etan ume jolasak eta txokolatada.
- 19.00etatik aurrera txikiteoa.
- 21.00etan afaria.
- 22.30etik aurrera musika.
- 23.00etan suzko erruberak.

ARREGI ARTE
Maalako Errebala, 8
Tel: 943 79 56 44
arregi.arte@gmail.com
markoak margolanak obra grafikoa ispiluak erakusketak

Barceló
BIDAIAK
Tel.: 943 79 70 11

Casa Ceciaga

Arrasaten 1906. urtetik

ELKORO
Tel.: 943 79 45 99
943 79 18 86

Express kafetegia
Tel.: 943 79 85 14

KIMETZ
Tel.:
943 79 60 14

Plus Ultra
TABERNA
Tel.: 943 79 20 57

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura
Tel.: 943 79 04 34

Monte taberna
Tel.: 943 79 20 56

Udalatx Inmobiliaria
Maala 11
Tel.: 943 79 59 99
www.udalatx.com

**HEZKUNTZA** > MARTINEZ IRALA ERAIKINA BERRESKURATZEA ESKATU DU SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLAK

# Leku falta duela-eta, kontuak eskatu dizkio San Martin eskolak Aranzadiri

Aranzadi Ikastolak dio Martinez Irala eraikinaren premia duela, adostasunera heltzeko prest daudela eta Hezkuntza Sailari dagokiola irtenbidea aurkitzea

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

San Martin Agirre ikastetxeak ikasturte berrirako toki falta duela salatu du eta Martinez Irala eraikina erabiltzea proposatzen du. Gaur egun Haurreskola publikoa eta Aranzadi Ikastola daude eraikin horretan eta San Martin Agirre ikastetxeak dei zuzena egin dio Aranzadi Ikastolari: "Aranzadik Martinez Irala eraikina hustuko zuela sinatu zuen Errege Seminarioaren zesioa hitzartu zutenean. Baina sinadura hori asanbladak berrestu behar zuela esan zuen otsailean, eta oraindik ez du egin", esan zuen Susana Uriarte ikastetxeko zuzendariak prentsaurrekoan astelehenean, zuzendaritzako, guraso elkarteko, Bergarako beste ikastetxe publikoko, Goieskolako eta Berritze guneko ordezkarien babesarekin. Aranzadi Ikastolari "arazoari irtenbidea aurkitzeko borondate falta" leporatu zion Uriartek: "gure etorkizuna hipotekatzen dihardute", gehitu zuen.

Uriartek esan zuen "toki arazo larriak dituztela"; izan ere, "datorren ikasturtean 500 ikasle izango ditugu eta gure erantzukizuna da kalitatezko hezkuntza eskaintzea, hori gero eta zailagoa zaigun arren, eskolan daukagun espazio arazoa dela-eta". Adierazi zuenez, Haurreskola eta Haur hezkuntzako gelak kokatu nahi dituzte Martinez Irala ikastetxean eta, hala, bi gelaren premia dute une honetan. Azken eskari bat egin zion Aranzadi Ikastolari: urte batzuetan Martinez Irala bi ikastetxeek konpartitzea.

Aranzadi Ikastolak Bigarren hezkuntzako gelak ditu Martinez Iralan. Horretaz gain, gimnasioa San Martin ikastetxekoekin konpartitzen dute eta jangela ez du erabiltzen, San Martinek erabiltzen du. Haurreskola publikoa ere bertan dago.



**MARTINEZ IRALA** San Martin Agirrek eta Aranzadik, biek aldarrikatzen dituzte Martinez Irala eraikineko gelak. OIHANA ELORTZA

**ARANZADIK ERE TOKI ARAZOAK**

Aranzadi Ikastolak beste prentsaurreko bat eman zuen atzo, eguena, gaiaren gaineko iritzia emateko. Patricia Urrutia Aranzadi Ikastolako zuzendariak argitu zuen San Martingoek aipatzen duten hitzarmen hori ez dutela sinatu: "guk sinatu dugu Seminarioaren eremuen banaketa eta baldintzak zehazteko hitzarmena. Gertatzen dena da azken momentuan eman zigutela beste bi baldintzaren berri, hau da, Aranzadiko gela guztiak Seminarioko eraikinean egon behar zutela eta bost urteko epea genuela Martinez Irala husteko. Hori udalbatzak onartu zuen, baina momentuz ez zela sinatuko oharrarekin". Urrutiak esan du oraindik gai horren inguruan berba egiten ari direla Udaleko eta Jaurlaritzako Hezkuntzako ordezkariekin: "guk ere toki arazoak ditugu, eta Martinez Iralako ikasle guztiak ez dira Seminarioko eraikinean sartzen".

Bestalde, argitu du Aranzadik ez duela San Martinen etorkizuna hipotekatzen: "ezin dugu hori onartu. Aranzadik ez du horretarako ahalmenik". Bestalde, San Martinek egindako salaketa eta akusazio zuzenen inguruan zera esan du: "ezin dugu ulertu halako akusazioak egitea gai honen lanketaren zuzeneko ezagutza izan barik. Ahalik eta eperik motzenean adostasunera iristeko borondate osoa dugu, bai Seminarioari dagokionez eta baita Martinez Iralari dagokionez ere. Borondate horren erakusle dira bai Udalarekin eta baita Hezkuntza Sailarekin ere egin ditugun batzar ugariak eta batari zein besteari bidalitako idatziak".

**HEZKUNTZAREKIN ARGITU EGOERA**

Martinez Irala eraikina Udalarena da, baina Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak kudeatzen du. 1982an, Hezkuntzak Aranzadiri utzi zion, San Martin Agirrek beharra izan arte.

Agurne Barruso alkatearen iritziz, "Hezkuntza Sailarekin batera aztertu behar da egoera. Bi ikastetxeekin egin ditugu guk bilerak eta Hezkuntza Sailari ere egin diogu eskaera gaiari buruz berba egiteko, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso". Gai horrek herrian giro txarrik ez sortzea espero du alkateak eta arazoa lehenbailehen konpontzea.

## San Martin Agirrekoek kalera atera dute protesta

San Martin Agirre ikastetxeko irakasle, guraso eta ikasleek kale agerraldia egin zuten eguaztenean plazan, egoera salatzeko, eta Aranzadiri eskatu zioten hitzarmena sinatzeko. Astelehenean, uztailak 23, osoko bilkurara joango dira.



San Martin Agirre ikastetxekoak kale agerraldia egiten plazan eguaztenean. O.E.

Uda osoko beltzaran-kolorea erakuts ezazu!
Bost minutuan bakarrik
Oso kolore naturala
%100 naturala (azukre-kanaberarekin egindakoa)
Estetika zentroa
Igaro

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

MARGOAK
josean pintore
Dekorazio-pintura eta industriala
barnealdeak eta kanpoaldeak
Bergara - Arrasate - Oñati
Tel.: 609 54 89 89
943 53 27 16
josehernandez@euskalnet.net

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

**UDAL GOBERNUA** > EAE ETA ARALARREN AKORDIOA

# Udal gardena eta publikoa eraiki nahi du gobernuak

## Udala herritarrei eta eragileei zabaltzeko, parte-hartzea bultzatuko dute

**O.E.** > BERGARA

EAEko Agurne Barrusok eta Aralarko Mikel Etxanizek bi alderdiek osatu duten udal gobernuaren akordioaren oinarriak eman dituzte prentsaren aurrean. Azaldu duten moduan, "Udal gardena eta publikoa" eraiki nahi dute, "informazio iraunkorra eta zehatza eskainiko diena bergararrei". Horrekin batera, "Udal irekia" nahi dute. Horretarako, Udala herritarrei eta herriko eragileei zabaltzeko helburua dute eta parte-hartzea bultzatuko dute, tresnak jartzeko borondatea eurena eginez.

Udala "demokratikoa eta aurrerakoia" izatea ere nahi dute alderdi biek eta konpromisoa hartu dute ikusmolde denak errespetatzeko eta berdintasunean, gizarte justizian eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako politika egiteko. Baita prozesu politikoaren, elkarrizketaren eta indarkeriazko adierazpenak desagertzearen alde lan egiteko ere.



**ORDEZKARIAK** Aralarko Mikel Etxaniz eta EAEko Agurne Barruso. J.A.



**TALDEA** Mr. Dixie Jazz Band talde galiziarreko sei lagunak. GOIENKARIA

**KULTURA** > UDAKO JAZZ KONTZERTUAK

# Coruñako jazz doinuak gaur Espoloian

## Uztailerako antolatu dituzten jazz kontzertuetako hirugarrena da; orain artekoek zale eta herritar ugari erakarri dituzte

**O.E.** > BERGARA

Udako jazz kontzertuetako hirugarrena entzuteko aukera egongo da gaur, egubakoitza, Espoloian. Coruñako Mr. Dixie Jazz Band taldeak eskainiko du gaurko kontzertua. Udaleko Kultura Sailak antolatu du aurten ere jazz kontzertu zikloa, Zuhaizti eta Hamaika tabernen laguntzarekin.

**CHICAGOKO DOINU GALIZIARRAK**

Mr. Dixie Jazz Band Coruñan sortu zen, 1999an. Guillermo Lancelotti musikariak sortu zuen taldea. Hiru lagun ziren hasieran eta egun sei musikari dira, horietako bat Lancelotti bera. Banda tradizionala da eta Chicagon 1930-1940 urteetan egiten zuten musika estiloa jorratzen du.

**IKUS-ENTZULE ASKO**

Guztira lau jazz kontzertu antolatu dituzte uztailerako *Udako gauak* programazioaren barruan, eta gaurkoa hirugarrena da. Aurreko biek zale eta herritar ugari erakarri dituzte Espoloira, eta antolatzaileak pozik daude.

Laugarren eta azken kontzertua hurrengo egubakoitzean, uztailak 27, egingo dute, toki berean, Espoloian. Five's Hot Project du izena talde horrek eta 2005 hasieran sortu zen. Donostiako Musikenen ezagutu zuten elkar taldekideek.

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

XUXU
Tel.: 943 76 07 55
San Pedro kalea 14
BERGARA

2x1
Leviseko neurri soilteak
60 €
Banatzaile ofiziala

TXIRRINDULARITZA > SANTA MARINA SARIA

# Bergarako erdigunetik igaroko dira bihar ziklistak

16:00etan hasiko dute gazte mailako txirrindulari proba, Matxiategin

Obrak tarteko, ziklistek saihesbidetik joan beharrean erdigunea zeharkatuko dute


IRTEERAN Txirrindulariak irteera puntuan, Matxiategin, iazko ekitaldian. GOIENKARIA

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ohi denez irteera puntua eta helmuga Matxiategin izango baditu ere, aurtengo Santa Marinako sariak izango du berezitasunik, txirrindulariek ez duteeta Bergara saihesbidetik igaroko. Hala, Osintxura buelta egin eta gero, Eskoriatzarako bidea hartzerakoan herritarrek ondo-ondotik ikusi ahal izango dute txirrindularien joan-etorria. Eskoriatzan behera, berriro ere Osintxuraino jaitsiko dira, handik Oñatira, Udana, Legazpi, Deskarga eta Antzuola. Antzuolatik bueltan, Bergarako azken zatia ere herri barrutik egingo dute ziklistek, Matxiategiraino.Hala, lasterketan gertutik jarraitu beharko ditugu etxean korritzen duten Iban Cavallero, Xabier Martinez, Aitor Montero eta Unai Markiegi Sumofic taldeko ziklistak, baina baita Oñatiko eta Dorletako Amakoak ere. Bestalde, antolatzaileek lasterketan laguntzeko gertu dauden herritarrei dei egin gura diete. Lasterketa baino ordubete lehenago elkartuko dira Matxiategin (15:00), bidegurutzeetako lanetan eta bestelakoetan laguntzeko.

IGERIKETA > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Bergarako sei ordezkari Iruñean

Bihar eta etzi jokatuko dute infantil eta junior mailetako Euskadiko Txapelketa, Iruñean

X.U. > BERGARA

Orain dela 15 egun Gipuzkoako Txapelketa jokatu eta gero –Nielka Ibarguren bigarren sailkatu zen kategoria absolutuan–, oraingo asteburuan jokatuko dute Euskadiko Txapelketa. Zapatuan eta domekan 10:00etan hasiko dira igeriketa saioak, eta Bergarak sei ordezkari izango ditu: Irati Fernandez (50 metro bular-estiloa), Urki Ibarguren (100, 200 eta 400 metro estilo librean), Nielka Ibarguren (50, 100 eta 200 metro bular estiloan), Mikel Labaka (50 eta 100 metro estilo librean, eta 50 metro tximeleta estiloan), Peru Alustiza (50 eta 100 metro tximeleta estiloan, eta 100 metro estilo librean) eta Erik Iñarra, errelebutan.


IAZKO PROBA Euskadiko Txapelketako irudia, Mojategin. GOIENKARIA

> FUTBOLA

## Gasteiz Cup txapelketan bigarren sailkatu da Bergara

Bergarako infantil mailako taldea Gasteiz Cupeko txapeldunordea da, finalean Leongo Puente Castro taldearen kontra 2-0 galdu eta gero.

Hala, mahoneroek oso txapelketa txukuna egin dute, guztira sei norgehiagoka irabazi dituzte-eta –lehenengo fasean, gainera, mendean hartu zuten Puente Castro–. Finalerako, baina, Bergarakoek ez zuten gura moduan deskantsatu, finalerdia egubakoitzean 22:00etan jokatuta, zapatuan 09:00etan zuten-eta finaleko hitzordua.

> BOCCIA

## Agustin Toledori omenaldia egingo diote gaur, 19:00etan

Espainiako Boccia Txapelketatik brontzezko dominarekin itzuli zen Agustin Toledo, eta bergararrek omenaldia egingo diote podiumera igotzeagatik; izan ere, txapelketa horretan oso maila oneko jokalariek jokatzen dute.

Hala, Santa Marinako jaiak aprobetxatuta, XV. Boccia Txapelketa egingo dute, eta orduan omenduko dute Bergarakoa. Aipatu, baita ere, Dortoka taldeko Amaia Arrietak hirugarren postua lortu zuela Pinto herriko lehian.

> DEIALDIA

## Agorrosinen begiraleak behar dituzte lanerako

Agorrosinen dagoeneko hasi dira datorren ikasturtea prestatzen (2007/08), eta kirolgunean begirale beharrean daude. Hala, irailetik aurrera aerobik, pilates, areto bizikleta, tonifikazio eta halako kirol ekintzetarako monitoreak behar dituzte, eta baita uretako begiraleak eta sorosleak ere.

Hala, interesa dutenek Agorrosingo harreragunean utz dezakete lan eskaintza horretarako curriculuma.



POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara


Irrintzi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

# BOLU SUKALDEAK




Gremioen koordinazioa

Aurrekontua
konpromiso barik.



Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02
bolusukaldeak@euskalnet.net • www.euskalnet.net/bolusukaldeak

# ELKAR ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

## Mota guztietako instalazioak




943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

**UDALA** > BATZORDE ERAKETA

# Aralarren eta EAren eskuetan geratu dira Udaleko batzorde guztiak

Bi batzorde nagusi egin dituzte; horietako bat Joxe Anjel Antxiaren eskuetan geratuko da eta bestea, Lore Martinezenean


**GOBERNUA** EAko zinegotziek eta Aralarkoek osatuko dute udal gobernua, nahiz eta atea zabalik utzi. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Atzo, eguena, egin zuen Aretxabaletako udalbatzak ezohiko osoko bilkura, batzordeak osatu eta hainbat erakundetara joango diren ordezkariak izendatzeko asmoz.

**BI BATZORDE NAGUSI**

Batzordeak eratzeko hilabeteko epea dute ekainaren 16an osatutako udalbatzek, eta zapatuan bukatuko da epe hori. Alderdiek hainbat bilera egin dituzte azken asteotan adostasunak lortu guran, eta dagoeneko hartu dute erabakia.

Udal gobernua Aralarrek eta EAk osatuko dute, egindako osoko bilkuran ezustekorik gertatu ezean. Hala ere, ateak zabalik uzten dituztela bai Eusko Abertzale Ekintzarendako, bai EAJrendako adierazi zigun atzo Inaxio Garro alkateak. Eta Gobernu onerako hitzarmena sinatutakoek bilerak egiten jarraituko dute. Gobernu batzordeak bi ordezkari izango ditu alkateaz gain; osatzeko behar den gutxiengoa, hain zuen: EAko Lore Martinez eta Aralarko Joxe Anjel Antxia. Eurak izango dira lehen eta bigarren alkateordeak.

Aurreko agintaldietan ez bezala, batzorde nagusi bi osatu dituzte: Biziberritzea eta Garapen Iraunkorra bata eta Bizi Kalitatea, Ogasuna eta Zerbitzuak bestea. Batzorde nagusi horiek koordinatzaile bana izango dute, eta barruan sartu dituzte 12 azpibatzorde; bakoitzak bere batzordeburua izango du.

Biziberritzea eta Garapen Iraunkorra batzordea EAko Martinezek koordinatuko du. Biziberritzearen barruan bost azpibatzorde egongo dira: Kultura, Hezkuntza, Teknologia Berriak, Euskara eta Aisia eta Kirolak. Eta Garapen Iraunkorraren barruan beste bi: Hirigintza eta Etxebizitza, eta Berrikuntza eta Garapen ekonomikoa.

Bizi Kalitatea, Ogasuna eta Zerbitzuak batzordearen koordinazioa, ostera, Aralarko Antxiaren eskuetan geratu da. Bizi kalitatearen barruan egongo dira bi azpibatzorde: Ingurumena, eta Merkataritza eta Turismoa. Eta Ogasun eta Zerbitzuen barruan, hiru: Ongizatea, Ogasuna, eta Obrak eta Zerbitzuak.

**OSOKO BILKURAK BI HILEAN BEHIN**

Alkatearen lan jardunaren gainean eztabaidatu behar zuten osoko bilkuran. Izan ere, Udalean egoteko asmoa dauka Garrok azken astean egin duen moduan.

Osoko bilkuren maiztasunari dagokionean alkateak proposatu zuen bi hilabetean behin egitea, hileko azken astelehenean hain zuzen. Hortaz, hurrengo ohiko osoko bilkura irailaren 24an izango da aldaketarik ez badago behintzat.

## HAMABI AZPIBATZORDE BOST ZINEGOTZIREN KARGU


**Inaxio Garro - Aralar**

Alkatea
Hirigintza eta Etxebizitza
Ogasuna
Euskara


**Joxe Anjel Antxia - Aralar**

Ingurumena
Obra eta Zerbitzuak


**Araceli Herran - Aralar**

Aisia eta Kirolak
Ongizatea


**Lore Martinez - EA**

Kultura
Hezkuntza
Teknologia Berriak
Merkataritza eta Turismoa


**Edorta Mendieta - EA**

Berrikuntza eta Garapen
Ekonomikoa

PIENSOS SUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Hazi
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

**KUTSADURA** > AIREA NEURTZEN

# Markolen egingo dituzte airearen neurketak

Udaberrian ere egon zen airearen kalitatea neurtzen duen furgoneta Markole auzoan, baina hego haizearen eragina jakin gura dute oraingoan

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Hilabete inguru egin du airearen kutsadura neurtzen duen Eusko Jaurlaritzako furgonetak Iralabarri plaza parean. Aurretik Markole auzoan egon zen, eta hara itzuliko dute berriro.

**LEGEA BETETZEN DUEN ISURKETA**

Markole auzoko bizilagunek eskatuta jarri zuten udaberrian furgoneta. Izan ere, Markolen bizi diren 400 familietatik, gehienek –batzuk gehiago kokapenagatik– ke izugarria eta usain txarra jasan behar izaten dute, batez ere hego haizea dabilenean. Komisioa osatu zuten bizilagunek jarraipena egiteko arazoari, eta urtarril inguruan Ederlan lantegiko batzordearekin jarri ziren harremanetan. "Batzarra egin genuen hamabost egunera, eta harrituta utzi gintuzten, benetan arduratuta daudelako lantegian ere arazoarekin", adierazi digu Martxi Perez bizilagunak. Esan zieten legearen barruan egiten dutela lan, eta iragazki egokiak erabiltzen dituztela kearendako; hala ere, ulertzen zutela bizilagunen kezka, eta iragazki hobeak baleude erabiliko lituzketela. "Ez dugu zalantzan jartzen legea betetzen dutenik, baina garbi dago legea betetzea eta bizitzeko jasangarria izatea ez datozela bat".

Arazoa da injekzioa aluminioan egiten duen lantegitik 70 bat metrora dagoela Markole auzoa, hau da, oso gertu. Eta gainera, azken urteotan asko hazi da lantegiaren produkzioa, %120 baino gehiago: "Eta proportzio berean isurtzen ditu ke zikinak, noski", dio Perezek.



FURGONETA Airearen datuak jasotzen dituen furgoneta Iralabarri plaza parean egon da, eta orain Markolera eroango dute. M.A.

**HEGO HAIZEAK EKARRI**

Futbol zelai parean egon zen maiatzean datuak jasotzen dituen furgoneta. Hilabete inguru egin zuen, baina ipar haizea ibili zen tarte hartan eta furgonetak ez zuen ke arrastorik hartu: "Datuak ez zirela adierazgarriak uste dugu, jasotako ke eta zikinkerien kontzentrazioa hego haizeak jotzen duenean baino askoz txikiagoa izan zelako". Furgoneta Iralabarri plazara aldatu zuten orduan eta astelehena arte egon da. Baina berriro itzultzeko Markolera eskatu zuten bizilagunek, eta onartu egin zien Jaurlaritzako Ingurumen Sailak. "Gainera, ke horrek zein partikula edo kutsadura mota botatzen duen eta osasunerako kaltegarria den jakin gura dugu", argitu digu Perezek. Hortaz, hurbiletik eingo diote jarraipena arazoari.

## Arratsaldeko jaialdiarekin agur esango diete udalekuei

Hiru aste egin dituzte herriko 200 ume eta gaztetxok udalekuetan. Batzuk Galartzan izan dira gaua pasatzen, beste batzuk igerilekura joan dira, eta guztiek ospatu dituzte San Fermin eta Euskararen egunak. Gaur arratsaldean esango diete agur udalekuei, jaialdia egingo dute horretarako eta talde bakoitzak bere ikuskizuna eskainiko du.


POXPOLIN

> LUDOTEKA

## Lan poltsa osatu gura du Loramendik ludotekarako

Lan poltsa osatu gura du Algara ludoteka kudeatzen duen Loramendi Euskara Elkarteak ludotekan bertan lan egiteko. Baldintza bi jarri ditu: 18 urtetik gora izatea eta EGA titulua edukitzea. Gainera kontuan hartuko dituzte: aretxabaletarra izatea, diplomaduna eta umeekin eskarmentua edukitzea.

Curriculumak Loramendira bidali behar dituzte interesatuek; posta bidez, Aretxabaletako Durana kaleko 11. zenbakira. Edo helbide elektronikoa erabilita: *loramendi@topagunea.com*.


K21
AZKARATE
AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
Arotz lanetan behar duzun guztia
Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak
Parketak • Sukaldeak
www.goiena.net/blogak/azkarate

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontabilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

> SAN MIGEL JAIAK

### Zortzi lan aurkeztu dituzte jaien azaleko lehiaketara

Guztira zortzi lan aurkeztu dituzte San Migel eta Errosario jaien egitarauko azal lehiaketara. Kultura zerbitzuak aukeratu behar du orain azal onena. Bi sari emango dituzte: 250 euro irabazlearendako eta 125 euro bigarren sailkatuarendako.

Jaietako egitarauaren azal lehiaketan oñatiarra den edo Oñatin bizi den edonork har zezakeen parte. Baldintza bakarra zen testu hau agertzea: *Oñatiko jaixak 2007.*

> AUZOETAKO JAIAK

### Autobusa egongo da Madalenara joateko zapatu gauean

Madalena auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Aurten ere autobusa jarriko dute zapatu gauean herritik Madalena auzora joateko. 02:00etan hasita, ordu erdian behin egongo da autobusa; Txaketua tabernako kantoian hartu ahal izango da hura.

Madalenako jaiak gaur, egubakoitza, hasten dira eta domeka arratsaldean bukatuko dira mus txapelketarekin.

> JAIALDIA

### Surf jaialdia egingo dute zapatuan San Anton plazan

Surfaren eta skatearen inguruko film bat eta film labur bat emango dituzte zapatuan San Anton plazan, surf jaialdia ospatzeko. Sardina jana izango da iluntzean eta gauean, 23:00etan, kontzertua emango du The Stupefactos taldeak. Bestalde, Gari Garaialde argazkilariak surfaren inguruan egindako argazkiak ikusgai daude gaztelekuko kuboan eta Kale Zaharreko eta Kale Berriko dendetan, domekara arte.

> JAIALDIA

### Lehen garagardo festa egingo dute asteburuan

Aloña Mendik antolatuta, lehen garagardo festa egingo dute asteburu honetan. Jaialdirako, 450 metro koadroko karpa handi bat jarriko dute plazan eta zortzi garagardo mota edan ahal izango dira. Alkoholik gabeko garagardoa, ura eta freskagarriak ere egongo dira. Festa horrek bi helburu ditu: Aloña Mendiko sail guztiak batzea, batetik, eta guztiendako diru-baliabideak lortzea, bestetik.

**ZERBITZUAK** > GAUR, EGUBAKOITZA, DA INAUGURAZIOA

# Pausokak lokal berria du Bidebarrieta kalean

Egun, lau boluntario daude Pausokan eta 11 herritarrekin egiten dute lan; boluntario eta erabiltzaile gehiago animatzeko deia zabaldu dute



**PAUSOKA** Bidebarrietako 14. zenbakian dago Pausokaren lokal berria, Laixan eta Udal Euskaltegiaren ondoan. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI

Pausoka elkarteak lokal berria inauguratuko du gaur, egubakoitza. Bidebarrieta kalean dago egoitza hori, Udal Euskaltegiaren ondoan.

**ASTEAN BIRRITAN ZABALIK**

Eraikin berria erabat egokituta dago: sukalde txiki bat, bulego bat, egokitutako bi komun eta erabilera askotarako gela handi bat ditu; 154,95 metro koadro guztira.

Elena Perez Pausokako boluntario bat da, eta, hark azaldu duen moduan, astean birritan zabaltzeko asmoa dute, oraingoz, behintzat: "Gure asmoa da zapatu arratsaldeetan zabaltzea, ekitaldi ezberdinak egiteko. Aste barruko arratsalde baten ere zabaltzea pentsatu dugu, dantza ikastaroa eskaintzeko". Lokal berri horrekin ekintzak ugarituko dituztela uste du Elena Perezek: "Orain arte antolatu ditugu hainbat ekintza, besteak beste: San Migel eta Errosario jaietako danborradan parte hartu dugu, Errege Kabalgatako jaiotza guk egin dugu eta hainbat merienda eta irteera egin ditugu. Lokalak aukera gehiago emango dizkigu. Sukaldea txikia izan arren, guztion artean presta ditzakegu meriendak", dio Perezek.

**BOLUNTARIO IZATEKO DEIA**

Gutxitu psikikoekin lan egiten duen boluntario taldea da Pausoka. Duela 12 urte sortu zuten, eta egun, lau boluntario daude: "Boluntario gehiago behar ditugu, gutxi gara-eta. Horregatik, deialdi orokorra egiteko ere aprobetxatu gura dugu lokal berriaren inaugurazioa. Oraindik ez dugu telefonorik, baina boluntario izan gura duenak guregana etorri baino ez du egin behar. Gizarte zerbitzuetan ere galde dezake", esan du Elena Perez oñatiarrak.

Orain arte 11 herritarrekin egin dute lan Pausokako boluntarioek, baina inaugurazioaren gonbidapenak 31 etxetara bidali dituzte: "Lokal hau erabil dezaketen pertsonei bidali diegu eskutitza, hemendik aurrera egokitutako lokal bat izango dugula esateko eta etortzera animatzeko. Orain 11 daude taldean, baina lokal berriarekin taldea zabal dezakegu", esan du Elena Perezek. Gureak lantegietan, eguneko zentroan eta Aspacen egiten dute eguna lokalaren erabiltzaileek, eta aisialdiko ekitaldiak egiteko erabiliko dute Bidebarrietako lokal berria, lan ordutatik kanpo joango dira.

**ASPALDIKO ESKAERA**

Pausoka boluntarioen taldearen eta Saltoka erabiltzaileen senideen taldearen eskaera izan da egokitutako lokala egitea. Azken 12 urteotan Errekaldeko etxebizitza baten behealdean egon dira, baina duela bi urte lokal egokia lortzeko eskaera formala egin zuten, gizarte zerbitzuetako teknikari batek azaldu duenez.

**KULTURA** > PORTU TABERNAREN AGUR JAIA

# Domekan itxiko dute Portu taberna

Oñatiko Gazte Asanbladak taberna agurtzeko jaia antolatu du egubakoitzetik domekara bitartean

**O.E.** > OÑATI

Domekan, uztailak 22, itxiko dute Portu taberna. Horixe erabaki zuen Oñatiko Gazte Asanbladak ekainaren 28an egindako batzarrean. OGAren esanetan, isunak eta abokatuak ordaintzeko zabaldu zuten Portu taberna 2006ko irailean, baina "gaztetxe alokatu horri ateak ixteko garaia heldu zaio eta OGAri bide berriak jorratzeko garaia, herrian benetako gaztetxe baten aldeko apustua egitea". 11 hilabeteko datu batzuk ere eman ditu OGAk: ekintzak antolatzen 8.000 euro gastatu dituzte; propagandan eta materialean, 2.930 euro; tabernako gastuetan, 38.180 euro; epaiketatan, 7.700 euro; eta bestelako gastuetan, 5.135 euro: 61.945 euro guztira.

Kontzertua, afaria eta batzarra dituzte agur jaiko ekitaldien artean.



**PORTU** 11 hilabetez izan du zabalik Portu taberna OGAk. O.E.

ELIZATEAK > AUZO ALKATEEN AUKERAKETA

# Auzo alkateak aukeratzen dabiltza

Astelehena aurretik udalerriko zazpi elizateetako eta Lete auzoko alkateak aukeratu beharko dituzte

I.B. > ESKORIATZA

Lau urtetik behin aukeratzen dituzte auzo alkateak udalerriko elizateetan; eta une honetan prozedura horretan murgilduta dabiltza baserri auzoetan.

Udalean alkate berriak jakinarazteko data eguaztena da. Auzo batzuetan dagoeneko aukeratu dituzte euren ordezkariak, baina beste batzuetan asteburuan erabakiko dute.

**ASTELEHENEAN BATZARRA**

Zazpi dira udalerria osatzen duten elizateak eta horiei Lete auzoa batu behar zaie. Auzo alkatea aukeratzeaz gain, auzoko batzarrerako beste bi lagun aukeratu beharko dituzte.

Astelehenean auzoetako ordezkari guztiak batzartuko dira Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzarekin, legealdiko lan dinamikak zehazteko: zer maiztasunekin elkartuko diren, udaleko batzordeetan zer eskuhartze izango duten eta beste.

**ALKATE BATZUEK, ERREPIKATU**

Dagoeneko elizate batzuetan egin dituzte bozketak eta aukeratu dituzte datozen lau urteetarako ordezkariak: Gellaon, Apotzagan eta Marinen, besteak beste, baina ez dizkigute aditzera eman haien izenak. Asteleheneko batzarrera arte itxaron beharko dugu.

Bestalde, jakin badakigu elizate batzuetan auzo alkateak errepikatuko dituztela; hortaz, kasu batzuetan ez ditugu aurpegi berriak ikusiko, eta beteranoek jarraituko dute.

LANAK > ASFALTATZE ETA BERRITZE LANAK

# Mendiolako bideak konpontzen dabiltza

Monumentutik Iregi baserrirainoko bidea konpontzen dabil Udala; eta Aldundia, Bolibar eta Mendiolako bideak

I.B. > ESKORIATZA

Mendiolako bideak asfaltatzen dabiltza egunotan. Batetik, Udalak iazko abenduan esleitutako lanak astelehenean hasi zituzten. Eguaztenera bitartean Mendiolako monumentutik (bidegurutzetik) Iregi baserrirainoko errepidea garbitu eta asfaltatu egin dute. Asfaltos Urretxuk egin ditu, eta lanek 22.700 euroko aurrekontua izan dute. 500 bat metro daude tartean, eta zazpi bat baserri daude bide horretan. Are gehiago, bide horrek balio du Mendiola Lete auzoarekin lotzeko. Guztira, 2.000 metro koadro asfaltatu dituzte.

**BOLIBAR ETA MENDIOLA**

Baina hori ez da Mendiolako bideetan egiten dabiltzan lan bakarra. Kasualitatea bada ere, Udalak zuzendutako lanez gain, Aldundia ere badabil zenbait konponketa egiten bere ardura diren hainbat bidetan.

Hala, Aldundiak aspaldi erabaki zuen Bolibarko eta Mendiolako errepideak asfaltatzea, eta horretan ibili dira astean. Bideak asfaltatzeaz gain, errepide bazterretan arekak egiten ibili dira euri-ura hobeto jaso eta bideratzeko.

Aldundiak onartutako lan horiek egiteko ardura Provisa enpresak dauka.

> JAIAK

**Madalena jaiak ospatuko dituzte domekan Maringo auzoan, meza eta luntxarekin**

Urtero moduan, etzirako, domeka, egin dute hitzordua Maringo auzotarrek. Madalena jaiak ospatzeko aitzakiarekin, ume, gazte, heldu zein edadetuak batuko dira. 12:30ean meza berezia izango dute; eta horren ostean, luntxa egingo dute auzo lokalean. Auzokoak ez direnak ere gonbidatuta daude jaian esku hartzera.




ASPALDIKO MUGARRIAK 1497an Leintz ibarra mugarritan banatuta zegoeneko planoa. ESKORIATZAKO UDALA

ARGITALPENAK > 'LEINTZ IBARREKO HISTORIA 1260TIK 1630ERA' LIBURUA

# Leintz ibarreko historia ikertu eta liburu baten batu du Rosa Aierbek

Izan dute aztergai Arrasatek Leintz ibarreko egituratik alde egin zuenetik, Aretxabaleta eta Eskoriatza banandu ziren arte (1260-1630)

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Dagoeneko inprimategian dago *Leintz ibarraren historia 1260tik 1630era* liburua, baina irailera arte ez dute kaleratuko. Rosa Aierbe historialaria da haren egilea, eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek, biek batera argitaratuko dute.

**XV. MENDEKO ORDENANTZAK**

EHUn Historia katedraduna da Aierbe, eta ikerketa lan ugari egin ditu orain arte. Besteak beste, Oñatiko konderriaren gaineko liburu bat idatzi eta argitaratu du. Eta lan hori egiterakoan, XV. mendeko Leintz ibarreko ordenantza batzuk aurkitu zituen, gordeta dauden zaharrenak; hala, gai horri heltzea erabaki zuen, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen onespenarekin.

**ARRASATE BANATU ZENETIK**

1260. urtean, Arrasate Leintz ibarreko egitura politiko-ekonomikotik banatu zen. Data hartatik abiatzen da ikerketa historikoa. Leintz Gatzaga, berriz, 1310. inguruan banatu zen Leintzetik. Hala, 1630ean banatu ziren arte, Aretxabaletak eta Eskoriatzak Leintz ibarreko egituraren barruan jarraitu zuten.

**BI UDALEK JARRIKO DUTE SALGAI**

Aierbe ibarreko, Simamcako eta Madrilgo artxiboetan murgilduta ibili da, gure ibarrak izan zuen antolamendu egitura berezi hori aztertzen. Aretxabaleta, Eskoriatza, Bolibar eta beste batzen zituen alkatea zuten, esaterako.

Aipatutako lana 300 bat orrialdez osatuta dago, eta bi udalen asmoa da irailean kaleratu eta salgai jartzea.

ILE APAINDEGIA
APAINDU
San Juan kalea 12c behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 08 26 40

**JAIAK** > GAUEKO AUTOBUS ZERBITZUA

# Autobus zerbitzuarekin pozik Udaleko arduradunak

Datorren urterako zerbitzua orduerdiro jartzea aztertuko dute arduradunek

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Udaleko arduradunek jakinarazi digutenez, arrakasta handia izan zuen jaietako egubakoitz eta zapatu gauetan jarritako autobus zerbitzu bereziak. Batetik, jendea zoriondu nahi dute eta bestetik, barkamena eskatu sortu ziren arazoengatik. Jende askok erabili zuenez, Udalak ez du batere ordaindu beharrik izan zerbitzua.

**PESAREN PROPOSAMENAK**

Pesako arduradunek Udalari azaldu diotenez, hainbat arazo sortu ziren: batetik, zapatu gauean zerbitzua ez zen nahikoa izan. Pesaren proposamena da hurrengo urtean, ordu erdian behin jartzea autobusa; bestetik, gaizki aparkatutako automobilek eraginda autobusek arazoak izan zituztela-eta, proposamena da erdigunetik kanpo jartzea geltokiak.

**ALARDEA** > AZTERKETA SOZIOKULTURALA

# Alardearen gaineko 80 bat inkesta egin dituzte jaietan

Eusko Ikaskuntzako kideak herritarrei inkestak egiten ibili ziren zapatuan

**A.I.** > ANTZUOLA

Maiatzean Euskal Herriko Alardeen gaineko mintegia egin zuten Antzuolan. Iazko azaroan hasi zen Eusko Ikaskuntza Mairuaren Alardearen gaineko azterketa soziokulturala egiten. Elkarrizketa sakonak egin zituzten orduan eta maiatzerako gai horren gaineko hainbat mintegi antolatu zuten.

Azterketa horren osagarriak izan dira zapatuan egin zituzten inkestak. Alardean parte hartu zuten, alardea ikusten egon zen eta zapatu arratsaldean kalean zebilen jendeari egin zizkioten galderak. Alardearen egoeraren, parte-hartzearen eta alardeak duen esanahiaren gainekoak, besteak beste, ziren galderak. Udazkenerako prest egongo dira azterketa osoaren emaitzak.

**HIRIGINTZA** > PLAZA GORRIA

# Beheko auzoko plaza gorrian eta garajeetan hainbat eraberritze lan egingo du Udalak

Guztira, 60.000 euroko diru-partida aurrez ikusita dago; jolasleku berria jartzeko aurrekontua ere eskatuko dute



**JOLASLEKUA** Hainbat jolas kendu egin dituzte, egoera txarrean zeudelako. A.I.

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Beheko auzoko plaza gorria eraberritzeko asmoa dauka Udalak. Horretarako proiektu zehatza oraindik prestatzeke dute, baina aurrekontua erabakita dute: 40.000 euro, hain zuzen ere. Eguzki auzoan eraikitzen diharduten etxebizitzekin batera egingo dituzte lanak.

Lanen helburua da plaza gorriaren azpiko aldean dauden garajeetako itoginak konpontzea, fatxadak konpontzea eta plaza gorriaren zoladura eraberritzea asfalto beltzarekin. Pedro Iturbe alkateak adierazi digunez, euren nahia zen orain artekoa moduko zoladura gorria botatzea, baina 13.000 euro gehiago kostatzen da; gehiegizkoa, euren ustez. Guztira, 60.000 euroko diru-partida dago aurrez ikusita plaza gorrirako eta egiteko asmoa duten lanen aurrekontua 40.000 euro denez, hor geratzen den diruarekin umeendako jolasleku berria egiteko aukera aztertzen dihardurte Udaleko arduradunek. Antzuola Udal Etxegintza arduratuko da lan horiek egiteaz.

**UMEENDAKO JOLASLEKUA**

Oraindik ez dakite noiz hasiko dituzten lanak, baina dagoeneko hartu dituzte neurri batzuk: umeendako jolaslekuko jolas batzuk eta gune horretako segurtasun lurzorua kendu egin dituzte orain dela aste batzuk. Iturbek hauxe adierazi digu hartu duten erabaki horren gainean: “Jolas horiek egoera txarrean zeuden, arriskua eragin zezaketen, eta horregatik erabaki genuen lehenbailehen kentzea”.

**GARAJEAK**

Esan bezala, lan horietan, garajeetako itoginak konponduko dituzte. Garaje horietako 20 Eguzki auzoan eraikitzen diharduten etxebizitzetako jabeendako izango dira.

> UDALA

### Ezohiko osoko bilkura egingo dute hilaren 25ean, eguaztena

Antzuolako Udal Etxegintzako administrazio kontseilua berritu behar dela eta, osoko bilkura berezia egingo du udalbatzak eguaztenean, hilak 25, 18:00etan. Presidentea, idazkaria eta bokalak izendatuko dituzte. Antzuolako Udal Etxegintza kudeatzen duen Gespublic aholkularitza enpresarekin batzarra izan zuen udalbatzak astelehenean, elkartearen egoeraren eta funtzionamenduaren berri izateko.

> EUSKAL EZKONTZA

### Anelkarrek 3.000 euro batu zituen domekako euskal ezkontzan

Antzinako euskal ezkontzaren antzezpenak arrakasta handia izan zuen herriko jaietan. Anelkarrek 3.000 euro batu zituen jaialdi horretan. Elkarteko kideek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartzaile guztiei, arreorako eta gainerako materiala laga zieten herritarrei, Udalari, Giokelari, sukaldari lanetan ibili zirenei eta ikusle guztiei. Brasil, Kongo eta Senegalera bideratuko dute dirua.

> ANTZUOLA-AIHERRA

### Irailean Antzuolan ospatuko dugu Senidetze Eguna

Aurten, Antzuolan ospatuko dugu Aiherra-Antzuola eguna. Uztail bukaeran herri bietako ordezkariek batzarra egingo dute egun hori antolatzeko.

## ZUZENKETA

Aurreko astean Alaitz Jauregiren iritzi artikulua Jone Leteren izenean argitaratu genuen. Lerro hauetatik, barkamena biei.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**UDALA** > ASTELEHENEKO HIRIGINTZA BATZORDERA 25 LAGUN INGURU AGERTU ZIREN

# Jendetsuak izan dira oraingo hilean egindako bi bilkurak

Atzo, eguena, egin zuten hileko bigarren osoko bilkura; gai zerrendako erabakirik polemikoena Uruburuko transformadorearen kokapena izan zen

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Udal batzar berezia egin zuen udalbatzak atzo, eguena. Zinegotziek lau puntu zituzten gai zerrendan.

Diru eragiketa berria eskatzea adostu zuten. Udalaren 700.000 euroko mailegua 230.000 eurora jaitsi dute. Diru hori bueltatzeko beste urtebeteko epea eskatuko dio Udalak Kutxari.

Aralarrek, bestalde, Udalaren egoera ekonomikoa aztertuko duen auditoria lanak adjudikatzeko proposamena egin zuen. Lana Z&B Auditores enpresari ematea proposatu zuen. Lanok 15.000 euroko gastua izango dute. Bi urtero egiteko asmoa agertu zuten.

**URUBURUKO TRANSFORMADOREA**

Zalantzarik gabe, batzarreko gai polemikoena izan zen. Asteleheneko Hirigintza Batzordera 25 lagun inguru agertu ziren eta atzoko osoko bilkurara ere jendetsua izan zen. Albistea idaztean batzarra bukatu barik zegoenez, ez dakigu zein izan den udalbatzak azkenean hartutako erabakia.

BATZORDEBURUAK



**Oxel Erostarbe**
**Aralar-Independ.**

Alkatea, Hazienda, Pertsonala eta Zerbitzuak, Jaiak



**Iban Retolaza**
**Aralar-Independ.**

1. Alkateordea
Hirigintza



**Rebeka Ubera**
**Aralar-Independ.**

Kirolak
Hezkuntza



**Ana Gillegi**
**Aralar-Independ.**

Kultura eta Euskara



**Edurne Alberdi**
**EAE**

2. Alkateordea
Ongizatea
Turismoa



**Leire Basauri**
**EAE**

Baserritarrak

**LAPURRETA** > NIKI BERRIEN SALMENTATIK LORTUTAKO DIRUA LAPURTU DUTE

# Lapurreta gogor salatu dute Elgetako gaztetxetik

Gaztetxeak zozketa-txartelak jarri ditu salgai, eta herriko komertzioen solidaritatea eskertu du

**L. Z.** > ELGETA

Ez da lehenengo aldia Elgetako gaztetxean lapurreta egiten dutela. Hilaren 7an, kamiseta berrien salmentatik lortutako dirua lapurtu zuten.

Gaztetxetik gogor salatu dute lapurreta. "Gaztetxea gune autogestionatua da, ez du Udalaren inongo dirulaguntzarik jasotzen. Jasotzen den diru bakarra Jai batzordetik jasotzen da jaietan, partaide aktiboak garelako. Lotsagarria iruditzen zaigu batzuen borondatezko lanaren eta esfortzuaren emaitza beste batzuek inolako kontzientzia eta errespeturik gabe horren erraz lapurtzea".

**ZOZKETA-TXARTELAK SALGAI**

Gaztetxeak zozketa antolatu du lapurretari aurre egiteko. Dagoeneko salgai daude zozketa-txartelak herriko gune ezberdinetan. "Herriko komertzioen babesa eta solidaritatea eskertu nahi ditugu", adierazi dute gaztetxetik. "Zozketa emandako produktuekin antolatu dugu eta sari bikainak daude". Gaztetxeko ordezkariek dei egiten diete herritarrei zozketan parte hartzera.

> 30 BAT LAGUN

## Astelehenean loreak batu zituzten Pili Arinen gidaritzapean

Astelehenean, hilak 16, txango polita egin zuten herriko 30 bat lagunek. Pili Arinen gidaritzapean loreak, landareak eta hostoak batu zituzten. Udazkenean egitekoa den lore lehorren inguruko ikastaroan erabiliko dituzte batutakoak.

Salbador ermita inguruan ibili ziren. "Ikastaroan erabiliko ditugu gaur bildutakoak", adierazi zuen Arinek, "baina gaurko txangoak badu beste helbururik. Herritarrak inguruan ditugun landare eta loreengana hurbiltzea". Azalpen interesgarriak eman zituen Arinek irteeran aurkitutako hainbat landareren gainean.

**bere ustez**



Alberto Telleria

## Manolo Cainzos, zorionak eta eskerrik asko

Lehenengo eta behin, Manolo, zorionak egindako biharragaittik, *Herri mugimendua/Un movimiento ciudadano*. Ederra benetan 70-80 hamarkaden inguruan egindako esposizioa.

Danondako interesgarrixa bada, argigarri orain *gazte* eta orduan mutiko-neskato giñanondako; zeozer entzun, baiña ezer gutxikin jabetu giñalako. Zer esanik ez, oraingo gazterixiarendako eta atzetik datozenendako.

**"Lan argigarrixa, orain 'gazte' eta 70eko hamarkadan mutiko-neskato giñanondako"**

*Quo Vadis*, Euskadi? esan zozkun irakasle madrildarrak institutuan oin dala urte dexente. Egixa esan ez nakixan zer gura eban esan, baina garrantzitsua zala bai; pisua ekan galderiak.

Sumatzen eban harek, Alvarezek hitzaurrian diñuen moduan, antitesi sozialera ginddoiazela: herri-mugimendu pluraletatik, talde antolatuen sustapenetik edo ongizatea eta herria osotasunean helburu zuten elkarteetatik norbere garapenera eta ongizatera, paradigma indibidualistara, hiperkontsumismora…

Bigarrenik, eskerrik asko, Manolo, gogora ekartziarren bidian zer laga dogun; batez be, izan zeikianaren eta ez danaren barri emotiarren.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak
Paper pintatuak
Moketa eta sintasola
Harea zorrotada
Iztuku esponjatua
Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

((112))
SOS DEIAK

**ARAMAIO**> 13 ETA 17 URTE ARTEKO GAZTEEI ZUZENDUTA DAGO

# Egubakoitzean egingo dute Udalak eta herriko gazteek batzarra

Udalak batzar baterako deialdia egin die herriko gazteei; batzar irekia izango da eta edozeinek hartu ahal izango du parte

**MIREN ARREGI** > ARAMAIO

Udalbatza berriak gazteekin bilera bat egingo du gaur bertan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan 19:00etan. Orain arte Udalak eta gazteek izan duten harreman tirabiratsua alde batera utzi nahi du egungo Aramaioko Udalak, eta xede edota helburu horrekin egin du asanblada edo bilera horretarako deialdia. Gazteek herritar bezala dituzten eskubideez mintzatu da Aramaioko alkate Asier Agirre: "Guk uste dugu herritar bezala gazteek daukatela eskubidea eta aukera eduki behar dutela hitz egiteko, bai gurekin eta, noski, baita euren artean, aurrera begira zein pauso eman behar diren ikusteko". Udalak gazteen eta Udalaren artean harremanak areagotzea eta indartzea lortu nahi du.

**GAI DESBERDINAK**

Gai desberdinak landuko dira arratsaldeko bileran. Horien artean garrantzitsuena, etorkizunari begira gazteek herrian nola inplikatu behar duten eztabaidatzea izango da. "Kontuan hartu behar dute udalerri honetan udaletxea herritarrena dela, eta eurek ere herritar moduan Udalarekin harremanak izan behar dituztela", gaineratu du Agirrek.

Bileran jorratuko duten beste gai bat gazteak eta lokalak izango da. Alkate Asier Agirrek azaldu du gazteek aktibitate bat dutela herrian, mugimendu bat direla azken finean, eta gaineratu du: "Horren parte da iraganean lokal bat izan zutela". Hala, lokal horretara edota beste berri batera sartzeko aukera ere eztabaidatuko da gaurko bileran.

**"Deialdia 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago bereziki, nahiz eta bilera irekia izango den"**

**"Gai desberdinak landuko dira, eta horien artean gazteek lokal bat edukitzearen gainekoa"**

**BILKURAK ETA ALKATETZA IREKIAK**

Udalak argi utzi nahi izan du osoko bilkurak eta alkatetza erabat irekiak direla, eta gazteengandik edo gainontzeko herritarrengandik datorren edozein gairen inguruan berba egiteko prest dagoela Aramaioko Udala. Gazteekin jarraituz, gaineratu du kultura arloan, kirol arloan edota beste edozein gairen gaineko proposamenak gauzatu nahi badituzte, Udala oso prest egongo dela proposamen horiek entzuteko eta lantzeko.

Gaur egingo den bilera irekia Udalaren eta gazteen artean egingo den lehena izango da. 13 eta 17 urte bitarteko gazteei eskutitz bat bidali diete bilerarako deialdia eginez: "Herrian ikusten dugun hutsune handiena tarte honetan ikusten dugu". Gainontzeko gazteak nahiko bideratuta egoten direla gaineratu du Aramaioko alkate Asier Agirrek. Gaur, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.



**TXIRRITOLINPIADETAN** Gazte ugari hartu zuen parte. GOIENKARIA

**JAIAK** > TXIRRITOLINPIADETAKO BALORAZIO ETA EMAITZAK

## Txirritolinpiada arrakastatsuak aurten ere

Hamabi hirukotek hartu dute parte aurtengo Aramaioko Txirritolinpiadetan

**M.A.** > ARAMAIO

Aurtengo San Martin jaietako Txirritolinpiadek arrakasta izan dute. Izan ere, ikusmin handia sortu zen herrian hirukote parte-hartzaileak animatzeko. Guztira 12 hirukote aritu ziren nor baino nor gehiago. Antolaketa ona izan zen, eta berrikuntza moduan aipatu behar da aurten lehen aldiz audioa eta mikrofonoak ipini zituztela. Badira bospasei urte Txirritola euskara elkarteak olinpiada ezohiko horiek antolatzen dituena, eta urtetik urtera arrakasta handiagoa izaten dute. Txirritolinpiadetan bi maila edo kategoria desberdin egoten dira: batetik, 1990. urtea baino lehenago jaiotakoak; eta bestetik, 1991 eta 1995. urte bitartean jaiotakoak. Hirukote bakoitzeko pertsona bat bizikletaz igotzen da Arrikoitz baserrira. Bigarrena oinez jaisten da bertatik eta hirugarrenak konketa bat bete behar izaten du eta herriko parkeko oztopoak sahiestuz neurri jakin bat gainditu. Gazteen mailan talde irabazlea Rafa Cordero, Raul Perez eta Ander Lopezek osatutakoa izan zen. Nagusien mailan, berriz, Juan Antonio Aretxagak, Josu Bideburuk eta Aitor Aspek osatutako taldea atera zen garaile. Gazte eta nagusien mailetako lehen hiru taldeek dirusaria jaso zuten.




> IPUIN KONTAKETAK

### Ipuin kontalarien topaketa antolatzeko bilera martitzenean

Irailaren 22an Euskal Herriko ipuin kontalariak elkartuko dira Aramaioko kale eta auzoetan, eta, eurek ondo dakitena eginez, ipuinak kontatzea alegia, fantasia, errealitate eta magia kutsuz beteko dituzte herriko bazterrak. Horretarako, baina, ipuin kontalariek herritarren eta herriko kultura taldeen laguntza ezinbestekoa dute. Horregatik, Aramaioko Udalak datorren astearterako, hilaren 24rako, bilera baterako deialdia egin du.

Bilera kultur etxean izango da, esan bezala datorren asteartean, 19:00etan. Hala, Udaletik herritarrak animatu nahi dituzte bilerara joan daitezen, irailaren 22an egingo diren ekintzetan laguntza eskaintzeko. Era askotako laguntza izango da egun horretarako eskatuko dutena, baina horren berri bileran bertan emango dute. Herritar guztiei eta kultura taldeei eginiko deialdia da, guztion laguntza da eta beharrezkoa.

**KULTURA** > LEGUTIANO-ARAMAIO DOMEKAN

## Zuiako Koadrilak antolatuta, Aramaion bisita gidatua

Lehen hitzordua Legutianon 10:00etan, 11:00etan Oletan eta 12:30ean Aramaion

**M.A.** > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak antolatuta, domeka honetan, hilak 22, bisita gidatuak egingo dituzte Legutianon hasi eta Aramaiora iritsi arte. Hitzordua 10:00etan da, Legutianoko plazan, eta Aramaion amaituko da 14:00ak aldera. Ibilaldi edota bisita horiek guztiak Zuiako Koadrilak antolatzen ditu, Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Esan bezala, interesatuak 10:00etan elkartuko dira Legutianon, eta bertan gune historikoa bisitatuko dute. Hain zuzen ere, antzinako dorretxea eta harresia ikusteko aukera paregabea eskainiko zaie joaten diren guztiei. 11:00etan Oletako elizan da hitzordua. Ondoren, Orixol eta Arangiko mendi hegaletan burdinolek nola sortu eta funtzionatu zuten ikusteko aukera izango da. Azken bisita gidatua Aramaion egingo da. Ibarran Sastiña baseliza eta gune historikoa bisitatuko dituzte, eta baita Azkoaga auzoa ere. Eremu ederra eta miretsia, mendiz inguratua.



**TALDEA** Udalekuetako neska-mutikoak eta begiraleak Gaztainuzketara lo egitera joan aurretik, martitzenean. M.A.

**AISIALDIA** > UDALEKUAK

# Umeak eta arduradunak oso gustura udalekuekin

Gaur arratsaldean bukatuko dituzte aste bi iraun duten udalekuak, eta ezkutuan dagoen altxorra bilatu beharko dute herrian

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gaur, hilak 20, esango diete agur udalekuei Gatzagako ume eta gaztetxoek. 23 neska-mutiko ibili dira hiru begirale lagun izan dituztela, eta ondo baino hobeto pasatu dutela jakinarazi digute.

**HAINBAT IRTEERA**

Nahikoa buruhauste izan zuten Gurel guraso elkarteko kideek udalekuak antolatzeko orduan, dirurik ez zeukatela uste izan zuten-eta. Baina gaizki ulertua konpondu, eta ekitaldiz betetako aste bi izan dituzte neska-mutikoek. Joan zen astean zaldian ibiltzera joan ziren, eta Gamarrako igerilekura ere bai: "Eguraldia lagun izan dugu irteera guztietan, eta oso pozik gaude", adierazi digu Gurutze Orbegozok, Gureleko presidenteak.

Astelehenenean Landara joateko asmoa zeukaten, ohiturari jarraituz, baina bainua hartzeko arazoak zeudela entzun eta beste irteeratxo bat antolatu zuten: "Hiruerreketara joan ginen Gure Ametsatik irtenda, eta gero Olaunetik bueltan Dorletara, handik herrira egiteko", dio Orbegozok. Martitzenean, ostera, Gaztainuzketako mendi etxeetara joan ziren gaua pasatzera 13 bat gaztetxo.

**GUSTURA BAINO GUSTURAGO**

"Oso ondo pasatu dugu, sekula baino hobeto", esan digu 9 urte dituen Jonek. Eta begiraleak ere oso pozik daude izan duten giroarekin: "Gustura baino gusturago ibili gara, giro bikaina izan dugu eta", azaldu du Alazne Diaz arduradunak. Altxorraren bila jolasa egindako bukatuko dituzte aurtengo udalekuak; gaur 16:00etan izango da hori.

> KULTURA

### Gaur aukeratuko du Udalak Andramaixa jaiak iragarriko dituen horma-irudia

Atzo bukatu zen jaiak iragarriko dituen horma-irudiak aurkezteko epea, eta gaur aukeratuko du Udalak irabazlea. Eguaztenerako hiru horma-irudi zeuden udaletxean, eta, Ainara Zubillaga Kultura zinegotziaren esanetan, besterik ezean horien artetik aukeratuko dute. Kultura batzordea, bestalde, jaietako azken kontuak lotzen dabil egunotan irailerako gertu izateko egitaraua.

> ZERGAK

### Bigarren hiruhilabeteko ura eta estolderiaren zerga ordaintzeko epea zabalik dago

2007ko bigarren hiruhilabeteko edateko uraren eta estolderia zerbitzuaren tasaren errolda onartu du Udalak, eta jendaurrean jarri du ikusgai. Irailaren 10a bitartean ordaindu behar dituzte zergak herritarrek; ordainagiri helbideratuak izan ezik, gainerakoek udaletxeko zerga-bilketa bulegora jo beharko dute.



M.A.

## Bukatuta udaletxe alboko parkea

Hainbat hilabetean izan dira lanak udaletxearen alboan dagoen parkean, baina dagoeneko bukatu dituzte. Bertan zeuden hiru zuhaitzak bota ostean hesia jarri zuten, landare txikiak landatu zituzten gero, eta mimosa zuhaitza ere bai. Eta, azkenik, jolasgunea jarri zuten joan zen astean: txirrista handi bat jolaserako etxetxo batekin.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76




**IAZKO IRABAZLEAK** Santi Artetxe pilotua eta Sandra Fernandez kopilotua, WRC ikusgarrian, txanda bat hasteko gertu. JOSETXO ARANTZABAL

**AUTO LASTERKETA** > ARAMAIOKO 6. RALLYSPRINTA

# Hirurogeita sei pilotu lehiatuko dira bihar Aramaion, inoiz baino gehiago

15:30ean hasiko dute lasterketa, baina antolatzaileek ordubete lehenago itxiko dute errepidea

**XABIER URTZELAI** > ARAMAIO

Gogotik lan eginda, Aramaioko Azpiko Racing elkarteak seigarren rallysprinta egingo du bihar, zapatua (15:30). Hala, auto-zaleendako galdu ezin den hitzordua inoiz baino erakargarriago dator aurten, 66 lasterkari izango dira-eta irteera puntuan, ibilbideari aurre egiteko gertu.

**EZ DA INOR FALTA**

Euskadiko Txapelketetan lehiatzen dabiltzan pilotu nagusiak izango dira bihar Aramaion. Hala, iazko irabazle –eta txapelketan agintzen dabilen– Santi Artetxe (Peugeot 307 WRC) da faboritoetako bat, eta lehia estua izango du, besteak beste, Joseba Zapirainekin (Seat Cordoba WRC), Ruben Gartziarekin (Ford Escort Cosworth WRC), Xabier Lujuarekin (Escoda Octavia WRC) eta Josetxo Zapiainekin (Renault Maxi Megane). Atzetik etorriko dira gainontzeko kategoriak, eta tartean ibiliko dira ibarreko ordezkari Haritz Errasti eta Ander Oion aramaioarrak (Citroen AX Sport), Garagartzako Orobengoa anaiak (Seat Ibiza GT TDI) eta Elgetako Aitor Kortabarria eta Aitzol Jimenez (Peugeot 205 GTI). Hori esanda, ibarreko zaleek gertutik jarraitu beharko dituzte hiru auto horiek, igarri egin behar duteeta etxean korritzen dutela.

**SEGURTASUN NEURRIENGATIK**

Antolatzaileek aldaketa txikia egin dute ibilbidean, Gantzagatik Aramaiora bidean pilotuek ezkerretara egin beharko duteeta: "Segurtasunagatik egin dugu aldaketa hori. Lehen, autoek aldapa behera amaitzen zuten proba, Ibarran. Eta, ikusleak hara eta hona ibiltzen zirenez, ez zen oso segurua", esan digu antolatzaile Julen Agirrek.

Eta, aldaketa hori pilotuei gustatu zaien edo ez galdetu diogu Aramaiokoari: "Denetik egon da, batzuei gustatu zaie, eta beste batzuei ez. Guretako, batetik, seguruagoa da, eta bestetik, ikusgarriagoa". Horrela, Etxaguengo bidegurutzearekin eta Gantzagako *paella*-rekin batera, zaleek ondo gozatuko dute azken bidegurutze horrekin ere: "Arexolako zatia ere nahiko ikusgarria da, errepide zati polita ikus daiteke-eta handik".

**EMAKUMEAK LEHIAN**

Hori da lasterketako beste berritasunetako bat, emakumezkoek ere euren maila erakutsiko dutela. Hala, Itziar Alonsoren eta Mireia Saizarren Citroen AX GTI autoa ere gertutik jarraitu beharko da. Horrekin batera, ezin ahaztu atzeko trakziodun autoak. Inoiz baino BMW gehiago lehiatuko dira (12), atzeko trakziodun kategorian puntuak gehitzeko gertu.

## Lasterketa-tramuak 500 metro gehiago izango ditu

Aurtengo berritasunen artean dago ibilbidean egin duten aldaketa txikia. Hala, lasterketak 500 metro gehiago izango ditu, ibilbidearen amaieran. "Amaiera ikusgarria izango dela espero dugu, Gantzagatik behera topera datozela pilotuek balaztatze galanta egin eta lehenengo abiadura sartu beharko dute-eta, ezkerretara egiten duen 180 graduko kurba hartzeko", esan digu antolatzaile lanetan dabilen Julen Agirrek. Tramu osoak 6,7 kilometro ditu, eta pilotuek guztira 23 kilometro egingo dituzte lehian.




Rallysprintak egingo duen ibilbidea, auzoz auzo. Ibilbide-tramua 6,7 kilometro luze da.




**PRENTSAURREKOAN** Uribesalgo, Peñakoba eta Basurko, eguaztenean. X.U.

**SASKIBALOIA** > HITZARMENA

## Saskibaloia eta Mondragon Unibertsitatea, batera

MUk eta Ointxe Saskibaloi Taldeak hiru urterako lankidetza hitzarmena sinatu dute

**X.U.**> ARRASATE

Ointxe Saskibaloi Elkarteak bultzada polita jasoko du Mondragon Unibertsitatearen eskutik, bi entitate horiek hiru urterako hitzarmena sinatu duteeta. Hala, MUko idazkari nagusi Idoia Peñakobak eguaztenean egindako prentsaurrekoan azaldu zuenez, unibertsitateak urtean zehar proposamen asko jasotzen ditu, baina Ointxe! klubak egindakoa begi onez ikusi zuten: "Euren kirol proiektuarekin bat egitearekin batera, hitzarmen horrek unibertsitateak bailaran presentzia handiagoa izatea ahalbidetuko du". Gainera, kirola balioak lantzeko tresna aproposa dela gaineratu zuen Peñakobak. Ointxeko presidente Jon Basurko ere pozik azaldu zen hitzarmenarekin: "Jokalariek harro eramango dute unibertsitatearen izena elastikoan".

**TRIATLOIA** > GASTEIZKO TRIATLOI BIKOITZ OLINPIKOA

# Debagoieneko 15 atleta triatloi olinpikoan

Gasteizen egingo dute lehenengo triatloi bikoitz olinpikoa, domekan (08:30), eta ibarreko hiru taldeetako 15 ordezkari lehiatuko dira



**MUXIKA ETA LABAKA** Gazteek lan ona egin zuten Lekeition. ANTXINTXIKA-ALGON

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Domekan egingo dute Espainiako distantzia luzeko txapelketarako baliagarria izango den lehenengo triatloi olinpikoa, Gasteizen –08:30ean irtengo dira emakumezkoak, eta 08:45ean gizonezkoak–. Eta, ibarreko taldeetako hainbat triatleta animatu dira zer-nolako proba den bertatik bertara ikustera. Hala, K-Tri taldetik Jose Antonio Dorronsoro; Oñatiko Triatloi Taldetik Gaizka Aranburu, Jon Ander Madina, Ander Madinagoitia, Josu Odriozola, Javier Zelaia eta Mikel Askobebeitia; eta Antxintxika-Algon Triatloi Taldetik Ricardo De Goñi, Jose Mari Barrena, Iban Da Silva, Gorka Gonzalez, Iñigo Hernandez, Juan Sanchez, eta Mikel Vazquez lehiatuko dira. Esandako moduan, Gasteizko proba distantzia luzekoa izango da. Lehiakideek 3.000 metro egingo dituzte igeri (Garaion), 80 kilometro bizikletan, eta 20 kilometro korrika (Salburuako parkean). Gamarrako parkean egongo da helmuga.

**LEKEITION, AURREAN**

Horrekin batera, aipatu egin behar da joan den astean Antxintxikako Jon Muxika eta Xabi Labaka bergararrek Lekeitioko gazte mailako triatloian eginiko lana. Lehenengo sailkatu zen Muxika eta bigarren izan zen Labaka. Gainera, Mikel Labaka Euskadiko selekzioarekin lehiatuko da Espainiako Txapelketan.

# Kirola, minbizia prebenitzeko

Ariketa fisikoa egitea minbizia prebenitzeko neurri gisa aholkatzen dute adituek

Ariketa fisikoa egitea minbizia prebenitzeko neurri gisa aholkatu izan dute adituek. Izan ere, haren eragin onuragarriak frogatuta daude, batik bat koloneko, bularreko eta prostatako minbizien kasuan. Badirudi zelulen ugalketaren nahastea abiatzea atzerarazten duela.

**KOLONEKO MINBIZIA**

Ariketa fisikoaren ondorioz minbizi-mota hori izateko arriskua %20-40 inguru gutxitzen da. Entrenamendu aerobikoarekin, muskulu abdominalak landuz eta dieta egokiarekin, janariak heste loditik bizkorrago pasako dira eta substantzia kantzerigeno bihurtzeko arrisku txikiagoa izango dute; jasotako eta erretako kalorien arteko oreka hobeto kontrolatuko da; immunitate sistema hobetuko da eta zenbait hormonaren kopurua jaitsi.



**PROSTATA** Tumoreen garapenerako hasierako unean kirola egiteak gaixoaren bizi-kalitatea hobe dezake.

**BULARREKO MINBIZIA**

Ariketa maiztasunez egiteak bularreko minbiziaren prebentzioa hobetzen du. Modu honetan prebeni dezake: gorputzeko koipea gutxitzen du; aldaketa hormonalak eragin ditzake eta bularra emakumeen hormonen eraginpean epe laburragoan egotea eragiten du.

**PROSTATAKO MINBIZIA**

Ariketa fisikoa maiztasunez egiten dutenek testosterona-maila txikiagoa izaten dute odolean, eta, hala, minbizi-mota hori jasateko arriskua txikitu egiten da.

Tumoreen garapenerako hasierako unean ariketa fisikoa egitea baliabide egokia izan daiteke, gaixoaren bizi-kalitatea hobetu ahal izateko; izan ere, ehun muskularra mantentzen laguntzen du; jateko gogoa pizten du; motibazioa eta bizi-poza sortzen ditu, kezkak ahazten lagundu, eta umorea ere hobetu egiten du.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

**Ikus itzazu argazkiak, astero, ASTELEHENEKO GOIENKARIAn!**

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***





**Har ezazu parte!**



## Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira, eta berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 22an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du, eta ez da adin mugarik izango.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri. **Arrasate:** Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500, edo Otalora Lizentziaduna 31, 20500. **Bergara:** Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570. **Aretxabaleta:** Durana 11, 2. solairua, 20550.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Parte-hartzaileek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaiak baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta bizitasuna, besteak beste.
- Honez gain, Goienako beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

## Sariak



**1. saria**

**Olympus E-400 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.



- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.



- **3. saria:** bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:

kutxa

Laguntzaileak:

kiñu argazkilariak

Arrasate Bidaiak
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
marsans

GURE AMETSA
JATETXEA

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara



**> KULTURA**
Musika, sardinak eta filmak Oñatiko Surf jaialdian, zapatuan **> 37**




**> KOMUNIKAZIOA**
Informazio eta Komunikazioaren Teknologia Berrien inbentarioa **> 43**

**> AMAIA MALLABIABARRENA**
Moda diseinua ikasi du Bartzelonan. Ekainean, Madrilen, emaztegai soineko batekin saria irabazi zuen. Uztailean Alemanian lehiatuko da **> 42**





GOIENKARIA

NAZIOARTEKO JAIALDIA

# Folklorea, Monterronera

**MARTITZENEAN**
Colimako Unibertsitateko Balet Foklorikoa eta Albaniako Konpainia Nazionala, 22:30ean

**PORTUGALETE**
Arrasateko folklore emanaldia Portugaleteko Nazioarteko Jaialdiaren barruan kokatzen da

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da martitzenean, hilaren 24an, Arrasateko Monterron parkean. Colimako Unibertsitateko Balet Folklorikoak (Mexiko) eta Albaniako Kantu eta Dantza Folklorikoaren Konpainia Nazionalak hartuko dute parte aurtengo jaialdian. 1990eko hamarkadaren hasieratik leku askotako taldeak igaro dira Monterronetik.

Esan bezala, mexikarrak eta albaniarrak izango dira martitzeneko protagonistak. Colimako Unibertsitateko Baletak ia hiru hamarkada darama Mexikoko arte adierazpenen interpretazio aberats, oparo eta

(36. orrialdean jarraitzen du)



(35. orrialdetik dator)

sakona eskaintzen. Mito erlijiosoak eta eguneroko bizitzako pasadizoak batzen dituzte koreografia bikainetan. Tragediaren eta amodioaren oihartzuna sumatzen da bertan. Esan bezala, hamaika lekutan izan dira euren herrialdeko dantzak erakusten, tartean Sevillako Expon (1992), Atlantako Kultur Olinpiadan (1993), Hannoverreko Expon (2000) edo Vatikanon, Joan Paulo II.a Aita Santuaren eta 30.000 erromesen aurrean dantzatu zutelarik.

**ALBANIAKO ENBAXADOREAK**

Albaniako taldeari dagokionez, talde profesional gisa dabil 1957a ezkero. Bakarlariak, kantariak, dantzariak eta orkestra txiki bat biltzen ditu bere baitan. Albaniako artistarik onenak jaso izan ditu Konpainia Nazionalak urte hauetan guztietan. Albaniak belaunez belaun gordetako tradizioaren altxorra lantzeko laborategi modukoa izan da konpainia.

Antzinako eta egungo Albaniako folklorearen altxorra landu, garatu eta zabaltzea dute helburu. Izan ere, aberastasun nabarmena du Albaniak etnografiaren aldetik; eskualde bakoitzak folklore propioa dauka, bakoitzak bere jantziak, kantuak, dantzak eta ohiturak dituela. 1950eko hamarkadan sortu zenetik 10.000 emanalditik gora egin dituzte. Kolore, tankera eta apaingarri ugari dituzten jantzi ikusgarriekin Monterronen izango ditugu martitzenean.

**PORTUGALETETIK ARRASATERA**

Arrasateko folklore emanaldia Portugaleteko Nazioarteko Jaialdiaren barruan kokatzen da. Aurten 33. ekitaldia betetzen du Elai-Alai taldeak antolatzen duen jaialdiak. Jaialdia eguaztenean jarri zuten martxan eta aste bukaera honetan hainbat emanaldi izango dira Euskal Herriko herri ezberdinetan. Elgoibar, Deba, Tutera, Tolosa, Irun, Ispaster edo Erandiora iritsiko da jaialdia aurtengo ekitaldian. Taldeei dagokionez, Peru, Txina, Brasil edo Uzbekistaneko taldeak gonbidatu dituzte. Uztailaren 30ean bukatuko da jaialdia eta ondoko helbidean kontsulta dezakezue programazioa: *http://festival.elai-alai.org*

**GYPSY SWING, EGUENEAN**

Bestalde, Arrasateko udako kultura eskaintzarekin jarraituz, Gypsy Swing taldeak emanaldia egingo du eguenean, hilaren 26an, Monterronen, 22:30ean. Eskandinavian eta Herribeheretan ijitoen musika indartsua egiten duten hainbat talde dira. Hala ere, swingaren eta ijitoen sustraien arteko fusioa egiten duten talde gehienak Frantzian daude. *Manouche* estiloaren adibide bikaina da Gypsy Swing. Hiru belaunaldiren ostean, sasoi betean datozkigu. Bizitzako gauza inportantea da musika *manouche*-rendako; familiakoak eta lagunak musika jotzeko elkartzen dira eta *jam session* berezi horien izpiritua ekarriko dute eguenean Arrasatera.



GYPSY SWING Swingaren eta ijitoen sustraiak uztartzen dituen taldea eguenean, Monterronen. GOIENKARIA




ANDAMIORIK GABEKO LANAK



ÑAÑARRI LAN BERTIKALAK

680 641 401
676 952 968
www.nanarri.com

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak

**SURF JAIALDIA** > OÑATIN, ZAPATUAN

# Sardinak, filmak eta musika Oñatiko surf jaialdian bihar

Sardina janaren ostean, 'Downhill motion' filma ikusteko aukera San Antonen

Hondarribiko The Stupefactos taldeak emanaldia egingo du gauerdian

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Olatu handiak izango ditugu zapatuan Oñatin: bertako gazte talde batek surf jaialdia iragarri du biharko. Giroa pizteko sardina jana egingo dute, 20:00etan, San Anton plazatxoan, eta jarraian, 22:00etan, surf giroko bi film ikusteko aukera izango da: lehenbizi *Chapucetti*-ren *Sancheski* film laburra eskainiko dute eta jarraian, *Downhill motion*, Greg Weaver-ek eta Spider Willsek 1975ean eginiko filma. Skatearen eta surfaren arteko lotura islatzen duen lana da.



**SURFA** *Ametsak besarkatuz* argazki erakusketa ikusgai dago egunotan Oñatin. GARI GARAIALDE

Antolaketa lanetan ibili den Iker Lopez oñatiarraren hitzetan, "aipatutako filma orain dela hiru urte ikusi genuen, Donostiako Surf Film Festival delakoan, eta txundituta utzi gintuen. 8 mm-ko kamerarekin filmatutakoa da, xarma berezia duena, eta beste garai batera eramaten zaituena. Kaliforniako Huntinton hondartzan hartutako irudiak ikusgarriak dira oso".

Film emanaldien ostean Hondarribiko The Stupefactos taldeak emanaldia egingo du. Era berean, Gari Garaialderen *Ametsak besarkatuz* argazki *surferoak* ikusgai daude Oñatin, domekara arte.

**DJ FESTA**

## DJ jaialdia gaur 3.60 aretoan

**E.M.** > BERGARA

*Electric fridays* jardunaldiei hasiera emanez, DJ jaialdia izango da gaur gauean 3.60 aretoan, 23:00etan. Abendura bitartean, hilean behin, jaialdi elektronikoa antolatuko dute Arrasateko aretoan.

Franco Cinelli (Argentina), Kasper & Papol (Madril), Koldo Intermusic ( Donostia) eta Ion2 (Arrasate) dira gaurko gonbidatuak. Orain dela bi urte, Cinellik (Rosario, 1978), ospe handia lortu zuen *Pícaro EP* lanarekin Bruno Pronsatorekin batera.

Kasper & Papol madrildarrek ere zeresan ugari eman dute 2002a ezkero, han eta hemen festak antolatzeari ekin ziotenetik. Musika elektronikoaren gaineko oso ikuspegi pertsonala daukate, eta, besteak beste, Kiko Barba, Troy Pierce, Butane, Dario Zenker, Jorge Savoretti eta Marc Houlerekin elkarlanean aritu dira.

Gaurko emanaldirako sarrerak 10 eurotan jarriko dituzte salgai.





**Olga Largo** eskoriatzarra eta **Luis Carmona** arrasatearra uztailaren 21ean ezkonduko dira Dorletan. Gure Ametsa jatetxean bazkalduko dute eta eztei-bidaian Venezuelara joango dira. Zorionak eta urte askotarako, lagunen partetik.



**Jasone Albisua** bergararra eta Lleidako **Marc Morillas** uztailaren 14an ezkondu ziren Bergarako Santa Marina elizan. Bazkaria Azpeitiko Kiruri jatetxean egin zuten eta eztei-bidaian Maia Erriberara joan dira. Zorionak, lagunen eta familiakoen partetik.



**Ana Villar** eta **Ruben Moro** arrasatearrak ekainaren 23an Aretxabaletako elizan ezkondu ziren. Gure Ametsa jatetxean bapo bazkaldu eta dantzatu ondoren, New Yorken eta Punta Canan egon dira bidaian. Zorionak eta ongi etorri, oilarraren eta txiten partetik.



Oñatiko **Jose Manuel Sanchez** eta Arrasateko **Yolanda Gomez** uztailaren 28an ezkonduko dira Arantzazun. Ospakizuna Zelai-Zabalen egingo dute eta eztei-bidaian Cancunera eta Maia Erriberara joango dira. Zorionak, bikote, familiakoen partetik.



Arrasateko **Iban** eta Azpeitiko **Jhoanny** zapatuan, hilaren 21ean, ezkonduko dira Arrasaten, Uribarriko elizan. Ospakizunaren ondoren itsas-bidaia egingo dute Mediterraneoan barrena. Ondo pasa, lagunen partetik!



Aretxabaletako **Rafael Dovao** eta **Arantxa Gomez** ezkondu zirela 25 urte bete ziren uztailaren 17an. Zilarrezko ezteietan, zorionak, bikote, eta urte askotarako. Muxu handi bat, familiakoen partetik.



**Rafael Mendikute** eta **Sagrario Arzamendi** Irunen bizi diren arrasatearrak. Otsailaren 16an 50 urte bete zituzten ezkonduta. Urrezko ezteiak ospatu zituzten orduan, eta orain, Baltikoan dira itsas-bidaian seme-alabekin eta bilobekin. Zorionak, guztien partetik.



**Aintzane Mendizabal** eta **Arkaitz Arana** bergararrak Oñatiko Lezesarri auzoko San Esteban ermitan ezkondu ziren joan den zapatuan, uztailaren 14an. Bazkaria familiakoekin Angiozarko Taberna Zaharra jatetxean egin zuten. Gauean, berriz, lagunekin elkartu ziren Agorrosingo tabernan, eta primeran pasatu zuten. Orain, Vietnam inguruan ibiliko dira eztei-bidaiaz gozatzen. Zorionak, familiakoen eta lagunen partetik!



**Birjinia Rivas** aretxabaletarra eta **Igor Juaristi** azkoitiarra zapatuan uztailaren 21ean ezkonduko dira Dorletako santutegian. Egun eder horretan, etxeko guztiok ondo pasako dugulakoan, besarkada handi bat eta zorionik beroenak, familiakoen partetik.

## bono fotoa



**Abuztuan da Bergarako patroiaren eguna. Zein egunetan da eta zein da patroia?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ......................................................
......................................................
IZEN-DEITURAK......................................................
TELEFONOA......................................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Font-Vella ura**
2 l-ko 6ko packa

**3,66 €**
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**BERGARAKO KARMEN IÑARRA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: San Bartolome.**



Bergarako **Paco Moreno** eta **Marisol Escobar** orain dela 25 urte ezkondu ziren Arantzazun. Uztailaren 24an beteko dituzte zilarrezko ezteiak. Zorionak, bioi. Yasmi, Shere eta Ibanen partetik.



**Egoitz Artzamendi** eta **Gina Giraldo** arrasatearrak uztailaren 7an ezkondu ziren Arrasateko Gesalibar auzoan. Afaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean egin zuten, eta ezkon-bidaian Karibera joan dira. Aita-amen partetik, zorionak!



**Ane Amozarrain** aretxabaletarra eta **Gorka Zurutuza** oñatiarra zapatuan, uztailaren 21ean, ezkonduko dira Oñatin. Zorionak eta urte askotarako, etxekoen eta lagun guztien partetik.

## hildakoak

- **Maria Gomez Acedo.** Oñatin, uztailaren 13an. 75 urte.
- **Juan Cabello Sanchez.** Arrasaten, uztailaren 13an. 83 urte.
- **Esperanza Uribarren Liziaga.** Eskoriatzan, uztailaren 13an. 85 urte.
- **Dominga Vergara Guridi.** Oñatin, uztailaren 14an. 83 urte.
- **Paquita Mujika Alustiza.** Bergaran, uztailaren 14an. 83 urte.
- **Pedro Plazaola Gantxegi.** Bergaran, uztailaren 14an. 90 urte.
- **Catalina Camacho Jauregi.** Bergaran, uztailaren 17an. 100 urte.
- **Vicente Olabarria Gisasola.** Bergaran, uztailaren 17an. 85 urte.
- **Tomasa Bengoa Irasuegi.** Aramaion, uztailaren 17an. 92 urte.

MEZA

## Tomasa Bengoa Irasuegi

Tomas Ruiz de Azuaren alarguna

**Arrasaten hil zen 2007ko uztailaren 17an, 92 urte zituela.**

**Haren arimaren aldeko hileta elizkizuna, domekan, uztailaren 22an, 13:00etan, Aramaioko** Arexola auzoko Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jacinto Ortueta Irasuegi

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 22an, 13:00etan, Aramaioko Arexola auzoko Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



URTEURRENA

## Edurne Galarza Zulueta

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 22an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

III. URTEURRENA

## Juan Jose Uriarte Muruaga

*Bermi*

*Gure bihotzean zaude.*



Arrasaten, 2007ko uztailaren 20an.

MEZA

## Blanca Becerril Gonzalez

**Murtzian hil zen 2007ko uztailaren 2an, 45 urte zituela.**

**Haren arimaren aldeko meza domekan, uztailaren 22an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**
–
**Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, mila esker.**



Juanjo Diaz de Gereñu Eskibel senarra eta Mireia alaba.
Eskoriatzan, 2007ko uztailaren 20an.

URTEURRENA

## Mari Cruz Letona Jausoro

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 22an, 12:30ean, Maringo Santa Maria Magdalena elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

*Zerbitzu etengabea 365 egunean • Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera…*
*Erantzun azkarra, tratu pertsonala • Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan*
*Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak • Bete beharreko tramiteak • Gorpua prestatu eta dotore ipini*
*Zerraldo aukera, denetariko prezioak • Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko*

Amillaga 27, Bergara • Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Zabalotegi 70 m². Prezio oso ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Antigua 72 m². Oso ondo.

**Elgeta:**
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Bidekurutzeta, 82m², ia berria
- Arrizuri, 97m², oso ondo
- Juan XXIII, 80 m², berritua
- Burdiñate, 60m², garajearekin
- Bidekurutzeta, 60 m², oso ondo
- Zubiaurre, 60 m², aukera ona
- Zubieta, 65 m², oso eguzkitsua
- Irizar pasealekua, 92 m², oso ondo.
- Ibargarai, 80 m²,ondo
- Artekale, 62 m² oso ondo
- Aranerreka, 87 m², ondo
- Osintxu, 80 m², ondo
- Mugertza, 60 m², berria
- Masterrekan etxebizitzak 3 logelakoak eta duplexak
- Ibarra, 130 m², aukera ona

**SORALUZE**
- Gabolatz, 65 m², oso ondo

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai dago, adosatua. Estreinatzeko. Deitu telefono honetara: 607 79 00 37.

**Aretxabaleta.** Erdigunean, 72 m2-ko teilatupekoa eta 16 m2-ko garajea. Prezio ona. Telefonoa: 659 64 67 38.

**Arrasate.** Etxea salgai San Josepe kalean. 60 metro koadro. 2 logela. Sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Trastelekua du. Guztiz berriztatua. Telefonoa: 667 53 70 00.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Santa Marinan. 3 gela, komun bat, jangela-egongela, garajea eta trastelekua. Ikuspegi ederrak. 653 73 24 62.

**Arrasateko** Erguin auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna, sukaldea eta bi balkoi. Oso eguzkitsua da, etxeak kanpoaldera ematen du. 72 m2. 660 46 47 24.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Deitu telefono honetara: 619 41 39 72.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko gertu. Oso polita. Eguzkitsua. Deitu telefono honetara: 685 72 40 30.

**Bergara.** Zabalotegin etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. Deitu telefono honetara: 615 79 41 02.

**Bergaran.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Bi logela, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz berritua. Gas bidezko berogailu indibiduala. Prezio oso interesgarria. Deitu: 21:00-23:00. 943 76 19 39.

**Elgeta.** Bigarren solairua da. Igogailua, hiru logela, sukaldea, komuna, egongela eta ganbara ditu. 138.232 euro. Telefonoa: 645 71 76 25.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai San Pedro Kalean guztiz berritua. 73 m2, 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara. 615 70 99 18.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai San Pedro kalean. 73 m2, 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoia. Guztiz berritua eta eguzkitsua. Telefono: 615 70 99 18.

**Guardia (Laguardia).** 80 m2. Sukaldea, hiru gela, egongela-jangela, bainugela eta 30 m2-ko ganbara. Jantzita. Hirigunean. Eguzkitsua. Prezioa adosteko aukera. Deitu ezazue telefono honetara: 943 77 21 24 edo 696 02 42 10.

**Oñati.** Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Lehenengo eskukoa. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta terraza. Eguzkitsua. Alboko bigarren solairua. Prezio interesgarria. Deitu telefono honetara: 670 27 45 82.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan 93 m2-ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, estudioa, ganbara eta garaje handia. Deitu 20.00etatik 22.00etara. Deitu ezazue telefono honetara: 943 53 42 10.

**Oñati.** 120 m2-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. Deitu ezazue telefono honetara: 676 39 36 93.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzon. Saloi-sukaldea, 2 logela, komuna eta terraza handi bat. Garajea aukeran. Deitu telefono honetara: 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. 4 logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Deitu ezazue telefono honetara: 617 85 85 41.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzon. Berriztatuta. Ganbara eta garajea. 3 logela. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara: 656 74 80 47.

**Sojuela (Errioxa).** Golf-zelai batean dagoen etxebizitza. Hiru logela, egongela-jangela, sukalde jantzita eta bi komun. Garajea eta trastelekua. Deitu ezazue telefono honetara: 685 72 44 91.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Apartamentua errentan** emarten da Gandiako hondartzan, abuztuko bigarren hamabostaldian eta irail osoan . Bi logeladitu , igerilekua. Deitu ezazue telefono honetara: 635 31 26 11.

ARRASATE

**Plazan dagoen Zuk Nahi taberna errentan ematen da. Prezio onean. 618 76 34 40**

**Arrasate.** 07/08 ikasturterako 4 ikaslerendako etxebizitza errentan ematen da. Telefonoa: 945 12 46 22.

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza errentan ematen da. Lau logela ditu. 630 54 57 38.

**Arrasate.** Etxebizitza alokagai daukat erdialdean. Logela, sukaldea eta egongela ditu; bikote batendako aproposa. 530 euro. 619 34 88 52.

**Arrasate.** San Andres auzoan ikasleendako etxebizitza errentan ematen dut. 943 79 81 05.

**Cauterets.** Lau pertsonarendako apartamentua errentan Frantziako Pirinioetan. 10 euro pertsona eta egun bakoitzeko. 625 70 61 91.

**Eskola** Politeknikotik 5 minutura dagoen etxebizitza errentan ematen da. Merkea. Telefonoa: 943 79 81 05.

**Gasteiz.** Etxebizitza errentan ematen da ikasleentzat. Guztiz ornitua. 4 logela, bakoitza bere bainuarekin. 943 76 58 91.

**Jaca.** Urbanizazio batean dagoen etxea errentan ematen da. 2 logela. Urbanizazioak igerilekua, squasha, sauna, jacuzzia eta gimnasioa dauzka. Telefonoa: 609 47 86 91.

**La Barrosa-Chiclana (Cadiz).** Irailean apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. Telefonoa: 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Loredo (Kantabria).** Apartamentua alokagai daukat. Bi logela ditu, eta hondartzatik bost minutura dago. 679 35 29 70 edo 943 79 81 38.

BERGARA

**Depor tabernak zerbitzariak behar ditu. 629 26 88 51**

**Marina D'Or.** Apartamentua alokagai daukat Marina D'Orren (Oropesa). Aire girotua, garajea eta igerilekua dauzka, eta hondartzaren alboan dago. 610 92 93 15 edo 943 79 93 80.

**Oñati.** Olakuan, 2 logelako etxebizitza. Ikasturterako bakarbakarrik. 660 40 06 75.

**Peñiscola.** Apartamentua ematen da errentan abuztuaren lehenengo hamabostaldian. Hondartzatik 100 metrora. Igerilekua eta aparkalekua ditu. 659 72 77 72.

**Peñiscola.** Apartamentua. Hondartzatik gertu. Parking eta igerilekuarekin. Abuztua eta iraila. Telefonoa: 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

**Pinedan** (Tarragona) apartamentua errentan ematen da. Hondartzatik eta PortAventuratik gertu dago. Igerilekua dauka. 637 22 78 82.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

**Villanua (Jaka ondoan).** Apartamentua errentan ematen da abuztuaren lehenengo hamabostaldirako. Igerilekuarekin eta aparkaleku pribatuarekin. 656 74 80 47.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartu nahi dut errentan Arrasateko edozein tokitan. 690 28 91 89.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 629 75 40 22.

**Debagoiena.** Etxebizitza txiki bat errentan hartuko luke bikote batek. 655 72 27 61.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. 655 70 30 37 edo 676 59 66 38.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat alokairuan hartuko nuke. 667 56 13 24.

**Arrasate** Logela bila urritik urtarrilera. Seriotasuna ziurtatua. 656 77 66 32.

**Bi pertsona** behar dira Gasteizen etxebizitza konpartitzeko (unibertsitatetik gertu). 600 29 80 26.

ARRASATE

**KANPAZAR jatetxeak barran zerbitzariak behar ditu. 4 egun lan, 2 jai. 669 30 26 86**

**Eskoriatza.** Logela bat behar dut hurrengo kurtsorako. Xabi. 667 25 58 19.

**Eskoriatzan** etxebizitza bila nabil datorren kurtsorako. Gela bakarra beharko nuke eta beste ikasle batzuekin konpartituta. Deitu telefono honetara: 667 25 58 19.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Lezaman. Deitu telefono honetara: 647 08 00 16.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. Deitu telefono honetara: 606 65 97 82.

### 202. EROSI

**Arrasate.** Garaje itxia erosiko nuke San Andresen. Telefonoa:, 699 49 14 32.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia emango nuke errentan Errekabarren kalean. Deitu telefono honetara: 943 79 40 19.

**Arrasate.** Ferixalekuko aparkalekuan dagoen garaje bat errentan ematen da. Deitu telefono honetara: 605 74 52 02.

**Arrasate.** Kontzezino kalean garaje plaza errentan. Telefonoa: 655 71 81 84.

**Bergara.** Garajea errentan Ibargarai 38an. Deitu telefono honetara: 943 76 74 19.

**Oñati.** Garaje bat errentan ematen da Santa Marina kalean. 615 71 53 29.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 140 metro koadro ditu, bi solairutan. Herriaren erdialdean dago eta sukalde eta industria aparailuz hornituta dago. Elkarte baterako aproposa da. Deitu telefono honetara: 645 00 71 46.

**Lokala salgai** Aretxabaletako erdialdean. Kafetegia izateko oso egokia da. 290.000 euro. Deitu telefono honetara: 635 72 59 40.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxea errentan ematen da. Deitu telefono honetara: 665 70 75 01.

### 305. BESTELAKOAK

**Entseatzeko lokala.** Aretxabaletako gazte talde batek entseatzeko lokal bat behar du, inguruan. Telefonoa: 655 73 15 26 edo 649 22 22 98.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Emakume bat behar da haurrak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 610 33 67 04.

**Arrasate.** 45 urtetik gorako emakumea behar da umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 656 74 97 11.

**Arrasate.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta edadeko pertsona bati laguntzeko. Irailetik aurrera. Goizetan bi ordu. Deitu telefono honetara: 657 79 07 39.

**Bergara.** Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 943 76 50 63.

**Bergara.** Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegia: 08:00etatik 15:00etara. Deitu telefono honetara: 639 03 43 58.

**Bergara.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 615 76 65 55.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek edozein lan egingo luke. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu telefono honetara: 943 08 12 80.

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke. Deitu telefono honetara: 636 91 92 83.

**Bergara.** Emakume bat gertu dago lana egiteko, goizetan: garbiketa lanak egiten edo umeak zaintzen. 639 02 00 81.

**Bergara.** Emakume bat gertu lanerako. Deitu telefono honetara: 677 05 99 99.

**Bergara.** Emakume bat gertu nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 659 35 09 30.

**Bergara.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 637 08 66 53.

**Bergara.** Neska gaztea gertu umeak zaintzeko, arratsaldez. 650 23 34 98.

**Bergara.** Umea edo nagusiak zainduko nituzte eta etxeko lanak egin. Orduka. Telefonoa: 637 02 07 11.

**Debagoiena.** Emakume bat eskaintzen da arratsaldeetan lan egiteko garbiketan, edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzen. Abuztuan ere lan egiteko prest. Deitu telefono honetara: 638 89 98 60.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu dago adineko pertsonak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo ordezko lanak egiteko. 649 63 23 24.

**Debagoiena.** Gizon gazte bat gertu dago garbitasun lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko edo ordezkapen lanak egiteko. 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Lorezain, fresatzaile, dendari edo garbiketa lanetan jarduteko gertu. Alex. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Mutil gazteak lan egingo luke eraikuntzan edo zerbitzari gisa. Paperak ditut. 628 76 57 34 edo 943 76 29 02.

**Debagoiena.** Neska eskaintzen da dendari lanak egiteko, garbiketak egiteko, edo umeak zein edadetuak zaintzeko. Telefonoa: 652 71 32 12.

**Debagoiena.** Neska euskalduna dendan lan egiteko prest. 690 14 36 68.

**Debagoiena.** Neska frantziarra eskaintzen da frantses eskolak emateko. Deitu telefono honetara: 652 71 32 12.

**Debagoiena.** Neska gaztea lan egiteko prest. 636 31 15 36 edo 943 76 29 02.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 659 35 09 30.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 678 80 11 54.

**Debagoiena.** Sukaldaritzan lan egiteko gertu nago, egunero edo aste bukaeratan. Telefonoa: 628 72 25 07.

**Debagoiena.** Umeak zein nagusiak zainduko nituzte eta etxeko lanak egin. Deitu telefono honetara: 659 37 41 95.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Debagoiena.** Ingeles eskolak ematen ditut: etsaminetarako, eskolarako lagungarri, ingeles komunikatzailea... Deitu 15:00etatik 21:00etara. Telefonoa: 610 97 49 68.

**Goi mailako ingeniari** industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Oñati.** Uztailean eskola partikularrak emango nituzke. Irakaskuntzan diplomatua naiz. Eskarmentu handia. 666 21 73 48.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Bandit 600** motozikleta salgai. 13.000 km. Matrikula: SS-7314-AU. 658 71 48 29.

**Citroen Jumpy** furgoneta salgai. 1.900 TD. 669 94 87 53.

**Motorra** saltzen dut. BMW-f650. Egoera onean. Maletak dauzka. 1999koa. 3.000 euro. 607 80 34 40.

**Opel Zafira** 2.0 Dti, 2004koa. Aire-girogailua. ESP, hagunak (llantak)... 629 56 29 25.

**Polo GT.** 1992koa. IAT (ITV) 2008 arte pasatuta. Deitu telefono honetara: 639 57 19 88.

**Peugeot Expert** furgoneta salgai. Egoera onean. 3.200 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 650 96 50 43.

**Seat Alhambra** Sport monobolumena salgai. 2004koa. 145.000 km. Egoera onean. 653 71 04 56.

**Seat Ibiza** salgai. Diesela. SS-AT. 685 73 79 65.

**Trialeko** motorra salgai. Gas-Gas 280 TXT. 2002koa. 1.500 euro. 679 80 98 85.

**Volkswagen** Polo GT. 2008ko otsaila arte du Ibilgailuen Azterketa Teknikoa. 500 euro. 680 78 20 51.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ehiza-txakurrak.** Bi hilabeteko txakurkumeak saltzen ditut. 943 71 48 90.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrantza.** Boiles amuzkia saltzen dut karpak arrantzatzeko. 688 62 84 25.

**Astrolon teleskopioa** salgai. Telefonoa: 943 79 41 31.

**Egurra** salgai beheko suarendako. Bi kamioi. 945 44 51 11.

**Egurrezko** mahaiak eta aulkiak salgai. Prezio interesgarria. 607 46 83 66.

**Gitarra.** Mosrite gitarraren kopia, Dillionek egindakoa. Edizio mugatua, kolore zuria. Estatu Batuetan erosi berria. 400 euro, negoziagarriak. Telefonoa: 607 21 19 69.

**Karabana.** Knaus markako karabana salgai. 2005ekoa. Hiru girotan banatua eta gehigarri guztiekin. 620 39 69 47.

**Karro-denda** salgai. 6 lagunendako. Egoera oso ona. Armairuak, sukaldea eta gehigarri guztiekin. Deitu telefono honetara. 645 73 13 94.

**Kronometro profesionala** salgai. Berria. 200 euro. (Nerea). 943 79 68 18.

**Mahai** obalatua salgai. 1,36 x 0,92 cm ditu, eta luza daiteke. 200 euro, negoziagarriak. 617 17 15 88.

**Maison gitarra** elektrikoa saltzen dut, Les Paul estilokoa, beltza. Funda eta kablearekin. 240 euro. 648 06 79 85.

**Mendiko bizikleta** salgai. BH markakoa. Egoera onean. 100 euro. 686 20 03 31.

**Ume-kotxea** eta aulkia salgai. Jane Balmoral markakoak. Bebe Comfort aulkia eta bidaiarako kuma ere bai. Bainuontzia opari. Egoera oso onean daude. 200 euro. 943 79 59 34.

**Umea** eramateko Vaude markako mendiko motxila eta Handy Sitt markako mahaira egokitzen den aulkia salgai, 120 eurotan. Maxi Cosia opari. 652 73 34 61.

**Umearendako** segurtasun aulkia, autoan erabiltzeko. Telefonoa: 943 79 41 31.

**Zodiac txalupa.** 3,80 metro luzeran eta 1,72 metro zabaleran. 25 ZPko motorra. 665 70 36 49.

### 802. EROSI

**Lursaila** edo/eta txabola erosiko nuke Debagoienean. Telefonoa: 616 00 65 91.

### 806. GALDU

**Bergara.** Zilarrezko pultsera zabal bat galdu dut Santa Marina parrokian. 943 76 24 35.

**Urrezko Pultsera** bat galdu nuen Antzuolan, domekan. Ondo sarituko da. Deitu telefono honetara: 649 72 15 49.

## LAN POLTSA IGELTSEROENTZAT

Arrasateko Udalak lan poltsa bat osatu nahi du aldi baterako ordezkapenak egiteko.

**Izena emateko epea**: uztailaren 23tik 26ra

**Oinarri-arauak**: BAZen eta web orrian jaso daitezke:
www.arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**

HELDU DIRA UDAKO ESKAINTZA BEREZIAK!





ITZIAR UGARTE

*Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak*

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87
Eskola Politeknikoaren ondoan

PORTALOIKO bulegoko 20. urteurrena

Arrasatear guztiekin ospatzea nahiko genuke



Tenerife

Bilbotik irteera. 8 egun-7 gau. Hegazkina. Trasladoak. Pentsio erdia barne.

**Uztailak 23, 25, 30.**
Iparrean: Sol Puerto Playa H****
360€ tik aurrera
Hegoaldean: Paradise Park Resort H****
395€ tik aurrera

**Abuztuak 1**
Iparrean: Parque Vacacional Edén APTH***
561€ tik aurrera
LEHENENGO UMEAK 200 € bakarrik ordainduko lituzke
Hegoaldean: Coral Beach APTH***
561€ tik aurrera

Lanzarote

Bilbotik irteera. Hegazkina. Trasladoak. Pentsio erdia barne.

**Uztailak 25, 26.**
8 egun-7 gau.
Sol Morromar APTH***
360€
8 egun-7 gau. Dream Gran Castillo & Spa H*****
693€

**Abuztuak 26, 30**
8 gau. Sol Morromar APTH***
671€

Eta gainera

**%5 DESKONTUA**: IRLAK 07 katalogo desberdinetatik erosteagatik.

**%8 DESKONTUA**: 45 egun aurrez erreserbak eginez gero –IRLAK 07 katalogotik.

**BAZKIDE TXARTELA** duzuen guztioi zuen fideltasuna eskertu nahi dizuegu eta % 5ko deskontuari beste deskontuak gehituko dizkizuegu.

Baldintza Orokorrak

Bidaiaren erreserba eta guztiaren ordainketa, uztailak 23 eta 28 bitartean izan beharko da.

MAISU ARANO, 8 - Arrasateko bulegoan egin behar dira erreserbak.

TELEFONOA 943.77.17.11

EROSKI bidaiak
merezi duzu

Prezioak pertsonako logela bikoitzean, besterik adierazten ez bada. Ez daude barne tasak, kudeaketa-gastuak eta erregaiaren igoera, egokituz gero. Handizkaria -txikizkaria CIE 618. 2007 urtea.

**Amaia Mallabiabarrena** > Moda diseinatzailea

# "Debagoieneko jendeak kolore beltzak asko erabiltzen ditu janzterakoan"

Amaia Mallabiabarrena arrasatearrak Bartzelonako Felicidad Duce eskolan ikasi du Moda Diseinua. Lau urteko ikasketak amaitu berri ditu; ekainean, Madrilen, Espainia mailako saria irabazi zuen emaztegaien soinekobatekin. Uztailean, Düsseldorfera joango da beste lehiaketa batera (Alemania), eta irailean, Antonio Miroren enpresan hasiko da lanean.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Amaia Mallabiabarrena Arrasaten da egun hauetan; Bartzelonan Moda Diseinu ikasketak amaitu berri ditu eta egun batzuk hartu ditu oporretarako. Laster Alemaniara joango da, Düsseldorf herrira, ekain hasieran Madrilen saria jaso zuen soinekoa aurkeztera.**



**Madrilen, emaztegaien soineko batekin lehenengo postua eskuratu duzu.**

Bai, Concurso Nupcial Puerta de Europa deitzen da lehiaketa; aurtengoa seigarren edizioa izan da eta lehenengo saria eskuratu nuen. Espainia mailako diseinatzaile gazteek hartu genuen parte lehiaketan, eta ezkongaien soinekoak bakarrik aurkeztu genituen.

**Saria jasotzen Telemadriden izan zinen.**

Bai, hala da. Prentsa handia egon zen lehiaketa hartan; moda diseinuko aldizkariak, batez ere. Amaieran, Telemadrid kateko programa batean eman zuten sari banaketa zuzenean; *Hoy por ti*, Nieves Herreroren programan, hain zuzen. Platora joan behar izan nuen, elkarrizketa egitera.

**Aukera ederra izan da moda munduan bidea irekitzeko.**

Saria dirutan izan zen; baina lehiaketak, gainera, beste ate batzuk ere ireki dizkit. Adibidez, orain, uztailean, Alemaniako Düsseldorf herrira joango naiz; han, Madrilen erakutsi nuen soinekoa aurkeztuko dut. Eta Lisboara ere joango naiz, baina oraindik ez didate zehaztu.

Aurten amaitu ditut ikasketak, eta kurtso amaierako lan moduan egin nuen proiektua lehiaketa askotara aurkeztu dut. Beraz, beste lehiaketa batzuetan ere ibili naiz, Italian esaterako, baina ez dut saririk lortu.

**Emaztegaien arropa da zure espezialitatea?**

Ez; Madrilgo kasuan, lehiaketa zen emaztegaiena, eta propio lehiaketa horretarako egindako soinekoa aurkeztu nuen. Normalean beste arropa mota batzuk egiten ditut; neska gazteei zuzendutako arropa batez ere.

Hala ere, ez dut kalerako arroparik egiten; estilo barrokoa gehiago gustatzen zait. Sormena lantzen dut; orain, aukera daukagu nahi duguna egiteko; hortaz, zerbait originalagoa egiten ahalegintzen naiz.







GOIENKARIA

**PERTSONALA**

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak?** Moda Diseinu ikasketak Bartzelonan. **Zaletasunak?** Saskibaloia, bidaiatzea eta lagunekin egotea. **Gomendatzeko moduko film bat?** Trilogiak gustuko ditut; *Piratas del Caribe* eta *El Señor de los Anillos*, esaterako. **Musikari bat?** Musikari bat baino gehiago, musika estiloa aipatuko nuke: soula. **Arrasateko txoko gustukoena?** Lagunekin egoteko edozein toki da ona; Arrasaten, Monterron parkea asko gustatzen zait. **Amets bat?** New Yorkera lan egitera joatea.

**Eskatu dizute lagunek soinekoa?**

Emaztegai soinekoa ez, baina, orokorrean, jende askok esan dit, batez ere lagunek eta familiakoek, arroparen bat egiteko; baina ez daukat batere denborarik ezer egiteko.

Denbora luzea behar da, dedikazio handia.

**Beti izan duzu argi Moda Diseinua ikasi gura zenuela?**

Hasiera batean enpresa ikasketak egiteko asmoa neukan, Oñatin. Gero, lagun batek Bartzelonara etortzeko asmoa azaldu zuen, eta, niri ere marrazkiak eta arropa mundua asko gustatzen zitzaidanez, nik ere etortzea erabaki nuen. Nahiago dut orain gustuko dudan zerbait ikasi, eta, gero, izango dut aukera berriro ere itzuli eta beste zerbait egiteko.

**Nola ikusten duzu etorkizuna moda munduan?**

Momentuz lanean hasiko naiz; irailean, patroigile Antonio Mirorentzat. Ez da Antonio Miro marka, Bartzelonako diseinatzaileak duen beste marka bat da, marka txikiagoa. Lanean hasi aurretik, baina, lehenengo Alemaniara joango naiz, Düsseldorfeko feriara.

**Nola janzten da Debagoieneko jendea?**

Bartzelonakoekin alderatuta oso desberdin. Hemen jende guztiak estilo bera du. Ez dakit nola esan, baina asko erabiltzen dira kolore beltz eta ilunak. Agian, klimarengatik ere izan daiteke.

**Jantzeko osagarrien artean, zein duzu gustukoen?**

Zapatak eta poltsak asko gustatzen zaizkit; baina batez ere zapatak. Nik uste dut oinetako on batzuek soinekoa hobe dezaketela, edo baita alderantziz. Oso garrantzitsuak dira.

**Nor da zure diseinatzaile faboritoa?**

Bada, berez ez daukat diseinatzaile faboritorik; diseinatzaile bakoitzetik zerbait gustatzen zait. Bat aipatzekotan, Dior esango nuke; edo Alexander Mcqueen. Eta euskaldunen artean, Balentziaga.

Hasieran nahiago dut beste batzuentzat lan egitea. Eskolan ikasten dena oinarrizkoa da; hortaz, zenbat eta gehiago ikasi eta lan egiteko modu ezberdinak ikusi, hobe dela uste dut.




**WEBGUNEA** Honako helbidean dago inbentarioa: *www.euskara.euskadi.net/ikt_inbentarioa.* GOIENKARIA

**EUSKARA** > INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIEN INBENTARIOA

# Internautak badabiltza euskal IKTen inbentario berria erabiltzen

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak ekain bukaeran ipini zuen erabiltzeko moduan inbentario hori, eta dagoeneko 331 proiektu kontsulta daitezke han

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Internautak badabiltza Euskarazko IKTen Inbentarioa kontsultatzen, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ipini zuenetik, ekain bukaeran, *www.euskara.euskadi.net/ikt_inbentarioa* helbidean. Webguneko datuen arabera, hauek dira gehien kontsultatutako proiektuak: Xuxen III. zuzentzaile ortografikoa; Euskalterm euskal terminologia banku publikoa; ahotsaren ezagutzea contact center aplikazioan garatzeko proiektua; Elhuyar hiztegia Interneten jartzekoa; eta Open Office.org 1 software libreko bulegotika-paketea euskarara lokalizatzeko proiektua.

**PROIEKTUAK, 331**

Inbentarioak bi zati ditu. Bat, proiektuena, publiko guztiari irekia; eta bestea, agente teknologikoena, izena ematea eskatzen duena. Bada, proiektu arloan, horietako 331 kontsulta daitezke, honako multzoetan banatuta: hizkuntza-baliabideak eta tresnak; itzulpengintzari laguntzeko tresnak; sistema interaktibo aurreratuak; euskarazko softwarea; informazioaren eta jakintzaren kudeaketa; euskarazko eduki digitalak sortzea; prestakuntza; e-inklusioa; eta besteak.

Euskarazko IKTen Inbentarioa helburu jakin batekin prestatu du Kultura Sailaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak: arlo horretan euskara gehiago erabil dadin errazteko ildo estrategiko gisan. Horretarako, euskararen eta IKTen sektoreko eragileek egiten dituzten proiektuen eta baliabideen informazioa modu sistematikoan batu nahi du; horregatik, etengabe eguneratzen joango da.

**EUSKARA, GERO ETA GEHIAGOK**

Jaurlaritzak apustu handia egin du euskara teknologia berrietan normaltzearen alde Hala, 2007an, 1.350.000 euro banatu ditu IKTetan, iaz baino %35 gehiago. Horrez gain, gero eta gehiagok nabigatzen dute euskaraz: 2003tik 2006ra, Interneten erabiltzaile kopurua %18,7 igo zen, eta euskaraz zerabiltzatenena, %96,2.

## teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

### Hamabi megapixel eta objektibo angeluhandia duen lehenengo argazki-kamera konpaktua

Panasonic enpresa japoniarrak Lumix modeloaren gama berria aurkeztu du. 28 milimetroko Leica DC objektibo angeluhandia du. Objektiboa: 3,6x zoom optikoa. Argitasuna: f/2.8.

FX-100 modeloak 27 MBko barne memoria du eta SD, SDHC eta MMC txartelak erabil daitezke.

Bateria eta memoria txartelarekin 176 gramoko pisua du.

Salneurria zehazteke dago: 450 eta 500 euro artean.




Bi koloretan eskuragarri dago Lumix FX-100 modeloa: grisa eta beltza.

> PANTAILA

### Jokozaleentzako bereziki diseinatutako hemeretzi hazbeteko Benq etxearen pantaila berria

Pantaila berria aurkeztu du Benq etxeak. FP94VW modeloak 19 hazbete ditu. Senseye teknologia berria du, aurredefinitutako sei pantaila modurekin (racing game, action game, movie, dynamic, photo eta standard).

Jokozaleentzat bereziki diseinatutako pantaila da. Monitorearen izkina batean eskutxo bat dauka agintea zintzilikatzeko.

Erresoluzioa honakoa da: 1440 x 900 (WXGA+).




Monitorearen izkina batean eskutxo bat dauka agintea zintzilikatzeko.

> TELEFONIA MUGIKORRA

### Blackberry 8820, aurreko smartphoneen bertsioen prestatuntza berak, gehi wi-fi

Research In Motionek Blackberry 8820 ofiziala egin du.

Aurreko bertsioen prestakuntza berak ditu, eta operadorearen tarifak erabili gabe abiadura handiko Internet konexioa erabiltzeko wi-fi protokoloa gehitu diote.

8820 GSM, GPRS eta EDGE laubanda telefonoa da.

MicroSD eta MicroSDHC txartelak erabiltzen ditu memoria handitzeko.

RIMen arabera, Estatu Batuetan uda bukaeran eskuragarri egongo da; Europara noiz helduko den ez dute zehaztu, ezta preziorik ere.




Aurreko bertsioen prestakuntza berak ditu, baina Wi-fi protokoloa geitu diote.


## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

**www.goiena.net/blogak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| /aebpn | /denetik | /gertu | /korozabaleta | /richimaier |
| /aiastui | /dragon-oriental | /gorkataxi | /markiegi | /tabernaberri |
| /aretxargi | /dukiena | /gurea | /maulanda | /udalaitz |
| /argi-plastik | /ego | /guztizeder | /mayte | /urdeki |
| /arregi | /ekilore | /hamaika | /merkeopari | /urbieta |
| /atai | /ekin | /itxaseder | /multiopticas | /urko |
| /azkarate | /elejalde | /irudisport | /ohiak | /vitoria |
| /bastida | /ezkutuorly | /ixaun | /ogizun | /zainduz |
| /briz-aseguruak | /galgorri | /jracing | /okipark | /ziripot |
| /BZ-sistemas | /gallastegi | /joseba | /otzeta | |
| /bolusukaldeak | /ganesha | /lamaino-etxeberri | /pando | |
| | /garaia | /lorelan | /puerta-ingles | |

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

**Eta baita ere:**

**www.aizue.com**
**www.amgautoak.com**
**www.baster-aldejatetxea.com**
**www.ehmff.com**
**www.gelatzu.com**
**www.goikobenta.com**
**www.haurtxoa.com**
**www.klorofila.com**
**www.landaluze.com**
**www.lilura.com**
**www.toldoslete.com**
**www.uxarte.net**



## berriak

> PROGRAMAZIOA

### Xaloa Telebistak ekoiztuta, San Fermin jaiak GOITBn

San Fermin jaietan, zezenez eta entzierroez gain, izaten dira beste hainbat ekintza jaiez gozatzeko. Horietako bat, goizero egiten dena, buruhaundi eta erraldoien konpartsen erakustaldia da. Xaloa Telebistak ekoiztuta, konpartsetako protagonistekin hitz egingo dute, umeekin eta gurasoekin, eta San Ferminetan goizetan izaten den giro ederraz gozatu ahal izango duzue.

> PROGRAMAZIOA

### Gaurkotasuna mintzagai eguenean 'Berbaire'-n

Egunerokotasuna eta gaurkotasuna izango dituzte mintzagai datorren eguenean *Berbaire*-n elkartuko diren lagunek. Gorka Etxabek aurkezten duen saioan, egungo gizartean eragina duten eta zeresana ematen duten gaien inguruan sortuko da eztabaida, hala nola kutsadura, garapen iraunkorra... Gonbidatuak Ainhoa Larrañaga, Resu Abasolo eta Egoitz Iturbe izango dira.

> ARRASATE IRRATIA

### Diasporako gazteak, besteak beste, asteburuan

Datorren astelehenean eta martitzenean Eskoriatzara datoz euskal diasporako 22 gazte. Diasporako gazte horiek dagoeneko Nafarroa Beherean daude, euskal diasporaren lehen zentroa antolatzen. Bada, Eskoriatzako bisitaren zein euskal diasporaren lehen zentro horren gainean jarduteko, Benoit Etxeberri eta Bea Akizu Eusko Ikaskuntzako kideekin egindako elkarrizketa berreskuratuko dugu.

> ARRASATE IRRATIA

### Euskaltel-Euskadiko kamisetak oparituko dituzte irratian

Datorren astean, udako oporrak hartu aurretik, azkeneko zuzeneko saioak eskainiko dizkizuegu. Urtean gurekin izan diren entzuleei eskerrak eman nahian, opariak izango ditugu banatzeko.

Donostiako Aquariumerako eta Musakolako igerilekurako sarrerez gain, Euskaltel-Euskadiko kamiseta dotoreak ere izango ditugu. Zozketa horietan parte hartu nahi izanez gero, bada, deitu 943 71 17 31 telefonora.

**'ILUNPEAN'** >EGUBAKOITZA 22:15

# Jose Angel Irigarai idazle nafarra 'Ilunpean' saioan

Jose Angel Irigarai euskaltzalea da beste edozeren gainetik; Oihana Elortzak elkarrizketatuko du

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Jose Angel Irigarai Iruñean jaio zen 1942an. Euskaltzale sutsua, medikuntza izan du lanbide, baina euskalgintzari lotuta dago betidanik. Batez ere poesia landu du, mota askotariko ekoizpenak egin baditu ere. Oso euskara aberatsarekin landutakoa izan ohi da haren poesia. Bilboko Zenbat Gara elkartearen sortzaileetariko bat da, baita Ez Dok Amairu mugimenduarena ere. *Kondairaren ihauterian*, *Bizi minaren olerkian* edota *Urdinkara* dira Irigaraik idatzitako poesia lan batzuk. Euskaltzale horren istorioak gaur.



**JOSE ANGEL IRIGARAI** Oihana Elortzak elkarrizketatuko du. GOIENKARIA

**'ZU KAZETARI'** > EGUAZTENA 20:47

# Eguaztenean emitituko da 'Zu kazetari', Sahararen gaineko ekoizpen batekin

**GOIENKARIA** >DEBAGOIENA

Datorren eguaztenean emitituko du Goiena Telebistak *Zu kazetari* saioaren beste atal bat. Dakizuen moduan, *Zu kazetari*-n zu zeu izan zaitezke protagonista; izan ere, Goiena Telebistatik kanpo ekoizten diren produktuek izaten dute tokia saio horretan. Datorren eguaztenean, 20:47an, Saharari buruzko produkzio bat izango duzue ikusgai, eta sahararren eguneroko bizitza eta herrialde horretako egoera politikoak eragiten dituen arazoak ikusteko aukera izango duzue. Bestalde, Bergarako Aranzadi ikastolako ikasleek egindako erreportaje bat ikusteko aukera izango duzue laster: Bergarako ikasleek mahoigintzaren gainean egin duten lana. Ekoizleen xedea ehungintzari bizitza eskaini dion jendeari omenaldia egitea litzateke. Bergaran mahoia ekoizten zuteneko irudiak ikusi ahal izango dituzue, eta herriko errealitatean horrek nola eragin zuen ikusteko aukera paregabea eskainiko zaizue; populazioaren igoera, komunikazio sarearen hobetzea, lan sektore desberdinak...

## telebegi

**Leire Kortabarria**

### Hogei urte, beste mundu bat

TVE1 80ko hamarkadako telesailak ematen hasi da egubakoitz gauetan, baina, lehenengo emanaldian, audientzia baxuak izan zituen. Telesail haiek ikusten hazi nintzen, eta beti izango dira nire kutunak; baina euren garaia joan da.

Horrek beste gogoeta bat eragiten dit: 20-25 urtean, zenbat aldatu den telebista. Oraingo telesailak, oro har, hitz hauekin deskriba ditzakegu: ilunak, dramatismo handiagokoak, existentzialagoak, zinikoagoak, errealistagoak, oso ondo eginak, oso istorio konplexuak eta ondo idatziak; 80ko hamarkadakoak, fantastikoagoak, inozentzia handiagokoak, alaiagoak edo, gutxienez, baikorragoak. Alderatu, bestela, *El equipo A*, inor sekula hil ez zen telesail hura, *CSI* eta bere hilketa odoltsuekin; *V*-ko sugandila estralurtarren inbasioa, irribarre batekin ikusten zena, fantasia hutsa zelako, benetako beldurrean oinarritutako *Jericho*-ko bonbardaketa atomikoekin, edo *Alf*-eko umore suabea eta *Mujeres desesperadas*-eko sarkasmoa. Diote aldaketa hori bizi dugun garaiekin doala; mundua ilunago ikusten dugula. Akaso, hala da.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Udako ikastaroak, Deiane Arrietaren eskutik protokolo kontuak eta Doke antzerki taldeko Mariasun Pagoagarekin antzerki ikastaroari buruz; Benoit Etxeberri eta Bea Akizu.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-11:30** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Agenda
Bainutokiekin konexioak: Garaioko urtegia, Musakolako igerilekua, Donostiako Aquarium
Zozketak
Opariak eskuratzeko aukera: 943 71 17 31 telefonora deitu
Zorion agurrak
Efemerideak
**11.30** Izarren ordua: abesti ezagunak
**14:00** Uda Giroan (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 20**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire.**14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Hitz bitan. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Bertso saioa **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Gaurkoak. **20:47** Ikusten. **21:15**Teknopolis. **21:45**Berriak. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 21**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Erreportajea. **12:00** Astekoak. **12:15**Eltze beroa. **12:45** Eltze beroa **13:30** Ur eta lur. **14:00** Berbaire. **15:00** Jaiak:Antzuola. **16:00** Berbaire. **16:30** Erreportajea. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Bizitegia. **20:00**Ikusten. **20:30**Erreportajea. **21:00**Ikusmira. **21:30**Erreportajea. **22:00**Astekoak. **22:15**Bizitegia. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 22**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. **11:00**Ikusten. **11:30**Musikantoi. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Biziztegia. **13:00**Erreportaia. **13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean. **15:00** Ikusmira. **15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Ur eta lur. **18:30**Ikusten. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00**Ikusmira **20:30** 2x2erreportajea **21:00**Jaiak: Antzuola. **22:00**Didjeridu. **22:30** Ikusten. **23:00** Erreportaia.**23:30**Ilunpean. **00:00** Musikantoi. **00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 23**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15** Hitz bitan. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ilunpean. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Bizitegia. **16:15**Erreportajea. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ur eta lur. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45**Gaurkoak. **20:47**5 x 5. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Berriak. **22:15**Ikusmira. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Hasiberriak. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 24**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Harmaillatik. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15** Bizitegia. **18:45**Albisteak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Gaurkoak.**20:47**Erreportajea **21:15**Berbaire. **21:45**Berriak. **22:15**Harmaillatik. **22:45**Berriak. **23:15**Hitz bitan. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 25**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47**Didjeridu. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. 1**8:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Teknopolis. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45**Gaurkoak. **20:47**Zu kazetari 20:15Erreportajea. **21:45**Berriak. **22:15**Berbaire. **22:45**Berriak. **23:15**Ur eta lur. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Hasiberriak. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 26**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Jaiak:Antzuola. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa .**18:15** Teknopolis. **18:45**Albisteak. **19:15**Bizitegia. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Gaurkoak. **20:47**Musikantoi**21:15**Berbaire. **21:45**Berriak. **22:15**Didjeridu. **22:45**Berriak. **23:15**5 x 5. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera.



# Zorionak irabazleoi!

## ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean zozketatu ditugun Euskaltel-eko 25 kamiseten irabazleak honakoak dira:

Iker Olaziregi Kortabarria (Aramaio)
Malux Biain Madina (Oñati)
Esther Kortazar (Eskoriatza)
Josune Ena Zabaleta (Bergara)
Josune De Santos Lopez (Bergara)
Rafael Agirre Maiztegi (Oñati)
Miren Josune Arana Leibar (Aramaio)
Carlos Artzamendi Madinabeitia (Oñati)
Maria Victoria Bakaikoa Larrion (Bergara)
Lourdes Oruna Lopez (Arrasate)
Mikel Olabe Leibar (Arrasate)
Patxi Odriozola Saramendi (Arrasate)
Jesus Mari Zabala Etxebarria (Arrasate)
Koldo Zubizarreta Etxabe (Aretxabaleta)
Iñaki Ceciaga Mondragon (Arrasate)
Antonio Ugarte Lopez de Bergara (Arrasate)
Juan Luis Urzelai Lajarin (Antzuola)
Ramon Ugalde Arrieta (Elgeta)
Sergio Loiti Bengoa (Bergara)
Goiuri Jausoro Agirre (Arrasate)
Eider Iturbe Gaztañaga (Aretxabaleta)
Ana Zubillaga Letona (Eskoriatza)
Izaskun Agirrezabal Lazkano (Bergara)
Joxe Mari Zabaleta Inza (Oñati)
Kristina Bakaikoa Larrea (Antzuola)

Sariak jasotzeko pasa zaitezte honako egoitzetatik, uztailaren 23tik 26ra, 09:00-13:00 / 14:30-18:30

**Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:**
GOIENKARIA
Irizar Jauregia – Barrenkale 33
BERGARA

**Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:**
GOIENA
Nafarroa Etorbidea 2 – 1. solairua – 5. atea (Saiolan Eraikina)
ARRASATE

Eta urtean zehar ere, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpideduna izateagatik, astero hainbat opari jaso ahal izango dituzu.

Harpidedun egiteko:
**902 36 38 51**
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
**18 euro**
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

# Uztailak 20-27

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 01/02** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ARRASATE

**> 'Electric Frydays' jardunaldi elektronikoa, gaur hasi eta abendura arte**

3.60 aretoan izango dira. Gaur aurkezpen jaia egingo dute (23:00) eta hilero, egubakoitz baten izango dira saioak. Gaur arituko dira: Franco Cinelli (Argentina), Kasper&Papol (Madril), Koldo Intermusic (Donostia) eta Ion2 (Arrasate).

## Erakusketa



OÑATI

**> Australiako aborigenen margo erakusketa ikusteko azken eguna da gaur**

Warlukurlangu Artista Aborigenen Elkartearen lanak dira. Elkarte horretako kideen lanak ezagunak dira kolore biziko margo akrilikoengatik eta serigrafiengatik. Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroan daude ikusgai.

## Ibilbideak



OÑATI

**> Arantzazu erreka eta kobazuloak eta Iturrigorriko basoa ikusteko irteerak**

Lehenengoa bihar, zapatua, izango da eta bigarrena etzi, domeka. Batean zein bestean, 09:00etan da irteera, Arrikrutzeko parkingetik, eta bost euro balio du irteera bakoitzak. Izena emateko, deitu Turismo Bulegora (943 78 34 53).

# Musika

ARRASATE

**> Mahaster River taldeak emanaldia egingo du**

Bergararrek Ferrerias kaleko plazan egingo dute kontzertua. AEDk antolatu du ekitaldia.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ARRASATE

**> Malenkonia taldeak kontzertua egingo du**

Oñatiarrek Gure Leku tabernan egingo dute saioa.

Gaur, egubakoitza, 00:30ean.

BERGARA

**> Jazz emanaldia Mr. Dixie Jazz Band taldearekin**

Coruñako boskoteak Chicagon 30eko eta 40ko hamarkadetan egiten zuten musika eroango du Bergarara.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espoloian.

ELORRIO

**> Folk musika, O'Caloran musika taldearen eskutik**

Zaragozako talde hori sei musikarik osatzen dute. Aurkeztuko dute azken lana: *La llave de los sueños*.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Lourdesen.

OÑATI

**> Kontzertua izango da surf jaialdiaren barruan**

The Stupefactos taldeak egingo du emanaldi hori.

Bihar, zapatua, 22:30ean, San Anton plazan.

ELORRIO

**> Allwood Smith Alltet, AEB eta Britainia Handiko bluesa**

Smithen (AEB) ahots eta kontrabaxuak eta Allwooden (Britainia Handia) saxo altuak 40ko hamarkadatik gaur egun arteko doinuak egiten dituzte.

Bihar, zapatua, 22:30ean, Gazetan.

ARRASATE

**> Gypsy Swing taldearen emanaldia**

Swinga eta ijitoen musikaren esentzia batzen dituen manouche musika aukera aparta.

Hilaren 26an, 22:30ean, Monterronen.

# Dantza

ARRASATE

**> Mexiko eta Albaniako doinu eta dantzen erakustaldia**

Colimako Unibertsitateko Ballet Folklorikoak (Mexiko) eta Albania taldeak egingo dute erakustaldia.

Hilaren 24an, 22:30ean, Monterronen.

# Antzerkia

ELORRIO

**> Gorakada Teatroren azkeneko ikuskizuna**

*Gondola misteriotsua* da taldearen lan berria. Aktoreen antzezpena, txotxongiloen manipulazioa zein zuzeneko musika eta abestiak elkar josten dituzte lan honetan. Ekialdeko printze baten istorioa dakar. Veneziako kartzela beldurgarrian preso daukate printzea...

Etzi, domeka, 19:30ean, pilotalekuan.

# Erakusketak

OÑATI

**> Gari Garaialde argazkilariaren erakusketa**

Hondarribiko argazkilariak *Ametsak besarkatuz* izeneko erakusketa du ikusgai. Surfaren gaineko zuri-beltzeko 33 argazki dira. Garaialderen esanetan, "surfaren beste aurpegia" erakusten dute. Argazkiok ikusgai daude Gaztelekuko kuboan (18:00etatik 20:00etara) eta Kalezarreko eta Kalebarriko hainbat dendatako erakusleihoetan.

Hilaren 22ra arte.

ESKORIATZA

**> Espainiako gerraren gainean liburuetan ageri ez dena**

*Irakatsi gabeko irakasgaia. Espainiako Gerra Zibila eskolako liburuetan* du izena erakusketak. Helburua da Espainiako gerra orain arte nola ikasi den eta gaur egun nola ikasten den erakustea.

Irailaren 16ra arte, Ibarraundin.

# Hitzaldiak

BERGARA

**> Urpekaritzaren gaineko hitzaldia kultura etxean**

Hizlaria Asier Linazisoro bergararra izango da. Jardun elkarteak antolatu du saioa.

Hilaren 24an, martitzena, 19:30ean.

PROPOSAMENA

BERGARA

## > Basalgo auzoan jaiak ospatu dituzte aste bukaeran

Bihar, zapatua, 21:30ean bertso afaria izango da Joxe Agirre eta Amets Arzallus bertsolariekin. Etzi, domeka, 11:00etan, meza nagusia izango da; 12:00etan, 25. Basalgora txirrindularitza igoera egingo dute eta 12:30ean, pilota partiduak egongo dira. Gero, erromeria izango da eta 14:30ean, auzokoen bazkaria. Jaiek eguaztenean jarraituko dute: 11:30ean, meza egongo da eta gero, umeendako jolasak egingo dituzte.

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, eta eguaztenean.



# Lehiaketak

BERGARA

**> Film laburren bigarren lehiaketa deitu dute**

Udaleko Kultura Zerbitzuak bigarren urtez deitu du lehiaketa: film laburra, abesti baten bideoklipa, iragarkia edo bestelako lanak aurkez daitezke, bakarka zein taldeka. Irabazleak 300 euro jasoko ditu eta 250 euro izango dira bigarrenarendako. Argibideak 943 77 91 60 zenbakian.

Lanak irailaren 3ra arte jasoko dituzte.

# Ospakizunak

ARRASATE

**> Maala auzoan jaiak ospatuko dituzte domekan**

12:30ean meza egingo dute San Frantziskon, eta gero, Errabaleko erretiratuendako luntxa izango da, Plus Ultra tabernan. 16:00etan, umeendako jolasak izango dira; 21:00etan, auzokoen afaria eta gero dantzaldia.

Etzi, domeka.

OÑATI

**> Portu tabernaren agur jaia egingo dute**

2006ko irailean zeuzkaten isunei aurre egiteko eta abokatuei ordaintzeko diru iturri gisa alokatu zuen Oñatiko Gazte Asanbladak Portu taberna. Zikloa bukatu da, asanbladako kideen esanetan, eta bide berriak jorratzeko garaia dela iritzi diote. Tabernaren agur jaia dela-eta, gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte edariak merkeago egongo dira arratsaldean hasi eta iluntzera arte. Bestalde, gaur, egubakoitza, kontzertua izango da 21:30ean, Drakes eta Orquesta Pegaso taldeekin. Etzi, domeka (tabernaren azken eguna), batzarra egingo dute 17:30ean.

Gaur hasi eta domekara arte.

BERGARA

**> Santa Marinako jaiek aste bukaeran jarraituko dute**

Gaur, egubakoitza, XV. boccia txapelketa jokatuko dute. 20:00etan, Capoeira erakustaldia egongo da eta 21:30ean, herri afaria, Agorrosinen. Bihar, zapatua, ziklismo proba izango da, 16:00etan. Santamarinako XVI. saria, hain zuzen. Eta 23:00etan, disko festa, Matxiategin. Domekan, 18:30 aldera, txokolate-jana izango da.

Gaur hasi eta domekara arte.

OÑATI

**> Garagardo Festa antolatu du Aloña Mendi Kirol Elkarteak**

Karpa handia jarriko dute Foruen plazan eta han zortzi

motatako garagardoa dastatzeko aukera egongo da. gaur, egubakoitza, 19:00etan emango zaio hasiera jaiari eta goiz eta arratsalde zabalik egongo da karpa. Edatekoaz gain jatekoa ere izango da; 500 bat lagunek jateko lekua du. Batutako dirua Aloña Mendiko taldeendako izango da.

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte.

OÑATI

**> Jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Madalena auzoan**

Gaur, egubakoitza, auzo afaria egingo dute, 21:00etan. 23:00etan, erromeria izango da eta 02:00etan, rock jaialdia. Bihar, zapatua, 13:00etan, meza izango da; 17:00etan, Gorritiren animaliak eta 23:00etan, erromeria. Domekan, 13:00etan herri kirolak izango dira eta 13:30ean, herriko bertsolarien saioa.

Zapatuan autobus zerbitzua egongo da 02:00etatik aurrera. Ordu erdian behin, autobusa ibiliko da herrigunetik (Txaketueneko kantalean).

## Bestelakoak

DEBAGOIENA

**> 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina luzatu egin dute**

Elgeta eta Bergarako euskara elkarteek herriko liburutegiekin eta Elkar megadendarekin batera egindako kanpaina da. Euskarazko irakurketa bultzatzea du helburu. Kanpainan parte hartzeko egin behar da: liburutegira joan, aparteko apal batean dauden 100 liburuetako bat maileguan hartu eta irakurri eta gero, lau galdera orokor dituen fitxa bete. Hala, deskontu txartela jasoko du erabiltzaileak eta Elkarren liburu hori erosteko orduan %25eko deskontua izango du. Elgetako Goibeko eta Bergarako Jardun elkarteko kide izanez gero, beste %25eko deskontua egingo diote.

Uztailaren 21era arte.

DEBAGOIENA

**> 'Biblioporrak' gidaliburua kalean dago**

Uda sasoian gaudela eta, Debagoieneko udal liburutegiek hainbat liburu eta ikus-entzunezko jasotzen dituen *Biblioporrak* gida kaleratu dute. Adin tarte guztiendako proposamenak jasotzen ditu.

Liburutegietan daude eskuragai.

## Ikastaroak

DEBAGOIENA

**> Oihulari Klown taldeak hainbat ikastaro emango ditu**

Klown jardueraren gaineko hastapen eta sakontze ikastaroak emango dituzte. Hainbat izango dira uztailean hasi eta urrira arte. Uztailaren 17an hasiko dira. Virginia Imazek eta Jose Carmelo Muñozek –taldearen sortzaileak– emango dituzte eskolak.

Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 607 20 45 03 zenbakira.

# Zinema



## Fast food nation **

**Zuzendaria:** Richard Linklater.
**Aktoreak:** Greg Kinnear, Catalina Sandino Moreno, Ethan Hawke.
AEB. 2006.
115 min.

Lehenago ere egin dira dokumental-showak, *Super Size Me* esate baterako, *Fast Food* gure eguneroko janaria bihurtzearen kalteak aztertzen; eta orain, Richard Linklaterrek, *Fast Food Nation*-en bidez, halako negoziotan mugitzen diren enpresa handien jokaerak salatzen ditu. Zuzendariak fikzioa erabiltzen du bere helburua lortzeko, eta fikzioaren garapenean datza filmaren alde ahulena.

Egia izan daitezke *Fast Food Nation*-en ematen zaigun informazioa eta salatzen dituen azpijokoak: elikagaien kalitate eskasa, langileen esplotazioa eta izaten diren lan baldintza lotsagarriak; inposatu nahi duten bizi eredu artifiziala... Hori guztia oso ondo dago, zinemaren bidez aldarrikapenak egin daitezke, baina aldarrikapen horiek ondo lotuak joan behar dute. Ez dugu ahaztu behar fikzio bat, istorio bat eta pertsonaia batzuei gertatzen zaiena ikustera joan garela zinemara; beraz, osagai horiek zaindu egin behar dira. *Fast Food Nation* ikusterakoan, agertzen diren istorio txiki guztiak ez daude ondo bateratuak, ezta gehiegi garatuak; pertsonaiek naturaltasunez berba egin baino gehiago, askotan ia mitinak botatzen dituzte; mezua tramatik atera beharrean zuzenean pertsonaien ahoetatik ateratzen da. Mezua nabarmenegi heltzen zaigu. Janarien munduari buruz ari garenez, mezua gehiegi mastekatuta heltzen zaigula esan dezakegu.

Horrela, halako negozioetan mugitzen diren enpresen salaketa ikusi nahi duenak badu film honetan kritika zorrotza ikusteko aukera. Eta mezuaren atzetik zerbait sakonago eta landuagoa egon behar duela pentsatzen duenari, agian filma motz samar geratuko zaio.

**Antonio Zabala**

**ARETXABALETA**
**HERRIKO PLAZA**

**Eutsi!**
Egubakoitza: 22:30.

**ARRASATE**
**MONTERRON**

**Las vacaciones de Mr. Bean**
Egubakoitza: 22:30.

**OÑATI**
**SAN ANTON PLAZA**

**Downhill motion**
Zapatua: 21:00.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**28 semanas despues**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 18:30, 22:30.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Transformers**
17:00, 19:45, 22:30.

**Harry Potter y la orden del Fenix**
17:00, 19:45, 22:30.

**Los lios de Gray**
17:30, 20:00, 22:30.

**Chuecatown**
18:30, 22:30.

**Shrek Tercero**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Verdades ocultas**
16:30, 20:30.

**Atasco en la nacional**
17:30, 20:00, 22:30.

**Netx**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Fast food nation**
18:00, 20:15, 22:30.

**El violin**
17:30, 22:30.

**Odette, una comedia sobre la felicidad**
18:00, 20:15, 22:30.

**La suerte de Emma**
17:30, 20:00, 22:30.

**Cuatro minutos**
17:30, 20:00, 22:30.

**Obras en casa**
17:30, 20:00, 22:30.

**El delantal de Lili**
18:00, 20:15, 22:30.

**Cafe solo o con ellas**
20:00.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Atasco en la nacional**
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**El guia del desfiladero**
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**Next**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Los lios de Gray**
12:15, 16:40, 18:40.

**Harry Potter y la orden del Fenix**
12:15, 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 21:45, 23:30, 00:30.

**Transformers**
12:15, 15:30, 17:00, 18:30, 20:00, 21:30, 23:00, 00:30.

**28 semanas despues**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Cafe solo o con ellas**
20:20, 22:20, 00:20.

**Erase una vez... un cuento al reves**
12:15, 16:20, 18:20.

**Ocena's 13**
15:35, 17:50, 20:05, 22:25, 00:40.

**Shrek 3**
12:15, 16:15, 17:15, 18:15, 19:15, 20:15, 21:15, 22:15, 23:15, 00:15.

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**
12:15, 17:10, 20:20, 23:35.

**Zodiac**
20:40, 23:40.

**Spiderman 3**
12:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**El guia del desfiladero**
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Next**
16:10, 18:10, 20:10, 22:15, 00:30.

**Patinazo de la gloria**
16:15, 18:20, 20:20, 22:25, 00:30.

**Los lios de Gray**
20:30, 22:30, 00:45.

**Harry Potter**
16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30 01:00.

**Transformers**
16:10, 16:30, 19:10, 19:30, 22:10, 22:30 01:00.

**28 semanas despues**
16:05, 18:15, 20:30, 22:40, 01:00.

**Cafe solo o con ellas**
16:00, 18:05, 20:15, 22:20, 00:30.

**Sherk Tercero**
16:05, 16:30, 18:10, 18:30, 20:15, 20:20, 00:30.

**Ocean's 13**
22:25, 01:00.

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**
16:00, 19:15, 22:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.




**Eutsi!**
Euskal Herria, 2007. Zuzendaria: Alberto J. Gorritiberea. Aktoreak: Anjel Alkain, Asier Ormaza, Oihana Maritorena, Kandido Uranga.
90 min. 7 urtetik gorakoendako. Euskaraz.
Kepa eta Martin haurtzaroko lagunak dira, txirrindularitza zaleak. Lan egiten duten enpresa, bi urtez dabil gatazkan. Horrek bi lagunen arteko ika-mikak eragingo ditu. Adiskidantza apurtzear dela helburu bat sortuko da: euren protestak Frantziako Tourrera eroatea.

Bi lagunen arteko gora-beherekin barre egiteko aukera eskaintzen du *Eutsi!*-k.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Bajo las estrellas** ***
Espainia, 2007. Zuzendaria: Felix Viscarret. Aktoreak: Alberto San Juan, Julian Villagran.
100 min.
Benito Lacunzak tronpeta jotzaile izna nahi du. Aita hil ondoren, jaioterrira itzuliko da, Nafarroara. Hara iritsi, eta Benitoren anaia parrandetako aspaldiko bere lagun batekin ezkontzera doala jakingo du; lagun horren alabarekin ere egingo du topo.

**Steak**
Frantzia, 2007. Zuzendaria: Quentin Dupieux. Aktoreak: Eric Judor, Ramzy Bedia.
85 min.
2016. urtea. Moda eta edertasun irizpideak asko aldatu dira. Moda berri batek jendea aurpegi l*ifting*-ak egitera eramango du. Georgek orain gutxi egin du *lifting*-a eta udako oporretan Chivers buruzagi taldean sartu nahiko du. Blaise galtzaileak, txikitako Georgesen lagunak, helburu bera izango du. Hortxe hasiko dira tira-birak.

**Erase una vez... un cuento al reves**
AEB-Alemania, 2006. Zuzendaria: Paul J. Bolger. Marrazki bizidunak.
87 min.
Maitagarrien ipuinen munduan dena oso ondo doa. Baina egun batean, gaizkia eta ongia kontrolatzen dituen mago baten laguntzaileek okerreko botoiari emango diote. Hemendik aurrera, gaizkileek ipuinen amaierak alda ditzakete. Zer gertatuko da ipuinen amaierak aldatuz gero?

**Corazones solitarios**
AEB-Alemania, 2007. Zuzendaria: Todd Robinson. Aktoreak: John Travolta, James Gandolfini.
108 min.
Elmer C. Robinson eta Charles Hildebrant detektibeak Bihotz Bakartien Hiltzaileak bikotearen atzetik dabiltza, haiek harrapatu nahaian. Bikote horrek alargunak hiltzen ditu. Benetako gertaeretan dago oinarrituta film honen istorioa.

**Descubriendo a los Robinsons** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak.
102 min.
Lewisek etorkizunetik datorren mutil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

**Spiderman 3** *
AEB, 2007. Zuzendaria: Sam Raimi. Aktoreak: Tobey Maguire, Kirstan Dunst, James Franco.
139 min.
Parkerrek oreka aurkitu du Mary Janeren maitasunaren eta superheroi eginbeharren artean. Baina, ekaitz baten ostean, haren trajea aldatu egingo da.

**Zodiac** ****
AEB, 2007. Zuzendaria: David Fincher. Jake Gyllenhaal, Robert Downey.
Saileko hiltzaile batek izua zabalduko du San Frantziskon. Bi kazetarirendako obsesio bilakatuko da.

**nire aukera**



Edorta Aiastui
Arrasate Musikaleko tronpeta irakaslea

## Donostiara emaztearekin

Emaztearekin Donostiara aste bukaera pasa joango litzateke gustura Aiastui. Goizean La Perla talasoterapiara, "eta handik erlaxatuta irten eta gero, Alde Zaharrean pintxo-bazkaria egingo nuke", esan du. Arratsaldean lo kuluxka botako luke eta iluntze aldera, jazzaldiko kontzerturen bat ikustera. Gero, "afari erromantikoa egingo nuke".

Domekan, mendi buelta egingo luke: "Igeldotik Zarautzera arteko ibilaldia oso polita da". Eguerdian Argiñanoren jatetxean bazkaldu, eta, aste bukaera ondo bukatzeko, Realaren partidua ikusiko luke gustura.

**Sasoian sasoiko kirolik egiten duzu?**
Gustuko dut kirola. Garai batean UDAn jokatu nuen eta baita Arrasateko errugbi taldean ere.

**Umeak izan eta gero asko aldatzen da denbora libreaz gozatzeko modua.**
Bai. Umearen ordutegira moldatu beharra dago, eurek agintzen dute.

**Neguan zenbat aldiz joan zara Gasteizeko Boulevardera?**
Nahikotxotan. Emazteak dendak ikusi bitartean hainbat buelta eman ditut nik kanpoan. Halakoetarako, merkataritzaguneak alternatiba ona dira.

**Tronpeta jotzaile gustukoena?**
Arturo Sandoval puertoricarra eta Wynton Marsalis estatubatuarra.

**Non emango zenuke kontzertua gustura?**
Monterron parkean. Bandarekin eta Big Band taldearekin eman izan ditut, eta oso leku ederra iruditzen zait.

**Oporretarako planik?**
Conilera, abuztuko bigarren hamabostaldian. Gasteizko Udal Musika Bandan jotzen dut, eta han jaiak ez direnez abuztuaren 10era arte bukatzen, ezin oporrik hartu.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-07-20

# Guria taberna, museo txikia

**61 URTE** Oñatiko Guria taberna 1946an ireki zuten, eta 1963an berritu zuten azkenekoz; ordutik berdin-berdin dago

**MIGUEL MORRIS** Kataluniar horrek izan zuen taberna berritzeko ardura; hasieran, emaitza arraroa iruditu zitzaien

**ETXEKO NEGOZIOA** Taberna errentan daukate hartuta, eta etxeko seme-alaba guztiek egin izan dute bertan lan

XABIER URTZELAI > OÑATI

Oñatiko Atzeko eta Erdiko kaleak batzen ditu Guria tabernak, nahiz eta dagoeneko ez daukan sasoi bateko *quiquilimeo*-a: "Obra egin aurretik, etxeak pasabide bat zeukan kale batetik bestera, eta horri deitzen zioten *quiquilimeo*. Gero, obra egin zutenean desagertu egin zen pasabide hori", esan digu tabernako patroi Espe Elizondok.

**MUSEO TXIKIA**

Eguen goiza da, eta umore handiz hartu gaitu museo txiki horretako nagusi Elizondok, nahiz eta alaba eta beste lankide bat diren taberna gidatzen dutenak. Diotenez, Oñatin ekitaldi bat ez da ofizial egiten Guria tabernan iragartzen ez bada, baina hori ez da tabernak duen berezitasun bakarra: "Margo tailerra zena taberna egin zuten 1946an, eta orduan txikiteo handia egoten zen. Gero, 1963an obra egin genuen, eta ordutik hona ez dugu ezer berritu". Hala, Zahorren lan egiten zuen Miguel Morris kataluniarrak diseinatu zuen taberna berria: "Ez dakit ondo publizista edo zer zen. Kontua da lehengo taberna oso ohikoa zela, normala, eta Morrisek egindako proposamenarekin harrituta geratu ginela. Egia esateko, hasieran, taberna arraroa iruditu zitzaigun". Altzari guztiak egurrezkoak dira, egur iluna, eta baserrietako tresna zaharrek betetzen dute apaingarri lana.



**BARRA ATZEAN** Espe Elizondo Guria tabernaren barraren atzean, goizean, taberna zabaldu aurretik. XABIER URTZELAI

**FAMILIAKO NEGOZIOA**

Espe Elizondoren gizona, Eduardo Azpiazu, 1976an hil zen: "Oñatiko udaletxean ikurriña jarri zuten egunean". Eta, amari laguntzeko, etxeko seme-alaba guztiek egin dute lan Gurian: "Nik dagoeneko 76 urte ditut, eta alaba gazteenak egiten du tabernan lan. Hala, taberna ez da gurea, errentan daukagu, eta etorkizunean ez dakit alabak ze erabaki hartuko duen, momentuz gustura daude".

Dagoen bitartean, segi Guriako patata tortillez eta txorizo egosiez gozatzen.

## ahobero

### "Italian, zuzendaritzako kideekin oheratzen ez diren neskak ez dira telebistan azaltzen"

**Cicciolina** > Porno izar ohia

Italiako izarrak ondo dakien moduan, Italiako agintari askorendako Cicciolina ez da pertsonai batere erosoa. Parlamentari ohi, Saddam Husseini gutun bat bidali zion bera bahi zezala eskatzen. Ilehoriak polemikaz inguratuta bizitzen jakin du.

## iturri onetik

### Zebra-muskuiluari dioten beldurragatik piraguismoa debekatuta Urkulun

Ebro ibaian geroago eta hedatuago dagoen zebra-muskuiluari (*Dreissena polymorpha*) dioten beldurragatik utzi dute piraguismoa udako kirol eskaintzatik kanpo Urkulun. Zebra-muskuilua berehala hedatzen da, eta ekosistemetan sekulako triskantzak eragiten ditu. Gainera, gizakiaren osasunerako kaltegarria ez bada ere, muskuilu hori urte gutxiren buruan ur-hodi guztiak estaltzeko gauza da.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Arrikrutz

Ez dut oraindik bisitatu, baina ez zait denbora asko joango egin gabe. Bestela ere banuen asmoa, baina lankide baten kontuek biziki piztu didate gogoa.

Lankidea Arrikrutz haitzuloaren inguruko baserri batean jaioa da eta txikitatik ezagutu ditu kobaren gaineko gertakari bitxiak. Ondo gogoratzen ditu kobaren lehen ikertzaileak, karburozko argiekin, tartean Juan San Martin; baita Arantzazuko ikasleen sartu aldiak eta estuasunen bat ere; eta nola bera lagunekin barneratzen zen, sikateak putzuetan noraezean utzitako amuarrainak harrapatzera.

Ustezko artza lehoi agertu zenekoa ere ez da makala. Honen kopia bat ikusgai omen dago erakusketan. Bisitaren ibilbidea eta harainoko bidea primeran omen daude antolatuta. Zer gehiago nahi dugu?

## ai, ene!



### Eztia gordetzeko erle itxura duen potea

Ziztadarik ez du ematen erle horrek. Eztia gordetzeko beira eta zilarrezko erle itxura duen potea da.

http://elfurl.com/mjdfv



*Eramaan dotoretasuna zure etxera*
gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51